goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2016-04-22
EGUBAKOITZA
680. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

**Ziklismoan, Gipuzkoako Klasika Oñatira bueltatuko da domekan** | 27

**Eskualdeko 80 musikari gazte Arrasateko Amaia Antzokian** | 32

**Udal eta kirol erakundeek zalantzak dituzte Adikzioen Legearekiko** | 5



**Musirakak agur ekitaldia egingo du bihar, zapatua** | 16



**50 langilek dihardute Katealegaiaren lantegi berrian** | 9



## Ekuadorren alde

Elkartasun azoka egingo dute bihar, zapatua, Oñatin | 18

Martitzenean egin zuten Ekuadorren aldeko elkarretaratzea Oñatin. | AMAIA TXINTXURRETA




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Mariano Ferrer kazetariari elkarrizketa
- Ziklismo solidarioari buruzko erreportajea

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

# Ezkutuan gorde nahi izan dena azaleratuko dute

Etzi, domeka, da Erresistentzia Eguna, Elgetan | 2 eta 25



*Egiaren iturria* eskultura. | J. R. GARAI

# Edukiontziak ipinita, hasi dira sistema berria erabiltzen

Oraingo astean eta datorrenean kenduko dituzte esekitoki guztiak Bergaran eta Eskoriatzan | 14 eta 22



Edukiontziak ipintzen Eskoriatzan. | I.B.




DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 27 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZORION AGURRAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

SINADURAK

XABIER ARREGI | 6

LARRAITZ ZEBERIO | 6

IBON ARRUPE | 11

AITZIBER PLAZAOLA | 15

MIEL GURIDI | 18

AGURNE BARRUSO | 40

# Egiazko Historia aldarri Elgetan

## Gerrako eta gerraosteko zuzeneko protagonistak Elgetan izango dira bigarrengoz; orain, emakumeak



Domekan omenduko dituzten debagoiendarrak. | GOIENA

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

*Ahazteko eskatu ziguten, eta ahaztu genuen. Iruzur egin ziguten. Frankista guztiak jada demokrata zirela ustearazi ziguten.*

Arrasateko Gose musika taldearen *Amets Gorria* kantaren estrofa horrek deskribatzen duen urteetako errealitateari buelta eman eta historia gertatu zen modura gogora dadin aldarrikatzeko, Erresistentzia Eguna egingo dute Elgetan etzi, domeka.

Gerrako eta gerraosteko zuzeneko protagonistei Debagoienean aitortza egingo zaien bigarren aldia izango da domekakoa. Iaz Euskal Herriko gudariak, milizianoak eta errepresaliatuak izan ziren Erresistenteen Egunean. Aurten, berriz, emakumeei egingo diete aitortza egun esanguratsuan; izan ere, etzi –apirilaren 24– 79 urte izango dira Espainian kolpe militarra eman zuten faxistek Elgeta okupatzea lortu zutela.

**40 emakume, guztien isla**

Aurtengo honetan, Erresistentzia Eguna izena ipini dioten egunari, eta 40 emakume omenduko dituzte Elgetako plazan, horietatik sei dira debagoiendarrak –bi daude bizirik–. Omenduetako nagusienak 99 urte ditu –Isidora Casaban–, eta gazteenak 56 urte –Eli Nosellas–.

Jasandako errepresioaren eta sufrimenduaren eta erakutsitako erresistentziaren aitortza modura, Iñigo Arregi eskultura-egile arrasatearrak beren beregi sortutako *Egiaren iturria* eskultura emango diete emakumeei. Hilda daudenen kasuan, senideek jasoko dute –emakumeen zerrenda eta jasandako errepresio mota edo erakutsitako erresistentzia mota, ondoko zerrendan–. "Emakumeen erresistentzia esparru ezberdinetan nolakoa izan zen irudikatzen saiatuko gara: milizianoak, laguntzaile aritu zirenak, erretagoardian erizain ibili zirenak, lubakiak eraikitzeko lan egin zutenak, espetxeratuak, torturatuak, fusilatuak, frontean edo bonbardaketan hil eta zauritu zirenak, erbesteratuak, bortxatuak, kaskamotz utzitakoak…", esplikatu du Julia Mongek, Intxorta 1937 Kultura Elkarteko kideak.

Bestalde, eskulturarekin lotuta, iazkoaren izen bera izan arren, desberdina izango da emakumeek jasoko duten *Egiaren iturria*: gorria izango da, eta iazkoa baino handiagoa, esplikatu du Juan Ramon Garaik, elkarte bereko kideak.

**Erakundeak, memorialistak…**

Hori bai, iaz moduan, aurten ere talde eta pertsona esanguratsu ugari izango dira ekitaldian. Besteak beste, 40k emango diete eskultura emakumeei; batzuk aipatzearren: Debagoieneko udaletako (Aramaio barne) eta Elorrioko Udaleko ordezkariek; Jaurlaritzakoek, Gipuzkoako Diputaziokoek eta Bizkaiko Batzar Nagusietakoek. Sindikatuen artean, ELA, STEILAS eta CNTko ordezkariek; Elgetako, Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Oñatiko emakume taldeetako ordezkariek eta, besteak beste, memoria historiaren berreskuratzearen alde diharduten taldeetakoek: Intxorta 1937, Gogoan Sestao, Goldatu, Sare Antifaxista, Martxoak 3, Genocidio Donosti, Eusko Lurra, Egiari Zor, Euskal Memoria eta Frankismoaren Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak.

Guztiak kontuan hartuta, beraz, milaka lagun espero dituzte antolatzaileek domekan Elgetan. Horrek aldaketak eragingo ditu udalerriko eta inguruko errepideetan. –Informazio gehiago 25. orrian–

### ERRESISTENTZIA EGUNA

**APIRILAK 23, ZAPATUA**

**18:00** Bisita gidatua "Elgeta gerra garaian"
19:30 Orkestra Elektrotxaranga

**22:30** Memoriaren Gaua: Perlak + Gose

**APIRILAK 24, DOMEKA**

**10:00** Gudari eta gonbidatuen hamarretakoa

**10:30** Gudari eta milizianoen igoera

**10:40** Lore eskaintza Salbadorko monolitoan

**11:30** Errekreazioa Intxortako Atean

**12:00** Argazkiak atera eta lubakiak ikusteko aukera

**12:30** Martxa Elgetara

**13:00** Herriko plazan, Emakume Erresistente eta Errepresaliatuei omenaldia Ain_1 eta Gasteizko Abesbatza Errepublikanoak parte hartuko dute

**14:45** Bazkaria Elgetako Frontoian

**OHARRAK**

► Egun osoan memoria historiko taldeen material azoka izango da.

► Ikusgai izango da, baita ere, gudarien eta milizianoen gaineko argazki erakusketa, Mauro Saraviaren argazkiekin, kultura etxean.

### 'EGIAREN ITURRIA' JASOKO DUTENAK

**BIZIRIK DAUDENAK**

**Isidora Casaban:** 99 urte. Sestao. Errepresaliatua

**Teresa Nadal:** 98 urte. Tolosa (Okzitania). Erizaina Bilbon gerra garaian.

**Pilar Gartziandia:** 97 urte. Tolosa. Tolosa eta Ondarreta kartzelatan egondakoa.

**Angeles Florez:** 97 urte. Gijon. Saturraranen espetxeratua.

**Teresa Harina:** 95 urte. Gasteiz. Zornotzan espetxeratua.

**Felisa Garai:** 94 urte. Elgeta. Errepresaliatua.

**Trini Ruiz de Alegria:** 92 urte. Arrasate. Errepresaliatua eta erbestean egondakoa.

**Bittori Barcena:** 92 urte. Hernani. Preso politikoekin elkartasun sareko kidea.

**Maria Dolores Anasagasti:** 88 urte. Bilbo. Erbesteratua.

**Maria Luisa Bilbao:** 88 urte. Gamiz. Gerran zauritua.

**Kontxi Urkijo:** 85 urte. Errenteria. Erbestean egondakoa.

**Mirentxu eta Mikele Agirre:** 80 urte. Lizarra. Errepresaliatuak.

**Maria Luisa Urra:** 80 urte. Donostia. Errepresaliatua.

**Tere Ponton:** 80 urte. Gasteiz. Martxoak 3 Emakume Taldekoa.

**Mamen Moreno:** 74 urte. Bilbo. Sindikalista. Kartzelatua eta lanetik kaleratua.

**Begoña Gorospe:** 74 urte. Hernani. Feminista.

**Arantza Amezaga:** 73 urte. Iruñea. Idazlea. Erbestean jaioa.

**Miren Clemente:** 72 urte. Hernani. Lanetik kaleratua.

**Arantxa Arruti:** 68 urte. Zarautz. 1970ean Burgosen epaitua. Torturatua. Feminista.

**Arantza Zabalegi:** 68 urte. Zarautz. Gerrako alargunen laguntzailea.

**Agurtzane Juanena:** 59 urte. Legazpi. 1975ean torturatua.

**Eli Nosellas:** 56 urte. Ibarra. 1975ean torturatua.

**HILDAKO EMAKUMEAK***

**Isabel Beritxinaga:** Elgeta. Milizianoa. Bonbardaketan hildakoa.

**Clara Moran:** Gallarta. Milizianoa. Kanpanzarko erresistentzian hildakoa.

**Kaxilda Hernaez:** Donostia. Milizianoa. Feminista. Erbesteratua.

**Esther Zilbergberg *Estoucha*:** Belgika. Brigadista. Frontean zauritua. Idazlea.

**Amaia Tello:** Madril. Milizianoa. Bilbon, militante klandestinoa.

**Emeteri Aranburuzabala:** Eskoriatza. Gerran fusilatua.

**Cecilia G. Guillarte:** Tolosa. Gerra erreportaria. Erbesteratua. Idazlea.

**Avelina Marcos:** Bilbo. Larrinagan kartzelatua. Erbesteratua.

**Edurne Galartza:** Oñati. Maistra depuratua. Kartzelatua eta desterratua.

**Normi Mentxaka:** Santurtzi. Parapolizialek hildakoa 1976an.

**Norberta Ezpeleta:** Bergara. Ondarretan kartzelatua. Kaskamotz utzi zuten.

**Amada Morentin; Asuncion Bergara eta Felipa Pueyo:** Lodosa. Kolpe militarraren ondoren fusilatutakoak.

**Maria eta Eusebia Etxarri, Miranda de Arga:** Iruñeko kartzelan egondakoak.

**Isabel Zubia:** Bilbo. Errepresaliatua.

**Benita Asas:** Donostia. Maistra depuratua. Idazlea. Feminista. Sufragista.

*Euren izenean senideren batek jasoko du artelana.



# 10.000 sinadurara iristeko asmoz lanean jarraituko du Erain Debagoienak

## Erabakitzeko eskubidearen eta ekainaren 12ko galdeketaren alde mugitzera gonbidatu dituzte herritarrak ekimeneko ordezkariek

X.GOROSTIDI / M.ALTUBE | ARRASATE

Erain Debagoienak beharrezkotzat jota zituen 6.500 sinadurak dagoeneko lortu ditu. Hala iragarri zuten martitzenean Arrasateko Monterron parkean egindako agerraldian. Debagoieneko herri guztietatik etorritako 70en bat ordezkari elkartu ziren eta adierazi zuten orain 10.000 herritarren atxikimendua lortzea jarri dutela helburu.



Arrasateko Monterron parkean elkartutako Debagoieneko 70en bat ordezkari. | XABI GOROSTIDI

**Sinatzera animatu**

Ekainaren 12ko galdeketa oso garrantzitsutzat jo zuten: "Herri honek bere legeak idazteko eta etorkizuna gauzatzeko gaitasuna eskuratzeko balioko du". Horretarako sinadura guztiak direla ezinbestekoak jakinarazi zuten: "Zure sinadura beharrezkoa da erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen den bide honetan. Debagoieneko 6.500 herritarrek sinatu dute datorren ekainaren 12an legearen aurrean demokrazia jartzea zilegi izan dadin. Oraindik ez baduzu sinatu, pentsa ezazu horretan". Eta gaineratu zuten ezin dela inor geratu erabakitzeko eskubidetik kanpo: "Demokrazia eta parte-hartzea bide bazterrean inor utzi gabe. Etorkizuna zure eskuetan dago".

**Euskal estatu independentea**

Ekainaren 12an honako galdera honi erantzun ahal izango diote 16 urtetik gorako debagoiendarrek: "Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?". Erain Debagoienak behin eta berriz gogorarazi du azken hilabeteotan "guztien bozka" dela beharrezkoa "etorkizuna elkarrekin eta demokratikoki erabakitzeko". Bien bitartean, sinadurak jasotzen jarraituko dute herriz herri.

# Hamabi errefuxiatu hartzeko gertu Arrasate

M.A. | ARETXABALETA

Euskadiko Gurutze Gorriak jakinarazi du 118 errefuxiatu hartzeko gertatze lanetan dabiltzala. Horiek datozen bi asteetan iritsiko direlakoan daude; izan ere, adierazi dutenez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak "presa" erakutsi du.

Gipuzkoan 36 laguni egingo liekete harrera. Horretarako, Donostian 24 plaza egokitzen dabiltza Udalak Gurutze Gorriari utzitako lau etxebizitzatan. Eta beste hamabi lagunendako lekua egokitzea espero dute Arrasaten. Maria Ubarretxena alkateak jakinarazi du informazioa jasotzeko zain daudela eta oraindik ez dakitela askorik.

Bestalde, Bizkaian dagoeneko 24 lagun daude eta beste 26 plaza egokitzea gurako lukete. Araban hamalau plazetatik hamaika beteta dituztela jakinarazi dute Gurutze Gorriko kideek, eta laster beste hamazortzi izatea espero dute. Jaurlaritzak, berriz, adierazi du ez dakiela zenbat eta noiz iritsiko diren.

# Energia eredu berrien gaineko jardunaldiak Goinenerren eskutik

O.ELORZA / M.ALTUBE | ARRASATE

Energiaren gaineko jardunaldiak egingo ditu Goienerrek, Elkarhezitzenekin batera antolatuta. Goiener egitasmoa bera –energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatibazer den eta energia eredu berrien gaineko hausnarketa egiteko jardunaldiak izango dira. *Debagoiena piztu! Debagoiena on!* lelopean, hitzaldiak, tailerrak eta mahai-inguruak egingo dituzte apirilaren 25etik 29ra Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Antzuolan. Ekitaldietara argiaren faktura eramateko gomendioa egin dute antolatzaileek. (Egitaraua agendan, 38. orrian)

Goienerreko ordezkari batek eta kooperatiba horretako hainbat boluntariok aurkeztu zituzten jardunaldiok. Erika Martinez ordezkariak azaldu zuen duela hiruzpalau urte sortutako eta irabazi asmorik gabeko egitasmoa dela Goiener eta egun 4.500 bazkide dituela Euskal Herrian. Horien artean erakundeak, komertzioak zein norbanakoak daude, Debagoienean 150 inguru.

Jardunaldien helburua jasangarritasun energetikoa bultzatzea da, eta hain zuzen energia berriztagarriak erabiliz hainbat herritan martxan dauden proiektuen berri emango dute; adibidez, Lepazpin eta Oñatin daudenak.



Goienerreko kideak jardunaldien berri ematen. | OIHANA ELORTZA

# Ikerketa, garapen eta berrikuntza formulak kultura behar duela esan du Ibarretxek

## Globalizazioaren aurrean erantzun lokalak duen garrantzia azpimarratu du

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak –egun Agirre Lehendakaria zentroko zuzendari eta ikerlaria– gizarte globalari aurre egiteko "modu bakarra" erantzun lokala ematea dela esan zuen martitzenean, Aretxabaletan egindako hitzaldian. Herri bakoitzaren "identitatea" dela homogeneizazioaren mehatxupean dagoen munduari erantzuna azaldu zien elkartutakoei.


Juan Jose Ibarretxe, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. | MIRARI ALTUBE

Gakoa zein den argi utzi zien, kultura: "Ikerketa, garapen eta berrikuntza formulak ez du balio kulturaren *k* ez baldin badu". Kulturen arteko elkarbizitzaren alde egin zuen, beti norberarena denari eutsita. Horretarako, iraganean jarri zuen begirada: "Nondik datorren ez dakienak ez dakielako nora doan". Eta adibidetzat kontzertu ekonomikoa jarri zuen, esanaz, ez dela "oparia izan", urte askotako lanaren ostean "politikoki irabazitakoa" baizik.

**Etorkizunera begira**

Iragana garrantzitsutzat jo zuen, nora joan jakiteko, etorkizunera begira jartzeko, eta hor identitatearen garrantzia azpimarratu zuen: "Identitateari buruz hitz egitea da etorkizunari buruz hitz egitea". "Euskal Herrian bizi diren guztiek" erabaki beharko luketela nora joan gura duten adierazi zuen, eta behin eta berriz, azpimarratu "euskaldunen eskuetan, eta ez beste inorenean" dagoela aurrera egitea. Bukatzeko, elkarrekin abestu zuten Benito Lertxundiren *Zenbat gera* kantua, eta ondoren herritarren galderak erantzun zituen.

**ESANAK**

"Gizarte globalari aurre egiteko erantzun lokala eman behar da"

"Identitateari buruz hitz egitea da etorkizunari buruz hitz egitea"

JUAN JOSE IBARRETXE | LEHENDAKARI OHIA

# Gipuzkoako zaborra Epelera ekarriko duten beldur dira plataformako kideak

'Debagoiena Eredu. Zabortegirik ez!'-ek dio onartuz gero sinadurak batuko dituztela proiektuaren aurka

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

*Debagoiena Eredu. Zabortegirik ez!* plataformako kideak kezkatuta daude Gipuzkoako zaborra Epelera ekarriko dutelakoan. Hala adierazi dute prentsa ohar bidez, eta martxoan Debagoieneko Mankomunitateko presidenteari egindako hiru galderek izan dituzten erantzunekin ez dira konforme agertu.

**Hiru galdera**

Gipuzkoako zaborrak Epelera ekartzearen gaia Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak batzarren batean landu duen galdetu zioten, eta Unai Elkoro presidenteak erantzun die ezetz: "Kantabriara eramateko hitzarmen bat lantzeko baimena bakarrik eman da".

Bigarrenik, galdetu zioten mankomunitateak jaso duen GHKtik edo beste instituzioaren batetik Epelera Gipuzkoako zabor nahasia ekartzeko eskaerarik, eta Elkororen erantzuna honako hau izan da: "GHK-ko zuzendari nagusiak planteatu digu Epelera zaborrak ekartzearen aukera aztertzeko, ez digute beste eskakizunik luzatu".

Eta hirugarrenik, mankomunitateko lehendakariari gaiaren gainean duen jarrera argitzeko eskatu zioten *Debagoiena Eredu. Zabortegirik ez!* plataformako kideek. Hark erantzun zien eskaera jasoz gero, "sakonean aztertu" beharko luketela: "Edozein erabaki hartzeko beharrezkoa litzateke bai teknikoki zein ekonomikoki bideragarritasuna aztertzea. Datu zehatzik gabe ezinezkoa zait erabakia hartzea. Edonola ere, lurraldean badugu Epele baino kokapen aproposagoa, oraindaino zaborrak jasotzen dabilena, baina politikoki errazena ixtea da, zabortegirik inork ez du nahi, baina beste aukerarik ezean ardurагabea ere bai".

**Sinadurak proiektuaren aurka**

Plataformako kideak kezkatuta agertu dira hirugarren galderaren erantzunarekin: "Gure susmoa da mankomunitateak baiezkoa emango diola GHKri eta Gipuzkoa osoko zabor nahasia Epelera ekarriko dutela". Eta berretsi dute ez dutela halako zabortegirik nahi Epelen: "Hondakinak nola bildu Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan egin den bezala, herritarrei galdetuko diezue zabortegia nahi duten edo ez?".

Zabortegiari baiezkoa emanez gero proiektu horren aurkako sinadurak jasotzen hasiko direla iragarri dute, baita mobilizazioak egiten ere: " Herritarren iritziaren aurka ez duzue Gipuzkoa osoko zaborra ekarriko Epelera, ezta?".

# Bikoiztu egin du Garagartzako produkzioa Fagor CNA Group taldeak

Hobekuntzak eta berrikuntzak egin ditu labe gama berrietan, eta aurten aurkeztuko dituzte

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Fagor CNA Groupek 2014 bukaeran ekin zion Garagartzan labeak eta plakak ekoizteari. Orain, CNA taldearen markekin zein bezeroen markekin egindako labe-gama guztien ekoizpena bikoiztea lortu duela jakinarazi du enpresak.

**Hobekuntzak gama berrietan**

Labeen produkzioa pixkanaka handitu da azken bi urteetan: "Fagorrentzat garrantzitsuenetarikoa den produktu horren eskaera handitu egin da, enpresak ekoizle gisa nazioartean duen entzuteagatik eta mundu mailan labeetan aditua izateagatik", taldeak esan duenez. Horiek horrela, Fagor CNA Group taldeak, iazko datuekin alderatuta, labeen produkzioa bikoiztea lortu du Garagartzan.

Gainera, aurten, hobekuntzak eta berrikuntzak egin ditu labe gama berrietan eta horiek 2016an zehar aurkeztuko dituzte. Berrikuntza nagusiak zenbait hobekuntzatan oinarritu dira, hala nola produktuen eraginkortasunean, aurrezpen energetikoan, erabilerraztasunean eta produktuen garbiketan. Hala, erabiltzaileentzat kontrol-panel praktikoagoak eta intuitiboagoak diseinatu ditu, janaria prestatzea sinpleagoa, errazagoa eta seguruagoa izan dadin.

Era berean, 2017ko lehen hiruhilekoan aurkeztuko diren berrikuntzetan ere lanean dihardute. Berrikuntza horiek Fagorren izenpean kaleratuko dira eta etxean, produktuen erabilerraztasuna, eraginkortasuna eta sukaldaritza profesionala lehenetsiko dituzte.

**Emaitza onak**

Fagor CNAk adierazi du enpresako Industria Planean "jasotakoa betetzen" ari direla; salmentak oso emaitza onak ditu, bereziki egosketa produktuen alorrean, non Fagor beti izan den merkatu-buru. Gaur egun, Fagorrek merkatu-kuota garrantzitsua du eta merkatuan duen presentzia areagotzea espero da.

# Almen ikastetxearen 50. urteurrena ospatzen hasteko gertu daude

**M.A.** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Almen ikastetxeak (gaur egun Arizmendi ikastolako Almen gunea) 50 urte beteko ditu. Mende erdia pasatu da Aretxabaletako eta Eskoriatzako herritarrek Dorletako Amaren ikastetxea sortu zutenetik, eta hori gogoan izan eta ospatuko dute datozen asteotan.

*Ahalmen* da urteurrenerako hautatu duten leloa. Izan ere, diote mende erdiko ospakizunek 50 urteotako "ahalmen pertsonal zein kolektiboen erakusgarri eta bilgune" izan nahi dutela: "Iraganetik gaur egunerako eta gaur egunetik etorkizunerako eraldaketarako ahalmen". Eta ahalmen horiek guztiak erakusteko hainbat ekimen prestatu dituzte.

**Erakusketa herriz herri**

50 urteotako ibilbidea jaso duen erakusketa jarriko dute Leintz aldeko lau herrietan, Leintz Gatzagan hasita; apirilaren 28tik 30era izango da hango kultur etxean.

Argazkien eta bideoen bilduma egiten ere badabiltza, DVDan jasotzeko, eta Almenetik igarotako eta egungo protagonista batzuekin ikus-entzunezko sail bat egiteko asmoa ere badute; baita kanta eta bideoklipa ekoizteko ere. Festa handia, ostera, ekainaren 4an egingo dute.



Urteurreneko ekitaldiak antolatzen hainbat lantalde. | BEÑAT ZAMALLOA



Artzainen Egunaren antolatzaileak Eskoriatzako udaletxe aurrean. | I. BELOKI

# Debagoieneko IV. Artzainen Eguna apirilaren 30ean da Eskoriatzan

**I.BELOKI / M.ALTUBE** | ESKORIATZA

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak eta Debagoieneko Pastoriek Taldeak antolatuta Eskoriatzako Udalarekin batera, laugarrenez egingo dute Debagoieneko Artzainen Eguna. Apirilaren 30ean izango da, Eskoriatzan, eta ardiak eta artzainen mundua ardatz hartuta ekintza ugari izango direla iragarri zuten eguaztenean egindako agerraldian.

**Artaldea herrian barrena**

Goiz osoko egitaraua gertatu dute hilaren 30erako. Debagoieneko Pastoriek taldekoak, txakolin ekoizleak eta artisauak izango dira herriko plazan, eta 10:00etatik aurrera Euskal Labeleko bildotsa burruntzian izango da eguerdi partean pintxoetan banatzeko. Gatzatu tailerra ere egingo dute orduan. 11:00etan, artaldea igaroko da herrigunetik, eta 12:00etan, Idiazabal izendapeneko gazten dastatzea izango da dastatzaile batekin. Umeendako jolasak ere iragarri dituzte; plazan ardiak egongo dira, eta bertako arrazakoak bereizi beharko dituzte.

Bestalde, *Debagoieneko Pastoriek* izenarekin antolatutako argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira plazan goiz osoan, eta eguerdi partean sariak banatuko dituzte.

# Meza domekan Donostian, Arizmendiarrieta gogoan

**M.A.** | ARRASATE

On Jose Maria Arizmendiarrieta ohoragarri izendatu izanagatik esker oneko meza esango dute domekan, apirilak 24, Donostiako Artzain Onaren katedralean, 18:00etan.

Angelo Amato kardinalak, Vatikanoko Santuen Gaietarako ordezkariak, zuzenduko du eukaristia. Eta harekin batera izango dira Bilboko, Gasteizko, Donostiako eta Iruñeko gotzainak; baita Donostiako elizbarrutiko bi gotzain emerituak ere, Joan Maria Uriarte eta Jose Maria Setien. Ospakizunean, Arrasateko parrokiko abesbatzak jardungo du.

**Aita santuak izendatua**

2015eko apirilaren 22an bete ziren 100 urte Arizmendiarrieta apaiz ekintzailea jaio zela. Teologoen batzordeak haren bizitza eta idazkiak sakon aztertu ostean, iaz abenduan onartu zuen Frantzisko aita santuak ohoragarri izendatzea. Hala, kanonizatze bidean egin beharreko lehen etapa bukatutzat eman dute.

# Ezin izango da alkoholik edan kirol instalazioetan, ezta tabakorik erre ere

## Adikzioen Lege berriak aldaketa sakonak ezartzen ditu, baina udal eta kirol erakundeek zalantzak dituzte araudi berria aplikatzeko orduan

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

Eusko Legebiltzarrak Adikzio eta Drogamenpekotasun Lege berria onartu zuen apirilaren 7an. Jada indarrean dagoen araudi berriak alkoholaren, tabakoaren eta kalamuaren kontsumoak erregulatzen ditu, eta neurriak ezartzen ditu apustuekiko edo bideo jokoekiko menpekotasuna txikitzeko ere.

Alkoholari dagokionez, ezin izango da alkoholdun edaririk saldu kirol instalazioetako tabernetan. Beraz, frontoietan edo futbol zelaietan orain arte edan izan diren alkoholdun edariak debekatuta egongo dira hemendik aurrera. Neurri horrek eragin zuzena izan du kirolguneetako tabernen bideragarritasunean. Bergarako Frontoi tabernako Fernando Rinconek hauxe adierazi du: "Nire ustez, lege hau aplikatzean, kirol lekuetan dauden ostalarien aurka egiten da. Era honetako negozioak partiduei eta zaleei esker bizi gara, eta ez da justua gutxi batzuen jarrera okerragatik gainontzeko guztiak kaltetzea".


Kirol ikuskizunetan ohikoak izan diren alkoholdun edariak debekatuta egongo dira hemendik aurrera. | IMANOL SORIANO

Hala ere, araudi berriaren aplikazioari buruzko zalantza ugari dituzte udalek eta kirol elkarteek. Ez da argi azaltzen alkoholdun edariak saltzeko debekua uneoro edo kirol ikuskizunak dauden uneetan aplikatu behar den. "Legearen bi interpretazio egin daitezke. Lehena da ezin daitekeela alkoholik saldu kirol lehiaketak dauden bitartean. Bestea, aldiz, ezin izango dela sekula alkoholik saldu kirol instalazioetan. Alde nabaria dago bi interpretazioen artean, eta zalantza hori argitu nahian gabiltza", adierazi du Iñaki Ugarteburuk, Bergarako Udaleko Kirol teknikariak. Irizpide hori argitu bitartean "neurri konkreturik" ez dutela hartuko gaineratu du Iñaki Ugarteburuk.

### Tabakoaren kontsumoa

Tabakoaren kontsumoari dagokionez, berritasunak dakartza lege berriak. Ezin izango da tabakorik erre kirol instalazio guztietan. Orain arte aire libreko eraikinetan ez da galarazita egon, baina hemendik aurrera ez da erretzea onartuko. Horren harira, araua hausten dutenek 30 eta 600 euro arteko isunak jasoko dituzte eta arau-haustea galarazi ez duen elkarteak 600 eta 10.000 euro artekoak.

Kirol elkarteek langile gehiago beharko dituzte kontrol lanak egiteko eta isunak saihesteko. Mondra futbol taldeko ordezkari Jaime Bengoak hauxe adierazi du: "Udalarekin harremanetan gaude jakiteko nor egingo den erantzule eta nola kontrola daitekeen ikus-entzuleek ez erretzea partiduetan. Izan ere, baliabideak beharko ditu horrek ere. Guk legeak dioena egin beharko dugu, baina oraindik ez dakigu zehazki zein neurri hartu beharko diren".

### Elkarte gastronomikoak

Elkarte gastronomikoen kasuan, bazkideen esku uzten du erretzea galarazteko erabakia. Lege proiektuan, tabakoaren kontsumoa debekatzea aurreikusten zen, baina, azkenean, ez da horren alde egin. Debekatuta egongo den momentu bakarra elkartean adingabekoak daudenean izango da.

Kalamu elkarteetan ere izango du eragina araudi berriak. Horren arabera, legez onartuta geratuko dira era horretako elkarteak. Oinarrizko arau batzuk bete beharko dituzte: irabazi asmorik gabekoak izatea, kontsumo propiorako ekoiztea eta esklusiboki adin nagusientzako izatea. Hala ere, era horretako elkarteen gaineko erregulazioa aurrerago onartuko dela aipatzen du legeak.

### Publizitatea mugatuta

Legearen helburu nagusia bizimodu osasungarriak sustatzea da, batez ere, gazteen artean. Hori lortzeko, tabakoaren eta alkoholaren publizitatea murrizten du araudi berriak. Telebistan eta irratian debekatuta egongo da horien publizitatea 08:00etatik 22:00etara. Prentsan, azalean eta kirol ataletan, ezingo da horien publizitaterik egin, ezta ikastetxeetatik 100 metro baino gertuago dauden espazioetan ere.

### Isunen zenbatekoak

**ARAU-HAUSTE ARINAK** 30 eta 600 euro artean kirol instalaziotan erre edo edaten dutenentzat.

**ARAU-HAUSTE LARRIAK** 600 eta 10.000 euro artean euren instalaziotan erretzea edo alkohola saltzea ahalbidetzen dutenentzat.

**ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK** 10.000 eta 600.000 euro artean tabako edo alkoholdun edarien publizitatearekin lotutako arau-hausteentzat.

### Biharko manifestaziora joateko deia, industriaren defentsan

Debagoieneko LABek dei egin du bihar, zapatua, Bilbon industriaren alde egingo duten manifestazioan parte hartzeko. LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek batera antolatu dute manifestazioa. 12:00etan irtengo da, Jesusen Bihotzetik, honako lelo honekin: *Gure industriaren defentsan, por una política industrial real.*

Besteak beste, LAB sindikatuak salatu du ez duela balio "negar egiteak. Enpresa itxieren aurrean ekimen politiko eta instituzional ezak" eurak ere horren "erantzule" egiten dituela.

### Errefuxiatuen "egoera larria" salatuko dute Arrasaten

Datorren apirilaren 25ean, astelehenean, "errefuxiatuen egoera larriaren aurrean Europako Batasunak duen jarrera" salatu nahi du Arrasateko EH Bilduk. Eta horretarako, kale agerraldia deitu dute. 19:30ean elkartuko dira Herriko Plazan ordu erdiz, honako leloa honekin: *Vergüenza, beste Europa bat posible da*. Salaketa bera egin gura duten guztiak gonbidatu dituzte protestan parte hartzera.

### Arantxa izena dutenen IX. topaketarako izen-ematea zabalik

Arantxa izena, bere bariante guztiekin, daramaten emakumeak Arantzazun elkartuko dira datorren maiatzaren 1ean, domeka, Arantxen IX. topaketan. Bi urtetik behin ospatzen duten topaketa da, eta goizetik bazkalostera arteko ekitaldiak antolatu dituzte –izena apirilaren 25a aurretik eman behar da–. "Ilusio handiz egin ohi da batzar hau, elkar ikusi, ezagutu eta harremanak sendotzeko. Ez da izena bakarrik elkarrengana biltzen dituena, baizik izenaren azpian gordetzen den Arantzazuko Amarekiko zaletasuna eta maitasuna", azpimarratu dute, besteak beste, antolatzaileek.



## ZABALIK



**XABIER ARREGI**
goiena.eus/komunitatea/

# Ni trena hartzera noa; eta zu?

Abian da preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldarria eta irudia izan nahi duen Giza Eskubideen Trena. Herriz herri bidaiatuz, bertatik bertara bagoi berriekin luzatuz, martxa eta itxura polita hartzen doa trena. Bidaiariak ere, pozik, itxaropentsu, gogotsu, hamarkada luzeetan zehar biolentzia eta konfrontazio desberdinen lekuko izan eta gero, oraindik orain, indarkeria egoera horrek eragindako saminak eta sufrimenduak iraun arren.

Bakearen eta konponbidearen izenean, gure herrian existitzen den minari min gehiago gehitzea helburu duen salbuespenezko legedia lehenbailehen amaitu beharra dago, eta, horretarako, edozein herritarren parte hartzea ezinbestekoa da, beharrezkoa. Nola hurbildu, baina, herritar oro, urrunketa eta dispertsio politikaren behin betiko amaieraren aldarrikapen eta ekimenetara? Zein da bidea?

**Enpatizatzen dut herri honetan sufrimendua pairatu dutenekin**

Ez dago bide bakarra, baina herri honetan bakea lortu nahi badugu, ezinbestean, egoerarekin identifikatzera garamatzan bidea hartzea da, nire ustez, aproposena. Bizi dugun egoerarekin enpatizatzera eramango gaituen bidea. Izan ere, norbanakoaren biziraupena ei da gizakion izate edo existentziaren oinarria, betiere, norbanakoa identifikatzen den gauza- edota egoera-multzoen biziraupenarekin loturikoa.

Ni neu identifikatzen naiz gaixotasun larriak dituzten presoekin, salbuespeneko legediaren eraginez preso jarraitzen duten horiekin, bizi osorako zigorrak jasotzen dituztenekin, eta inoiz kondenatuak izan ez diren baina legediaren indarra pairatzen duten preso horien senide zein lagunekin ere. Enpatizatzen dut baita hamarkadetan herri honetan izandako biolentziaren ondorioz sufrimendua pairatu duten pertsona ororekin ere. Eta identifikatzen naiz baita etorkizun hobe eta justuago baten alde lan egin nahi duen ororekin. Horregatik guztiagatik hartuko dut nik Giza Eskubideen Trena; eta zuk?

## USTEAK USTE

**LARRAITZ ZEBERIO** | lzeberio@goiena.eus

# Lanpostua zurea da

Urtea luze doa. Hamaika ate jo ditu, dozenaka curriculum banatu ditu eta elkarrizketak ere egin ditu bat edo beste, baina badirudi ez dagoela lanposturik berarendako. Astean egin du azken elkarrizketa. Esan zioten jasoko zuela dei bat, baina ez daki hitza beteko duten. Gehienetan ez dute horrelako lanik hartzen. Baina bai, jaso du. Merkatalgune handi horretako tindategitik hots egin diote eta oso urduri jarri da. "Nahi baduzu lanpostua zurea da. Lan jarduna astelehenetik zapatura da. Bederatzi ordu eguneko eta ordu bat bazkaltzeko. Aurrez esaten dizut kotizatu lau ordu egingo dituzula. Soldata 700 euro da". Isilunea. Ez du hitzik. Negargura du.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Presioak presio, arbitro homosexualak eraso homofoboa salatu du

**Mikel Garcia Idiakez**
http://goo.gl/XDHE1k

"Buztanjale bat zara eta ipurtzuloa apurtu diezazutela da gustatzen zaizuna, marikoia. Nazkatu arte jango dituzu zakilak. Kanpoan zure zain egongo naiz".

Halakoak jasan zituen, kadete mailako futbol partidu batean, Jesús Tomillero arbitro andaluziarrak.

Publikoki bere homosexualitatea onartu duen Espainiako Estatuko lehen arbitroa da bera eta gertatutakoa ezkutuan mantentzeko presioak jasan dituen arren, erasoa salatzea erabaki du.

21 urteko arbitro honen erabaki batekin ados ez, eta futbol taldeetako baten material arduradunak bota zizkion aipaturikoak.

Jokalari batzuen partetik ere entzun zituen gisakoak, etengabe.

"Zelaiko delegatuari esan nion poliziari abisatzeko, baina bazterrak ez nahasteko erantzun zidan. Okerrena da 15-16 urteko gazteak hezten ari direla. Horrek ematen dit min gehien. Erasotzailearen semea partidua jokatzen ari zen, zein balio ari zaizkio erakusten?".

"Nik jada ez dut beldurrik. Errespetatu nazatela baino ez dut nahi". Jazotakoa publiko ez egiteko presioak izan ditu eta hedabideetan agertzen jarraitzen badu zigortuko dutela ere esan dio Andaluziako Futbol Federazioak.

Baina jarrera hauek inpunitatean utzi eta isilpean mantendu ordez, komisarian salaketa jartzea eta bide batez futbol kategoria guztietan ematen den homofobia bistaratzea erabaki du.

"Gehiagotan gertatu zait, baina beldurragatik ez dut salaketarik jarri. Aski da. Ez dut gehiago halakorik onartuko".

Tomilleroren hitzetan, "gay asko dago ezkutuan Espainiako futbolean, baita Lehenengo eta Bigarren mailetan ere. Diskriminatuak izateko beldur dira eta ulertu dezaket. Baina nik jada ez dut beldurrik. Errespetatu nazatela baino ez dut nahi".

Erasotzaileak ezingo du bederatzi partidutan jardun eta 30 euro ordaindu beharko ditu.

Gainera, arbitroak jarritako salaketa oinarri hartuta, Andaluziako Arco Iris Federazioak erasotzailearen aurkako kereila aurkeztu du gorroto delituez arduratzen den fiskalaren aurrean.

Babes mezu andana: herritarrengandik babes mezu asko jaso dituelako pozik da Tomillero, ausart jokatzeagatik ere zoriondu dute.

Bere herriko udalaren eta Andaluziako Juntaren aldetik ere sostengua adierazi diote, "ideologien gainetik".

LGBT komunitatearen eskubideak aldarri dituen Nenas Cadista futbol peñak berriz, omenaldia antolatu zion pasa den apirilaren 10ean Cadiz futbol taldearen estadioan.

Futbolariek homofobiaren aurkako pankarta atera zuten joko-zelaira eta ikusleek ortzadarraren koloreko globoak astindu zituzten.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.857 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## Arrasateko EH Bildu eta errepublika

**Eneko Barberena**
(EH Bilduko zinegotzia)
Arrasate

Hilaren 14an eskegita agertu zen errepublikako bandera Arrasateko udaletxeko mastan. Besteak beste, azken plenoan onartu genuen mozioa tarteko.

EH Bilduren errepublika euskal errepublika da. Gure banderak ikurrina eta nafar armarria dira. Badu inork zalantzarik hor?

Idatzi zuen Joseba Sarrionandiak ipuin eder bat banderen inguruan. Kontatzen du nola nerabezaroan deskubritu zuten inposatu zieten bandera espainiarra guardia zibilena zela, alkateena, apaizena eta farmazeutikoena. Ezkutuan bazirela bandera beltz anarkistak, banda moredun bandera errepublikanoak, bandera gorriak eta ikurrinak. Eta eurak beltz, gorri, more eta abertzale sentitzen zirela. Horregatik, inork agindu gabe, ondorioztatu zuten bandera espainiarrekin egin zitekeen onena erretzea zela.

Gu ere bagara beltz, more, gorri eta abertzale. Gu gara Joxepa Arregi esaten zigunean bandera errepublikanoaren alde borrokatu zela bere senarra, gu gara Monzon, gu gara Intxortako miliziak metrailetadun emakume belgikar eta guzti, gu gara IRAko milizianoak errepublikaren defentsan, ANVko gudariak, afroamerikarrez osatutako Lincoln brigada internazionalista, Kandido Saseta, meatzaldeko langileak, Felix Likiniano, Kasilda Hernaez, Juan Joxe Etxabe eta Txomin Iturbe eta 1934ko matxinoak. Noski bagarena!

Udalbatzan EAJk leporatu zigun 1936an herriko zinegotzi zirenen aldeko mozioa onartzea. Euren memoria berreskuratu behar dugu eta errepublikaren balio sozial eta demokratikoak gure egiten ditugu boto unibertsalaren kasuan, esaterako. Aldiz, ezin dugu bat egin errepublikak Franco bidali izanarekin asturiar meatzariak erreprimitzera, ezta zuten ikuspegi zentralistarekin edo hainbat alderdi edo pertsonak Euskal Herriarekiko izan zuten jarrerarekin.

Baina ez dugu EAJren lezio abertzalerik onartuko. EAJ baita autonomismoa saldu eta defendatu duena, Aznar babestu zuena eta gure urrezko kaiolaren sostengu sutsuena, independentziaz soilik Alderdi Egunean oroitzen dena. Nire birraitona sozialistak, harrapa ezak, Oskar, Joxe *Artzubi*-k zioen moduan, "eltxo gizonak" dira jeltzaleak, zarataz harago deus gutxi egin dutenak herri honen askapen errealaren alde.

Independentziarako euskal bidea mahai gainean dugu. Horri obatu behar diogu lehenbailehen, Espainia eta Frantzia gure hondamena direlako. Bitartean elkarlana ezkertiarrekin eta memoria 1936ko kolpe faxistaren biktimekin, horrek jarriko baikaitu gertuago bilatzen dugun helburutik.

## Eta ukabilean... gure historia

**Julia Monge**
(Intxorta 1937 kultur elkartea)
Arrasate

Datorren igandean, apirilak 24, gogoan izango dugu, beste behin ere, Intxortan faxismoaren aurka egin zen erresistentzia handia.

Emakumeen borroka batez ere beste fronte batzuetatik garatu bazen ere, izan ziren milizian borrokatu zirenak ere: Clara Moran, Isabel Birichinaga (batailetan hilik), Belgikatik eta beste hainbat lekutatik etorritako brigadistak, Intxortan borrokatu ziren Molaren tropak garaitzen lagunduz. Kaxilda Hernaez, Esther Zilberbeg *Estoucha* eta beste asko, aldiz, Euskal Herriko beste leku batzuetan borrokatu ziren.

2015eko apirilaren 19an gudariei eta gerratik bizirik ateratako milizianoei eginiko errekonozimendu hunkigarriaren ondoren, aurten, emakume errepresaliatu eta erresistenteak omenduko ditugu Elgetan.

Emakumeen errealitatea esparru ezberdinetan zein izan zen irudikatu nahi dugu: milizianoak, laguntza zerbitzuetan aritu zirenak, erretagoardian erizain lanetan aritu zirenak, lubakiak eraikitzen lan egin zutenak, espetxeratuak, fusilatuak, frontean edota bonbardaketetan hildakoak, zaurituak, erreportariak, erbesteratuak, deportatuak, kaskamotz utzi zituztenak, bortxatuak izan zirenak...

Gertakari haien lekuko izan zen kolektibo honez gainera, diktadura frankistaren aurka borrokatu ziren emakume guztiak omendu nahi ditugu hurrengo igandean Elgetan –lantegietan "lan bera soldata bera" aldarrikatzen zutenak, feminismoaren alde borrokatu zirenak, martxoaren 3a, torturatuak izan zirenak...–. Gure helburua Intxortak beste errealitate hau aldarrikatzea da, emakume erresistenteen errealitatea, alegia. Askotan isilaraziak izan diren emakume hauek protagonista eta aldaketaren eragile gisa aurkeztu eta irudikatu nahi ditugu hainbat borrokaldiren ikurra den Intxortan. Euren testigantza, estrategia eta ekarpenak errekonozitu nahi ditugu.

Pilar, Teresa, Felisa, Trini, Amaia... milaka emakume ordezkatzen dituzten 40 emakume omenduko ditugu. Bizirik daudenak bertan izango dira, eta, hilik daudenen kasuan, euren senideren batek jasoko du Iñigo Arregik egindako *Egiaren iturria* eskultura.

Ekitaldia eguerdiko ordu batean izango da Elgetako plazan.

## Nola ez dut, bada, bozkatuko!

**Ihintza Orbegozo Igartua**
Bergara

Hain barneratua daukat erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena, hain agerikoa zait ekainaren 12an hautetsontzietara joateko beharra… nola ez dut, bada, bozkatuko!

*Jende zoriontsua herri libre batean,* zioen abestiak, eta hala irudikatzen dut gure bailara egun horretan: jendea zoriontsu, gure herriaren etorkizunerako zer nahi duen libreki erabakitzen. Geuk eta ez beste inork, geurerako eta geuretzat zer nahi dugun ozen esaten, nork bere hautua hautetsontzietara eramaten, norberak onena dela uste duena hautatzen. Guk geuk, ez beste inork. Norberaren etxeko erabakiak etxekoek hartu behar dituztelako, ez bizilagunek, ezta alboko atarikoek ere. Garrantzitsua baita hitza hartzea, iritzi ezberdinak plazaratzea, guztion artean onena dena erabakitzeko. Eta harro egongo naiz igande gauean emaitzak ikusi eta herri anitz batean bizi garela egiaztatzen dudanean, denetariko bozkak ikustean, baina, batez ere, emaitzak emaitza, geure herriaz arduratzen diren milaka pertsonak hitz egin duela ikustean; harro egotekoa benetan. Nola ez dut, bada, bozkatuko!

## Iñigo egon da gurekin

**Jokin Zubiria**
Arrasate

Ertzaintzaren omenaldia tarteko, apirilaren 16an gertu izan dugu Iñigo Arrasaten. Ospakizuna aitzakia, agertu dira Barne Saileko funtzionarioak, eta mandatariei men eginez ekin diote festari. Ze ospakizun izan duten! Ez zaie inguruko tabernetako poteorik ere falta izan. Ze ohore, arrasatearrok Iñigo ondoan izan dugula.

Arrasateko gobernuko zinegotziek ez dute aukera galdu gala guztiak jantzi eta ekitaldiari zegokion itxura eta planta emateko. Noizbait Gasteizko Parlamentuan diputatu izateko esperantzaz muxuak hemen, aurreskuak han, militar agurrak ondokoari, irribarre profilaktikoak kameraren aurrean...

Halere, zenbait arrasatearrok ere izan genuen Iñigo gurekin. Ez Urkullu abizenduna, baina bai bizkaitarra. Gureak ez du 80. urteaurrenik ospatuko. 2012ko apirilaren 9tik ez baititu 29 urteak gainditukoo. Gure udalak agurtzen dituen zaunkari autonomikoetako batek jaurtitako gomazko pilota batek erail zituen Basauriko gaztearen ametsak.

Iñigo, gogoan zaitugu.

## Oñatiko EAJren matraka

**Mikel Biain Berraondo**
(Oñatiko Udal Gobernu Taldearen izenean)
Oñati

Berriz ere badatorkigu matraka berarekin Oñatiko EAJ. "Planifikaziorik eza" eta "inprobisazioa", behin eta berriz, mila aldiz errepikatuz gezurra egia bihurtu nahi horretan, Alemaniako Goebbels propaganda-buruak esaten zuen hori praktikan jarriz. Propaganda alde batera utzi eta datuetara joanda:

-Udalaren zorpetze bizia: 2010ean, 6.366.107 euro; 2015ean, 2.055.000 euro (%66ko jaitsiera).

-Udalaren aurrezki garbia: 2010ean, 1.562.400 euro; 2015ean, 1.550.172 euro (mantendu).

Esan beharrik ez dago ze garrantzi duen krisi garai gordinenean ere aurrezki garbi positiboa mantentzeak, sarrerak gastuen gainetik izatea, alegia. Presio fiskala minimoetan mantenduta, gainera. Zorpetze maila minimo historikoetan dago gaur egun.

2011 aurretik hirigintza arloan udalak izaten zituen aparteko diru sarrerak aspaldi desagertu ziren. Egungo udal gobernuari eta aurreko agintaldikoari ohiko baliabideekin aurrera egitea egokitu zaigu. Adibide bat: 2008an bakarrik, hirigintzako lur salmenta eta aprobetxamenduengatik udalak 4.200.000 euro ingresatu zituen. 2011-2016 tartean, 1.448.224 euro izan dira guztira. Joan ziren EAJk amesten dituen "pelotazo" garaiak.

Kreditu aldaketarako espedienteak egin eta inprobisazioz jokatzea leporatzen digute. Datu konparaketa bat: 2007-2010: kreditu aldaketarako 37 espediente. 2012-2015: 33. Ohikoa izan den prozedura, alegia, ezohiko diru sarrera bat edo kreditu behar bat sortu izan denean. Baina alarma-mezua zabaltzeko edozerk balio du, antza.

Oñatiko EAJren udal taldeak erakutsi du, ekarpenik ez egiteaz gain, trabak jartzea duela helburu. Ez dugu inoz sumatu lankidetzarako prest agertu den oposizio arduratsurik. San Martin izan zen adibide garbiena: gobernuak urbanizazioa aurrera ateratzeko plangintza proposatu eta EAJk ezezko borobila, epaitegietara joateraino, gainera. Lotsagarria oposizioaren jarrera: egin ez eta egiten utzi ez. Zorionez, epai hark ere agerian utzi zituen EAJren irakurketa eta asmo okerrak. Gaizki dihardugula eta Oñatik beste kudeaketa bat behar duela diote, beraien laguntza horretarako eskainiz, gainera. Ironia hutsa.

Urtarrilaren 28an agintaldi osorako egitasmoak aurkeztu genituen, eta urtez urte hauek gauzatzeko konpromisoa agertu, orain arte bezala udaleren ekonomia eta finantza oreka zainduz. Guk lanean jarraituko dugu, beste batzuek matrakari eragiten dioten bitartean.

## DUELA 10 URTE

2006-04-07

### Goiru baserria bota zuten

Garagartzara bidean zegoen baserria Ugarte-Markaide familiarena zen. Garaia berrikuntza gunea eraikitze lanen barruan egin zuten eraistea.

Gaur egun Garaia berrikuntza guneko biribilgunea dagoen tokian kokatzen zen baserria. Guztira hiru baserri eraitsi zituzten berrikuntza gunea eraikitzeko. Aurretik Urra etxea eta Gautxori bota zituzten eta Goiru azkena izan zen .



Goiru baserria botatzeko lanak. | UBANE MADERA

2006-04-07

### Hileta zibilak egiteko leku eske

Aralar udal taldeak egin zion eskaera alkateari. Honakoa izan zen eskaera zehatza: "Arrasaten, edozein hiritarri agurra emateko leku egokia, eta hil kutxa bertan egonik lagunek hitz, kantu edo antzeko ekitaldirik egin ahal izatea".

Hasieran Biteri plazan egiten ari ziren parkearen estalkia proposatu zuten. Lekua beste hainbat ekitalditarako baliagarria izatea proposatu zuten.

## DUELA 5 URTE

2011-04-13

### Ahotsak proiektua

Arrasateko Ahotsak proiektua aurkeztu zuten Kulturateko areto nagusian.

Mondragoeko hizkera eta ondarea mantentzea helburu zuen ekimena izan zen. Aurkezpenean zenbait grabazio ikusi zituzten eta partaideek norberak egindako grabazioa eta diplomatxo bat eraman zuten etxera.

## HERRITARRAK

ARRASATE

**Jose Tena** Zalbibarko Futbito Txapelketako jokalari eta antolatzailea da. Aurtengo edizioan inoiz baino talde gutxiagok hartu dute parte, txapelketaren amaiera gertu dagoen seinale. | XABI GOROSTIDI

# "Hamar talde dituen txapelketa ezin da Zaldibar deitu; azken urtea izango da"



Jose Tena, Zaldibarren. | XABI GOROSTIDI

Jose Tena (Arrasate, 1974) izena entzun eta *Zaldibar* hitzarekin zuzenean ez erlazionatzea ezinezkoa da. 25 urte daramatza, jokalari, eta horietatik hamalau antolakuntzan sartuta. Horregatik guztiagatik, txapelketaren iraganari eta etorkizunari buruz hitz egiteko pertsona aproposa da oso.

**Noiz hasi zen zure eta Zaldibarko Futbito Txapelketaren arteko harremana?**

1990. urtea zen eta hamasei urte nituen. Asuncion ikastetxean ikasten nuen, eta bertan futbito talde bat sortu zen. Futbolerako erraztasuna genuen gaztetxoek eta beterano gutxi batzuek osatzen genuen, eta taldearen izena Ghana zen.

**Parte hartzeari dagokionez beste garai batzuk ziren, ezta?**

*Kuadrilla* kontzeptua zen nagusi urte haietan. Oso errotua zegoen kontzeptua zen eta parte hartze aldetik ez zuen oraingo egoerarekin zerikusirik.

**Zentzu horretan, zein izan da txapelketaren garairik oparoena?**

1996. urtea, esango nuke. Jendeak 80 talde zirela esan arren, konkretuki 76 talde lehiatu ziren, hemeretzina talde lau ligaxkatan banatuta. Urte hartan hirugarren geratzea lortu genuen. Taldea bere osotasunean kuadrillako kideek osatuta zegoela kontuan izanda, meritu handiko lorpena izan zen guretzat.

**Kalitateari dagokionez, urte onenak izan al ziren?**

Garai hartan lau talde oso on zeuden, eta gainontzeko taldeen maila apalagoa zen. Gaur egun, hamar talde gara, baina horietatik zortzi Zaldibarko txapeldun izandakoak. Beraz, talde gutxi izan arren, nahiko kalitate maila polita mantentzen du txapelketak. Talde gehiagorekin, erregularragoa izan behar da irabazteko, baina kalitateari dagokionez ez nuke esango oraingo maila txikiagoa denik.

> **"Ordutegiak jartzea erreza da; ez, ordea, jendeari entzun eta erabakiak hartzea"**

> **"Gaur egun gauden hamar taldeetatik zortzi txapelketa irabazitakoak gara"**

**Zer sentitzen duzu Zaldibarrera jokatzera zoazen bakoitzean?**

Niretzako, erritual bat da. Partidua jokatu, partiduosteko garagardotxoa, partiduko jokaldiak gogoratu, eztabaidatu… Zaldibar gabeko asteburua ez da asteburua niretzat. Partidua hastear dagoela heltzea gustatzen zait. Antolatzailea naizenez, lehenago agertuz gero, jendea txapelketaren inguruko gauzak esatera hurbiltzen zait, eta kontzentrazioa galtzen dut. Horregatik saiatzen naiz puntu-puntuan heltzen.

**2002a ezkero zaude antolakuntzan. Zer eskatzen du esfortzu aldetik?**

Bi zeregin nagusi daude: antolatzea eta erabakiak hartzea. Lehena erraza da, baina bigarrena da buruhausteak eragiten dituena. Ordutegiak ezartzea ez da zaila; aldiz, jendeari entzun eta erantzunak ematea, bai. Horrelako egoeretan *eskerrik asko* hitzak entzutea oso polita da, nahiz eta ez den sarritan gertatzen.

**Azken urteetan parte hartzea jaisten joan da, eta aurten hamar talde geratzen zarete. Zaldibarren amaiera gertu al dago?**

Nik uste dut baietz. Azken urteetan esan izan dugu: hamabi talde geratuz gero, bertan behera utziko dugu. Baina gure jokatzeko gogoak eraginda, ez gara erabaki hori hartzera heldu. Hala ere, hamar talde dituen txapelketa ezin da Zaldibar deitu. Hilabete pare batez gozatzeko, txapelketa txikiagoa antolatu daiteke Aste Santu ostean, baina hau azken urtea izango da.

**25 urteren ondoren zer izango da, zuretzat, era honetan amaitzeak?**

Aro berri batera pasatzen garela sentitzen dut. Denbora luzeagoa izango dut niretzat, baina pena handia eragiten dit.

**Zer faktorek eragin dute gainbehera hau?**

Lehena belaunaldi aldaketa da. Gustu berriak, teknologia berriak, jendeak gero eta konpromiso gutxiago nahi ditu, gauzak egiteko jendea topatzea kostatu egiten da… Horretaz gain, Zaldibartik kanpo futbito talde federatuak daude gure inguruan (Eskoriatza, UDA eta Mondrate), eta horrek eragina dauka. Azkenik, umeen jaiotza-tasa baxuak ere badu zerikusia talde gutxiago egotearekin.

**Futboletik kanpo zaletasunik?**

Historiaren zale amorratua naiz eta ordu asko eskaintzen dizkiot. Arrasateren eta nire gurasoen herriaren historian zentratzen naiz. Asko irakurtzen dut, eta ahalik eta datu gehien pilatzea gustatzen zait. Mugak jartzen dizkiot nire buruari, baina, hariari tiraka hastean, dena interesgarria iruditzen zaizu.

### NIRE HERRIAN

**:) HISTORIA ABERATSA**

Nire herriaren historia asko gustatzen zait. Benetan da interesgarria eta aberatsa, baina ez dugu behar beste baloratzen. Aitzindariak izan gara mendeetan zehar; XVI. mendean altzairuarekin, XX. mendean Zerrajera eta kooperatibak... Hala ere, Arrasate Zientzia Elkartea bezalako ekimenak positiboak dira, herria aberasten dutelako.

**:( ONDARE HISTORIKOA**

Faltan igartzen dut herriaren historia azaltzeko museo bat. Santa Barbaran daukagun ondare historikoaren egoera tamalgarria iruditzen zait. Bertan Arrasateko gaztelua dago, baina ez dago beronen historia azaltzeko kartelik, seinalerik, ezer ez. Horren inguruan zerbait egitea beharrezkoa iruditzen zait.

# HERRIAK


4.100 metro koadro ditu tailer berriak .



Goribar auzoko industrialdean dago Katealegaiaren lantegi berria.


Piezen kalitatea berrikusten. | ARGAZKIAK: MAITE TXINTXURRETA

## Lanaren bidez aukerak ematen, itxura berrituarekin

DATUA

**50**

LANGILE

Berrogeita hamar langilek dihardute KLren lantegi berrian. 4.100 metro koadro ditu eraikinak.

- Katealegaia enpresak lantegi berria dauka Oñatiko Goribar auzoan
- Mota desberdinetako desgaitasunak dituzten langileak dira bertakoak

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko Katealegaiak planta berria dauka urtarrila ezkero. Berezaon hasi zuen bere jarduna enpresak, eta bertakoa izan da planta "historikoa". Gero, duela hogei urte pasa, Goribar auzoan beste lantegi bat ireki zuten, Berezaokoa "txiki" geratu zitzaiela-eta, Maria Bermejok, tailerreko arduradunak, azaldu duenez.

Gabonetan egin zuten traslado, eta urtarrilaren 4an hasi zen lantegi berria martxan. Hau ere Goribarren dago, lehengotik metro batzuetara.

Bermejok dio lantegi berriak hobekuntza ugari ekarri dituela. Esaterako, herriko langile guztiak gune berean egotearen abantaila nabarmendu du. Aipatu du lehenago, noizean behin, langile batzuk lantegi batetik bestera mugitu behar zirela, eta hori, organizazio aldetik, astunagoa izaten zela, eta orain arazo hori ez daukatela: "Izan ere, beste enpresa batean, agian, emantzat jo daiteke gehienek autoa izango dutela, baina hemen guztiek ez daukate".

Horrez gain, instalazio aldetik ere hobekuntza nabarmena igarri dute; aldagela edo berogailu aldetik, esaterako. "Lehenago, emakumezkoen aldagelak bigarren pisuan zeuden, eta eskailerak igo behar zituzten, ez zegoen-eta igogailurik." Bermejok aipatu du horrek kontratazioan arazoak ere ekar zitzakeela: "Hanketako arazoren bat duen norbait ezin zenuen ekarri; orain, berriz, ez daukagu barrerarik!".

Jantokia izatea ere azpimarratu du arduradunak: "Lehen, ogitartekoa jateko orduan, errelebotan zihardutenek kalean edo euren postuan jan behar izaten zuten; eta orain, berriz, jantokian. Instalazio aldetik pilo bat irabazi dugu, asko". Lantegi berriak argitasun handia duela nabarmendu du Bermejok.

### Langileak

Katealegaiako tailerreko langile guztiek desgaitasunen bat daukate. Gehienek, Bermejok azaldu duenez, desgaitasun fisikoak dauzkate eta beste batzuek, berriz, mentalak. "Orain, gutxien daukaguna desgaitu sentsorialak dira", dio. Desgaitasun mentalen bat dutenek, normalki, babes handiagoa behar dute, atentzio handiagoa eskaini behar zaie. Azkenaldian sartzen direnen artean, desgaitu mentalak gero eta gehiago direla azaldu du.

Oñatiko lantegian dihardutenen gehienak gertuko herrietakoak dira. "Urrunen, Bergaratik". Debagoienetik eta Urola eskualdetik datoz gehienak.

Langile horiek guztiak enpresako bazkide ere badira. "Guadministrazio kontseilua langilez osatuta dago", azaldu du tailerreko arduradunak.

### Lan motak

Oñatiko Katealegaian manipulazio lanak egiten dituzte. Bi bezero nagusi dituzte: Tesa eta Polmetasa. Lehenengoarentzat sarrailak muntatzen dituzte, metalezko zein egurrezko ateentzat, baita segurtasunezko ateentzat ere.

Polmetasarendako egiten dituzten lanen baitan, berriz, bi sekzio dituzte, kalitatearena eta mekanizatua. Lehenengoan, bezeroak ekarritako "bukatutako" piezak berrikusten dituzte, akatsen bat dutenak alboratzeko.

"Mekanizatuan, berriz, nagusiki taladratuak egiten ditugu". Esaterako, pistoiak edo moteltze balbulak taladratzen dituzte. Hala, Katealegaiatik piezak guztiz bukatuta ateratzen dira.

Aipatutakoez gain, beste bezero batzuk ere badituzte: Nemesio Zubia eta Ulma, esaterako. Bezero gehienak Oñatikoak bertakoak edo gertukoak dira. "Historikoki, Oñatin gertuko bezeroekin lan egin izan dugu. Orain, gauzak aldatzen ari dira, baina lehenago bezeroak eskatzen zuena gertutasuna zen. Edozein motatako arazo edo larrialdiren bat izanez gero, gertuan zintuzten".

**LOURDES RUIZ**
LANGILEA

### "20 urte pasa daramatzat hemen lanean"


M.T.

Lourdes Ruiz oñatiarra da Katealegaiako langilerik beteranoenetakoena. Berezaoko lantegian hasi zen.

**Zenbat denbora daroazu Katealegaian lanean?**
Ez dakit ziur, baina hogei urte baino gehiago.

**Ze lan egiten duzu?**
Sarrailak muntatzen ditut.

**Zer iruditzen zaizu lantegia?**
Oso ondo dago; orokorrean, dena gustatzen zait.

**XABIER GALARTZA**
LANGILEA

### "Lehen baino toki handiagoa daukagu orain"


M.T.

Xabier Galartza Goribarko planta zaharretik dator. Oñatiarra da bera ere.

**Zenbat denbora daroazu Katealegaian lanean?**
Hiru urte egin ditut Aste Santuan. Azkar pasa da denbora.

**Ze lan egiten duzu?**
Automozio piezak berrikusi.

**Zer iruditzen zaizu lantegia?**
Lehengoaren antzera. Handiagoa, hori bai. Lehen baino toki handiagoa daukagu.



Harrera protokoloari hasierako onarpena emateko bozketaren unea, martitzeneko osoko bilkuran. | JOKIN BEREZIARTUA

# Arrasatear berri guztiei harrera egiteko protokoloa, aho batez

## Datozenei bertako sentiaraztea "guztion ardura" dela babesten du udalbatzak

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasatera bizitzera datozen kanpotar guztiei zuzendutako harrera protokoloari hasierako onarpena eman zion udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran: "Harrera transbertsala izan behar da, maila ezberdinetan egin beharrekoa. Ate hori zabaldu beharra dugu, gure herria gero eta anitzagoa dela aintzat hartu. Pertsona horiei herritik harrera egiten diegula sentiarazi behar diegu", esan zuen Maria Ubarretxena alkateak. Aho batez onartu zen protokoloa, baina EH Bilduk nabarmendu zuen dokumentua "lehen urratsa bakarrik" izan beharko litzatekeela. Uste dute kanpotarrei harrera egitea herri osoaren ardura dela: "Harrera protokolo bat ezin da izan hasiera bateko erroldatze prozesuak errazteko tresna burokratiko eta administratibo bat. Herri osoa izan behar da harrera horren partaide, protagonista eta erantzule. Hori horrela izango bada, egitasmo eta ekintza zehatzak jarri behar dira martxan", adierazi zuen Itxaro Artola zinegotziak. Horrekin lotuta, harrera hori kudeatuko duen lantaldea Udaletik harago joan eta mahai hori beste norbanako batzuei eta eragileei zabaltzea eskatu zuen Artolak. Udal Gobernuak, berriz, begi onez ikusten ditu oposizioko talde nagusiaren ekarpenak: "Gure aldetik ez dago arazorik, batzordean jorratuko dugu. Ekarpenak ongietorriak dira", gaineratu zuen alkateak.

### Arcelor-Mittal auzia

Bestalde, Zumarragako Arcelor Mittal lantegiko langileei babesa adierazi eta "etorkizuna duen industria politika bat" exijitzeko adierazpen instituzionala onartu zen: "Busti egingo naiz. Kanpotarrei gure enpresak saltzea ez dut uste estrategia ona denik. Estrategia politikoa izan beharko litzateke enpresak kanpotarrei ez saltzea eta gutxienez erabaki ahalmena Euskal Herrian geratzea", uste du Ubarretxenak. Gainera, zapaturako deialdia ere babestu zuen udalbatzak; bihar Zumarragako plaza eta lantegia giza kate baten bidez lotuko dute.

# Floren Aoiz, Nafarroako gakoez hilaren 27an Kulturaten

**J.B.** | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz taldearen Udaberriko Hitzaldi Zikloaren barruan, Juantxo Agirre izan zen eguaztenean Kulturateko areto nagusian. Aranzadi elkarteko idazkariak Amaiurko Gazteluaren azken aurkikuntzak izan zituen hizpide. Zikloaren bigarren saioan, hilaren 27an, historia ikertzaile Floren Aoiz Nafarroako aldaketen gakoez mintzatuko da; Aoizen arabera, Nafarroakoa ez da "gobernu edo kolore aldaketa hutsa" izan. Zikloa amaitzeko, Aranzadiko ikerlari eta numismatikan aditu Mikel Legorburuk txanponen bidez aztertuko du Euskal Herriaren historia, maiatzaren 3an edo 4an. Saioak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan.

# Dispertsioaren aurkako 'Gazte Bagoia'

**J.B.** | ARRASATE

Euskal preso eta iheslarien alde lanean diharduen Arrasateko Sare ekimenak *Hartu Trena* dinamikarekin jarraitzen du: "Giza eskubideen errespetuaren aldeko trenak, euskal preso eta iheslarien eskubideen errespetua du lehenengo geltoki. Arrasaten bagoiak osatuz gabiltza, lehenengo mendizaleen bagoia osatu genuen eta orain gazte bagoia osatu dugu".

Izan ere, apirilaren 3an hainbat mendizalerekin eta eskalatzailerekin batera Txindokiko tontorrean egin zuten hitzordua dispertsioa salatu eta euskal presoen eskubideak errespeta daitezela eskatzeko.




Arrasateko hainbat gazte Sare ekimenarekin bat egiteko talde argazkian. | SARE

### Apirileko Azken Ostirala

Oraingoan, herriko gazteekin batera egin dute apirileko Azken Ostiralean parte hartzeko deia; izan ere, hileroko azken egubakoitzeko elkarretaratzea ondoko argazkiko gazte horiek deitu dute. Horrez gain, bideo bat ere egin dute herriko hainbat gazterekin, dispertsioaren aurkako mezuekin.

Hortaz, azken egubakoitzeko elkarretaratzea apirilaren 29an izango da Herriko Plazan, 19:30ean. Amaitzeko, honako hau adierazi dute: "Sare ekimenetik deialdia burutu nahi dugu ekimena bera babestu eta herritar guztiok elkarretaratzera hurbil gaitezen. Guztion artean lortuko dugu".

# Boluntarioei esker antolatu dira San Andresko festak

**J.B.** | ARRASATE

Apirilaren 29tik maiatzaren 1era ospatuko dira jaiak San Andresen. Auzoan alkatetzarik ez dagoenez, boluntario talde bati esker antolatu dira jaiak. Egitarauan nobedade aipagarri bat izango da: apirilaren 30ean ehiza-txakurren erakustaldia izango da Gudarien plazan. Egun horretan ere rock jaialdi aipagarria izango da leku berean: Libertad Condicional, Screamers and Sinners, Kadena Perpetua, Zarzamora eta Subversion X. Herri bazkaria ere hilaren 30ean egingo da; txartelak tabernetan daude salgai. Umeen menua sei eurotan dago eta helduena, berriz, hamabi eurotan.

# Hemen dugu 'Domeketan!'-en hirugarren saioa

KOMUNITATEA GOIENA | LUDOTEKAK
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Familian euskaraz jolasteko aukera aprobetxatu nahi? Hemen duzue *Domeketan!* egitasmoaren hirugarren saioa prest! 0-8 urte arteko umeak dituzten familiei dago zuzenduta ekimena. Etzi, domeka, Okendoko ludotekan elkartuko gara eta kalera irtengo gara, eguraldiak laguntzen badu, 17:00etatik 19:00etara.

*Kalekantoi* bildumako jolasak aurkeztuko ditugu, familian jolasteko aproposak izan daitezkeen jolasak aukeratuta. Saioa amaitzeko, *Afrikaren munduak* ikuskizuna izango dugu. Beraz, hurbildu eta parte hartu, ez zarete damutuko!

# Leintzerena izan da haragi gisaturik onena aurten

Apirileko baserritarren azokaren barruan ospatutako haragi gisatu lehiaketan, Leintze elkartea izan da irabazlea. Herriko hamabi elkarte gastronomikok hartu dute parte aurten; lehiaketaren ostean, azokara hurbildu ziren herritarrek okela dastatzeko aukera izan zuten.



IMANOL SORIANO

# Muzibar-Arbolapeta proiektua dela-eta, bilera bizilagunekin

Muzibar eta Arbolapeta arteko kale zatia berrantolatzeko proiektuaren barruan, bizilagunekin bilera deitu du Udalak apirilaren 25erako, osoko bilkuren aretoan (18:30). Proiektuaren egungo egoera zein den eta etorkizunerako asmoak zeintzuk diren azalduko diete bertaratzen direnei. Bestalde, bizilagunen iritziak eta ekarpenak ere jaso nahi ditu Udalak. Udal Gobernuak nahi duena da ahalik eta adostasun handiena lortzea hurrengo agintaldian proiektua gauzatzeko ez dadin oztoporik izan.

# AGI laguntzaren eskatzaile kopuruan, bigarren herria

Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza eskaerak ez dira onartuko uztailetik aurrera

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Gipuzkoako Diputazioaren arabera, AGI moduan ezagutzen den Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza gaur egun premia larrian dauden 1.400 familia unitatek jasotzen dute, eta Donostiaren ostean, Arrasaten daude eskatzaile gehien: 131, hain justu. Laguntza horiek ikertu ondoren, Diputaziotik ondorioztatu dute etorkinen dei-eragina gertatu dela Gipuzkoan, eta uztailetik aurrera ez da eskaera berririk onartuko.

**85.000 euro Arrasaten**

Hortaz, diru laguntza hori kendu egingo dute 2018rako. Aldundiak txosten tekniko bat egin zuen laguntzaren inguruan eta, ondoren, ondorioak konpartitu zituen alderdi politikoekin, hainbat alkaterekin, hirugarren sektoreko ordezkariekin eta beste eragile batzuekin. Horren ostean, diru laguntza hori moldatzeko erabakia hartu zuen. 2016ko ekainaren 30era arte bere horretan jarraituko du AGIk; onuradun direnek laguntza jasotzen jarraituko dute, eta kargupean umeak dituzten familiek 2015eko abenduaren 31n Gipuzkoan erroldatuta bazeuden, urte bukaerara arteko epea izango dute laguntza eskatzeko. Baina, esandako moduan, eskaera berri gehiago ez dira onartuko uztailaren 1etik aurrera. Gaur egun 11 milioi euroko aurrekontua dauka Diputazioak diru laguntza horretarako. Arrasateri dagokionez, Udalak aditzera eman duenez, 85.000 euro behar izaten dituzte laguntza horiek bermatzeko.

Laguntza lerro hori kenduta, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Amaia Azpiazuk adierazi du uste dutela etorkin gutxiago etorriko direla Gipuzkoara, baina erabaki beharko dutela orain nola lagundu behar dieten beharra duten familia horiei. Herri bakoitzeko Udalak hartu beharko du erabaki hori.

DATUA

**131**

UNITATEA

**Premia larria duten Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza 131 pertsonak eskatzen dute hemen. Donostiaren ostean, bigarren herria.**



Aranzadiko ikasleak Eroski Hipermerkatuan; Irati Unamuno, bere marrazkitik eratorritako platera eskuetan. | ARIZMENDI

# Elikadura osasuntsuari eta irudimenari esker, saritua

Irati Unamunoren marrazkia, Eroskik antolatutako 'Imagine Food' lehiaketako irabazleetako bat

**J.B.** | ARRASATE

Irati Unamuno arrasatearra izan da Eroski Fundazioak antolatutako *Imagine Food* lehiaketako irabazleetako bat. Espainia mailako sariketan, 900 marrazki baino gehiago aurkeztu dira; Sevillako eta Toledoko parte-hartzaileak dira beste bi irabazleak, eta hango marrazkietatik eratorritako platerak ere ikusi ahal izan ziren. Unamunok, Eroski Hipermerkatuan, astelehenean, jaso zuen saria; bizikleta eta 2.000 euro Arizmendi Ikastolarendako.

Aurkeztutako marrazkian unibertsoa margotu zuen Unamunok, eta ekimena elikadura osasuntsua sustatzeko asmoz antolatzen denez, Pello Gartzia sukaldariak bere marrazkia aintzat hartuta platera osasungarria prestatu zuen –goiko argazkian ikus daiteke Unamuno platera eskuetan–. Pozik hartu zuen saria Unamunok: "Edozein lekutara joan naiteke bizikleta honekin".

## Benito Menniren omenezko ekitaldi zerrenda luzea

**J.B.** | ARRASATE

Aita Menni eta San Juan de Dios ospitalean egitarau zabala antolatu dute datozen egunotarako, Benito Menniren omenez. Gaur, egubakoitza, Benito Menniren apainketa egingo dute ospitaleko ludotekan, 11:00etatik 13:00etara. Domekan, berriz, Benito Menniren omenezko hirurrena egingo dute Aita Menni Ospitaleko Kaperan, 11:45etik 12:30era. Gainera, domekan bertan, eguneko zentroan Benito Menniren bizitzaren inguruko kontakizuna egingo dute argazki aurkezpen baten bidez, 12:00etatik 12:45era. Txokolate-jana ere izango dute 15:30etik 16:30era.

Erguingo Errehabilitazio Psikosozialerako zentroan, goizean zehar, erabiltzaileek eta langileek egindako Benito Menniren omenezko horma-irudia zintzilikatuko dute eta *Biografia de Benito Menni* eta *Los olvidados de los olvidos* dokumentalak ere ikusiko dituzte. Iturbide egoitzan, amaitzeko, Benito Menniren bizitzaren gaineko hitzaldia eskainiko du Egoitz Zabalak, 11:00etan hasita.

NIRE USTEZ



**IBON ARRUPE**

## Gora gure gazteluak!

Arrasaten, aspaldi, gaztelu bat egon zen Santa Barbarako muinean. Bertan diraute oraindik ere bere aztarnak. Gazteluak, arerioaren aurrean defentsa eta botere ikur izanik, Gaztelako erregeari ez zion grazia handirik egiten eta lapur-zulo bilakatu zen aitzakiaz, eraistea agindu zuen.

Handik mende batzuetara ordea, arrasatearrek, euren burujabetzaren sinbolo gisa, udaletxe berria eraikitzea erabaki zuten. Eta ez ziren txikikerietan ibili, ez! Hor daukagu; zahar, sendo eta eder arrasatearrok gure bizitza antolatzeko daukagun boterearen seinale.

Beranduago, herritarron zerbitzurako *gaztelu* berriak eraiki genituen: Zaldibarko frontoia, ikastetxeak, Musakolako polikiroldegia, Iturbide egoitza, Etxaluze... betiere finantziazioa ahal zen tokian bilatuz eta kikildu gabe. Hala ere, bateren batek, gure arbasoen jokamolde horiek ez ditu konpartituko; Zorpetu egiten zirela, adreilua zela beraien modeloa, eta abar argudiatuz.

Haatik, XXI. mende hasiera honetan, kultura, hizkuntza, gazte eta helduen aisialdi eta gure herri sentimendua defendatze aldera, gaztelu pare berria eraikitzekotan gera mondrautarrok: Kulturola, kulturaren fabrika. Gure aurrekoek erakutsi ziguten bidetik eta kikildu gabe, lortuko dugu *gaztelu* hau ere eraikitzea, bai horixe!

**"Finantzazioa ahal zen lekuan bilatuz eta kikildu gabe, betiere"**

OHARRAK

**UMEEN DANBORRADA**

SUDC elkartea lanean ari da umeen danborrada antolatzeko. Izena eman ahalko da apirilaren 25ean hasi eta plazak bukatu arte. Nafarroa etorbideko 23. zenbakian dagoen SUDCeko egoitzan eman beharko da izena, astelehenetik egubakoitzera, 16:30etik 18:00etara. Pertsona bakoitzak hiru ume apuntatu ahal izango ditu gehienez.

## Primeran Zumaia eta Getaria artean

**Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak irteera antolatu zuen domekarako, Zumaia eta Getaria aldera. Haur eta heldu, 70 bat lagun elkartu ziren. Zumaiako Elorriaga auzotik Getariara egin zuten hamar kilometro pasatxoko txangoa, "giro ederrean".**



ARRASATE HERRI ESKOLA

## Sanjuanetarako kartel lehiaketako azken eguna, maiatzaren 13a

San Juan jaietako karteleko eta egitarauko irudia aukeratzeko lehiaketa abiatu du Udalak. Karteleko testuan *2016 San Juan Jaiak Arrasate* jaso beharko da ezinbestean. Lanak maiatzaren 13rako entregatu beharko dira BAZen, 19:00ak baino lehen. Irudi irabazleak 750 euroko saria jasoko du.




MU-Ointxe Andres-en aldeko ekitaldian; irudian, hiru jokalari Renedoko (Kantabria) kantxan. | CONTRAMETA

# Saskibaloia handi egiten duten elkartasun keinuak

Ume gaixo bati laguntzen eta behartsuenei elikagaiak batzen, Ointxe eredu

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

MU-Ointxe beste erakustaldi bat ari da ematen. Kirol arloan zein gizarte-arloan. Datorren urtean EBAn jokatuko dutela bermatu ostean –azken seietatik bost irabazi dituzte, tartean kategoriako oilarrak diren Ardoi eta Santurtzi menderatuta–, urteko kirol helburua lortu dute.

Horrez gain, joan den asteburuan Renedoko (Kantabria) Pas Pielagos taldearen aurkako partiduan, Andres izeneko 8 urteko umearen aldeko ekimenean hartu zuten parte Josu Larreategiren mutilek. Buruko isuri baten ondorioz AEBtara bidaiatu behar izaten du Andresek; haren alde dirua biltzeko hainbat ekimen ari dira egiten Renedon. Bada, jokalariek Andresekin egoteko aukera izan zuten: "Jokalari guztiek sinatutako Ointxeren kamiseta bat soinean zuela ikusi genuen Andres kantxatik korrikan. Klub osoaren izenean esan beharra daukat Pielagos klubeko estamentu guztiak dena eman zutela gure alde, Andresi laguntzeko erakutsi dugun elkartasunagatik. Taldeak berak eta hango zaleek erakutsitako esker onak hunkitu egin gintuen", dio Larreategik. Ekitaldiaren garrantziaren adierazle, Kantabriako presidente Miguel Angel Revillak hartu zuen parte. 1.500 lagun inguru izan ziren partiduan eta ia 3.000 euro batu ziren Andresendako. Larreategik aurreratu duenez, Pielagos-en eta Ointxeren arteko harreman onak emango ditu fruituak aurrerago ere. Partidua etxeko taldeak irabazi zuen, 82-71: "Etxean partidu bakarra galdu dute, Ardois liderraren aurka. Orokorrean, taldeak ondo egin zuen lan, baina kantxa hauetan 40 minutuetan dena eman behar duzu kontzentrazioari eta fisikoari dagokionez".

### Biharkoa, elikagai bankurako

Bihar, zapatua, derbi gipuzkoarra jokatuko dute arrasatearrek Easoren aurka (18:00, Iturripe). Behartsuenendako beste elkartasun keinu bat izango dute: "Iazko arrakasta ikusita, aurten ere jokalari zein *staff* teknikoak erabaki dugu, zuzendaritzaren babespean, hiriburuko taldearen bisita aprobetxatzea elikagaien bilketa bat egiteko. Partidu honetan ikusleek doan sartzeko aukera izango dute iragankorrak ez diren jakiak –arroza, pasta, lekaleak...– eramanda. Jasotako guztia Bergarako Elikagaien Bankura bideratuko da. Espero dugu oraingoan ere Iturripeko harmailak betetzea. Animatu!", diote.



## Mendia eta sagardoa bat eginda, Besaideri esker

BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Besaide Mendizale Elkarteak mendi irteera eta sagardotegia batu zituen hilaren 16an. Monterrondik irtenda, Udala, Besaide, Tellamendi eta Aramaioko Etxaguen auzoan ibili ziren, mendi buelta Iturrieta sagardotegian amaitzeko. 40 pertsona elkartu ziren: "Giro ezin hobean ibili ginen. Balorazio oso positiboa egiten dugu eta parte-hartzaileak ere oso pozik geratu ziren. Datorren urtean errepikatu egingo dugu", adierazi dute.

# Josu Madinabeitia eta Jokin Martin Espainiako txapelketara asteburuan

**J.B.** | ARRASATE

Arrasateko karateak osasuntsu jarraitzen du, Arrasate Saioa Karate Taldea lan handia ari da-eta egiten harrobiarekin. Azken izen esanguratsuen artean daude Josu Madinabeitia eta Jokin Martin. 13 urte eskasekin, gerriko marroia dute biek eta euren entrenatzaile Carlos Sanchezen arabera, "oso maila altua" ari dira ematen. Joan den aste bukaeran berretsi zuten sasoiko daudela, Gipuzkoako txapelketa irabazita. Aretxabaletako Ibarra kiroldegian jokatu zen: "Bi karatekek nagusitasunez irabazi zituzten euren borrokaldiak. Ez zuten inongo arazorik izan garaitzeko".

### Euskal selekzioarekin

Euskal selekzioarekin joango dira aste bukaeran Murtziara, zapatuan eta domekan Espainiako txapelketaren 38. edizioa jokatuko delako bertan: "Espainiako txapelketan parte hartuko zutela jakin zutenean izugarri poztu ziren. Lehenago ere euskal selekzioko karatekekin entrenatu zutenean pozez zoratzen zeuden; imajinatu orain, Espainiako txapelketara doazela jakinda...". Bergarak ere izango du ordezkaritza Espainiakoan; Unai Nogales eta Aritz Zabalza bergararrak joango dira Murtzia aldera. Lau horiek dira Gipuzkoatik joango diren lau karatekak.

### "Pasioz bizi dute karatea"

Bost edo sei urte zutenetik entrenatzen ditu Sanchezek Madinabeitia eta Martin: "Beti etorri izan dira sekulako gogoekin, huts egiten ez duten horietakoak dira. Pasioz bizi dute karatea".

Zapaturako zein domekarako zortzi tatami jarriko dituzte Murtziako kirol-jauregian eta 1.000 ume inguruk hartuko dute parte; 1.200 borrokaldi baino gehiago izango dira bi egunetan: "Finalera heltzeko hiru edo borrokaldi gainditu beharko dituzte. Hala ere, esperientzia bizitzea izango da helburua Josurendako eta Jokinendako".



Josu Madinabeitia eta Jokin Martin entrenatzen, asteon. | CARLOS SANCHEZ

## Partidu garrantzitsua jokatuko du Arrasate Rugby Taldeak Iruñean

Igoera fasean jokatutako lau partiduetatik bi irabazi eta bi galdu dituzte Igor Isasiren mutilek; hirugarrenak dira (9 puntu), eta aurretik daude Iruñea (10) eta Gernika B (20) liderra. Lehena zuzenean igoko da Lehen Mailara eta bigarren sailkatuak *play-off*-a jokatuko du. Iruñean jokatu du ARTk bihar; partidu garrantzitsua, zalantza barik.

## Artzaintzaren Bideko bigarren etapa egingo dute etzi Besaidekoek

Artzaintzaren Bideko bigarren etapa Arlaban eta Urkiola artekoa izango da. 07:30ean irtengo dira Garibaitik eta 17:20erako bueltatuko dira. 17,7 kilometrokoa da ibilbidea, 150 metroko desnibelarekin. Prezioa da hamar eurokoa bazkideentzat eta 13 eurokoa bazkide ez direnentzat. Ezinbestekoa da federatuta egotea.

## ZALDIBAR

**3.JARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Elorra JMA - Monte Taberna | **1-3** |
| Betrayer - Sonografos | **5-4** |
| Rayo Makabro - Aldatz | **1-5** |
| Elorra JMA - Olympiakojos FC | **3-6** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **A MULTZOA** | | | |
| **1** | Aldatz | **11** | **2** |
| **2** | Sonografos | **9** | **3** |
| **3** | Lasagabaster | **8** | **2** |
| **4** | Betrayer | **6** | **3** |
| **5** | Rayo Makabro | **1** | **2** |
| **B MULTZOA** | | | |
| **1** | Monte Taberna | **11** | **2** |
| **2** | Dribling | **10** | **1** |
| **3** | Abokajarro | **6** | **1** |
| **4** | Olympiakojos FC | **4** | **3** |
| **5** | Elorra JMA | **2** | **3** |

**2. FASEKO 4. JARDUNALDIA**

APIRILAK 23, ZAPATUA

**11:30** Dribling-Elorra JMA / **Rayo Makabro**

**12:30** Rayo Makabro-Lasagabaster / **Dribling**

APIRILAK 24, DOMEKA

**11:30** Aldatz - Sonografos / **Abokajarro**

**12:30** Abokajarro - Monte Taberna / **Aldatz**

**Atsedenaldia:** Betrayer eta Olympiakojos FC

# Liburuaren Egunaren harira, ekintza ugari

'Rockomikiak' erakusketa apirilaren 30era arte izango da ikusgai Kulturaten

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an ospatzen da, eta, horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Arrasateko Udal Bibliotekak. Horietako bat *Rockomikiak, Biñetak@Doinuak* erakusketa da. 80ko hamarkadan egondako pizkunde kultural eta artistikoa islatzen du, eta apirilaren 30era arte egongo da aukera ikusteko Kulturateko klaustroan.

Erakusketak hiru gune batzen ditu: David Zapiain eta Koldo Almandozek sortutako musika eta komikigintzarekin lotutako hamar panel, TMEO aldizkari satirikoari eskainitako panelak, eta Arrasate eta Debagoieneko materialarekin osatutako gunea, disko azalak, argazki zaharrak... batzen dituena. Bereziki erakusketa honetarako prestatu da hirugarren zati hau, eta herritar askok kolaboratu dute material bilketan. Panelez gain, herritarrek eramandako hainbat dokumentu ere badaude ikusgai.



*Rockomikiak* erakusketa. | JAGOBA DOMINGO

**Erakusketaren inguruan**

Erakusketarekin batera, Gorka Lazkanoren eskutik bisita gidatuak izaten ari dira, ikasleentzat zuzendutakoak direnak. Honez gain, hainbat ekintza ere izango dira, eta horietako bat *Bertso punk margotua* da, apirilaren 28an, martitzenean, 19:00etan egingo dena. Helena Di Dik, Kopik, Danel Goikoleak eta Igor eta Magu musikariek antolatuta, mural baten margotzea egingo da. Hala ere, Kepa Altubek adierazi duenez: "Zerbait ezberdina egitea pentsatu dugu, sorpresa ikusgarria izango da, eta, guk antolatu arren, jende gehiagok hartuko du parte. Horregatik, gonbidapena luzatzen diet herritarrei martitzenean Kulturatera gertura daitezen".

**'El Ala Rota' komikia aurkeztuz**

*El Ala Rota* komikiaren aurkezpena egingo dute Antonio Altarriba eta Kim marrazkilariek. Helduei zuzenduta dago, eta gazteleraz egingo dute aurkezpena. Hau apirilaren 28an, eguenean, egingo da, 19:30ean, baina Kulturaten beharrean Jokin Zaitegi aretoan izango da.

Amaitzeko, berriz, apirilaren 29an, egubakoitzean, Julen Ribas ilustratzaile, marrazkigile eta komikigilearen erakustaldia izango da 19:00etan.

## 'Literatura y Humor' tertulia literarioak

Apirilean gaztelaniazko literatura solasaldien barruan ziklo berri bat irekiko da, *Literatura y Humor* izenekoa, eta ekainera arte egongo da martxan ziklo berri hau. Juan Ibarrondo idazle gasteiztarrak koordinatuta, hauek izango dira tertulia literarioetan izango diren liburuak, egunak eta orduak: apirilaren 27an, *Lucrecia Borgia, La hija de papa* (Dario Fo), maiatzaren 18an, *La tesis de Nancy* (Ramon J.Sender) eta ekainaren 16an, *Diario de las estrellas: Viajes* (Stanislaw Lem).

# Doke antzerki taldeak obra berria aurkeztuko du

I.B | ARRASATE

Arrasateko Doke antzerki taldearen zazpigarren antzezlana izango da *Aingeru ala Kurriloi?*, eta maiatzaren 7an estreinatuko dute, Aramaion. Arrasaten, aldiz, ekainaren 19an izango da emanaldia, Amaia antzokian. Uda aurreko azkena izango da, gero deskantsua hartuko dute-eta taldekideek.

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi du istorioa antzezleen eskakizunez, eta Dorita Murgia, Maider Alzelai, Mariasun Pagoaga eta Arantxa Ezkurra dira bertan parte hartzen duten antzezleak, Vene Herrero zuzendariak gidatuta. Tragikomedia bezala definitzen duten antzezlana "oso erreala dela eta edozein familiatan gertatu daitekeela" adierazi dute taldekideek.

Hiru ahizparen istorioa aurkezten da, XX. mende erdialdera kokatu daitekeena. Zaharrenak gurasoen etxetik alde egin zuen haurdun geratu zenean eta ez zen inoiz itzuli. Beste bi ahizpak ezkongabeak dira, eta euren arteko bizimodua arrunkeria itogarriak inguratzen du. Halako batean, bi ahizpen bizitza irauliko duen hirugarrenaren alaba (bi ahizpen iloba) agertzen da etxean, ama hil zaiolakoan, denei bizitza zailtzen dizkieten uneak sortuta.

**50eko hamarkadan oinarria**

Velez de Mendizabalek istorio atenporal bat idatzi duen arren, Vene Herrero zuzendariak 50eko hamarkadan girotu nahi izan du antzezlana; hain zuzen, istorioari dramatismo puntu bat gaineratzeko asmoz.



Vene Herrero, Jose Mari Velez de Mendizabal eta antzezleak. | ENEKO AZURMENDI

# AGAKOren urteurrena dela eta, kontzertuak gaztetxean

The Lookers, Discipulos de Dionisos, Voltaia eta Anestesia taldeak izango dira aste bukaeran

I.B | ARRASATE

AGAKOren 25. urteurrenaren harira, hainbat eragilek elkarlanean kontzertu ugari antolatu dituzte aste bukaeretan. Kooltur Ekintzak ekimenak lagunduta, lau talde izango dira gaur eta bihar Arrasateko gaztetxean.

Gaur, Discipulos de Dionisos eta The Lookers taldeak izango dira, 22:00etan. Kooltur egitasmoko Iker Barandiaranen esanetan: "The Lookers Iparraldeko hirukote gaztea da, eta rock-and-rolla, garage-rocka... jotzen dute. Iazko Koolturren izan ziren, eta, jende gutxik ezagutzen duen taldea izan arren, arrakasta aparta izan zuten". Discipulos de Dionisos, aldiz, Donostiatik datorren taldea da, eta porno-punk estiloa jorratzen dute. "Bailaran nahiko ezagunak dira, eta duela bi urte-edo ikusi nituen nik, eta sasoi oso onean daude. Sexuaren erreferentzia zuzena egiten dute letretan, baina punk-rock eta rock-and-roll oso azkarra egiten dute".

Voltaia eta Anestesia, berriz, zapatuan izango dira. Rock gogorra eta metala entzuteko aukera izango da biekin. "Voltaiak bigarren diskoa atera berri du, Medusa izenekoa, eta inpresio oso ona eman dit". Anestesia, berriz, Zarauzko talde mitikoa da: "Hainbat aldiz izan dira aurreko gaztetxean, baina hemen ez dira egon. Taldea bere onenean dagoela esan dezaket ziurtasun osoz".

**Datorren eguenerako**

Apirilaren 28an, berriz,Yellow Big Machine talde bilbotarra izango da gaztetxean, 22:00etan. Rocka, hardcorea, soula... nahastuz energia handiko kontzertuak eskaintzen dituzte.

# Opus4 eta Txorbelak irekiko dute 2016ko Musikaldia

I.B | ARRASATE

Udaberriko Musikaldiaren barruan, hainbat emanaldi izango dira, eta gaur emango diote hasiera Opus4 ahots taldeak eta Txorbela otxoteak. Emanaldia parrokian izango da, 20:00etan hasita.

Opus4 talde argentinarrak musika folklorikoa eta kontinente amerikarreko musika tradizionala egiten du. Berrogeita zazpi urte bete zituen iaz panorama artistikoan, eta 7.700 emanaldi baino gehiago egin ditu 500 hiri eta herritan, hogeita hemezortzi herrialdetan.

Txorbela, berriz, gurean ezaguna den otxotea da. Arrasatearrek denborarekin ahaztuak izan diren abestiak errekuperatzea dute helburu eta errepertorio zabala eta aberatsa eskainiko dute.

**Zapatuan, Kup taldea**

Musika biziki maite duen gazte talde batek sortutako abesbatza da Kup. Gabriel Baltes zuzendariaren gidaritzapean, zailtasun eta konplexutasun tekniko handia duten maila goreneko obrak interpretatuko dituzte.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

# Lehen egunak bost edukiontzien bidezko bilketa sistemarekin

▶ Udaletik azaldu dute lehen egunak "normaltasunez" joaten ari direla

▶ Astelehenean zintzilikarioetako kuboak erretiratzen hasiko dira langileak

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Jarri dituzte errefusaren eta hondakin organikoen edukiontziak, eta martxan da hondakinen bilketa sistema berria. Aurrerantzean, errefusa eta organikoa ere edukiontzietan bota behar da, zintzilikarioak erabili ordez.

Astelehenean jarri zituzten edukiontzi gehienak kaleetan, eta martitzen goizerako guztiak zeuden instalatuta. Lander Arregik, Udaleko zinegotzi eta Debagoieneko Mankomunitateko ingurumen arduradunak, dio lehen egun hauek "arazo handirik gabe" eta "normaltasunez" joan direla.

Bestalde, jakinarazi du, astelehenean, zintzilikarioetan dauden kuboak jasotzen eta Udal biltegira eroaten hasiko direla, eta horren ostean falta diren zintzilikarioak desmuntatuko dituztela. Norbaitek kuboak berreskuratu nahiko balitu Udal biltegira joan beharko litzateke.



Organikoaren eta errefusaren edukiontzi berriak Ibargarai kalean. | M.T.

### Hondakinen bulegoa

Edukiontziak irekitzeko txartelen banaketa auzoz auzo egin dute, Aste Santu aurretik hasita, eta saio haietan giltzen %70 baino gehiago banatu zituztela azaldu dute hondakinen bulegotik. Txartela jasotzeke zeukaten herritar asko asteon izan dira udaletxeko hondakinen bulegoan; ondorioz, ilara batzuk sortu dira, goizetan batez ere. Jendea dagokion edukiontzien gunea aldatzeko eskaerak egitera ere joan da bulegora.

Bestalde, kasu batzuetan, herritarrek arazoren bat izan dute edukiontzia irekitzeko. Horren aurrean, Arregik azaldu du sei edukiontzi identifikatu dituztela, eta zabalik utzi dituztela arazoa konpondu arte jendeak erabili ahal izateko. Arazoa izan da edukiontzien pilak agortuta zeudela: "Duela bi hilabete muntatu genituen, eta, sistema berriaren ezarpena pixka bat atzeratu denez, pila agortu zaie". Nabarmendu du "konponbide azkarra" duen arazoa dela pilena. Hala ere, gomendatu du arazorik izanez gero, hondakinen bulegora jotzeko.

Bestalde, bulegotik azaldu dute asteon kexaren bat edo beste izan dutela edukiontzien atearen altuerarekin lotuta, "ume eta nagusiendako altuegiak" direla esanez. Horren harira, Arregik azpimarratu du etorkizunean edukiontzi baxuagoak erabiltzeko probak egiten dihardutela. Bestetik, esan du hainbat gunetan aparkalekuaren tokian jarri dituztela edukiontziak, "espaloiaren altuera aprobetxatuz irisgarriago egiteko". Horrek, era berean, kexak ekarri ditu, aparkalekuak gutxitu direlako. Zinegotziak azaldu du zintzilikarioak kentzean aparkalekuak berreskuratuko dituztela, eta kopurua "orain artekoaren antzekoa" izango dela.

### Erabilera zuzena

Lander Arregik gogorarazi du edukiontzi marroian hondakin organikoak soilik bota behar direla, plastikozko poltsa barik. Poltsa erabiltzekotan, atez ateko sistemarekin erabiltzen zen poltsa organiko birziklagarri bera erabili behar da. Etxean organikoa plastikozko poltsan batuz gero, hura hustu eta dagokion edukiontzira bota behar da.

## LABEGARAIETA

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Poteo Izarrak-Vodka Juniors | **b.b.** |
| HIS-Sanpe United | **b.b.** |
| Birgerias-SVC | **6-6** |
| River City-America | **8-7** |
| Arrano Zabalik-Errefuxa | **5-6** |
| Komando Piperrak-Estrella Coja | **2-8** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | Estrella Coja | **42** | **16** |
| **2** | River City | **35** | **16** |
| **3** | Errefuxa | **33** | **14** |
| **4** | Komando Piperrak | **33** | **16** |
| **5** | Poteo Izarrak | **23** | **14** |
| **6** | America | **23** | **15** |
| **7** | Birgerias | **19** | **15** |
| **8** | Arrano Zabalik | **15** | **16** |
| **9** | Vodka Juniors | **13** | **14** |
| **10** | Sanpe United | **9** | **14** |
| **11** | HIS | **9** | **14** |
| **12** | SVC | **7** | **16** |

**PARTIDUAK**

Apirilak 24, domeka

| | |
|---|---|
| **16:00** | K. Piperrak-River City |
| **17:00** | HIS-SVC |
| **18:00** | Estrella Coja-Errefuxa |
| **19:00** | Birgerias-Vodka Juniors |
| **20:00** | Poteo Izarrak-Sanpe United |

## Irabazi taldeak hiru mozio aurkeztuko ditu asteleheneko bilkuran

TTIP itunaren aurkako, erosketa eta kontratazio publiko berdearen aldeko eta memoria historikoaren berreskurapenari buruzko mozio bana aurkeztuko du Irabazik asteleheneko osoko bilkuran (19:30ean).

## Isidro Monzonen erakusketara bisita gidatua gaur Olason

Olaso dorreko Jakiunde aretoan ikusgai dagoen *Etxeak. Sormen berezi bat Euskal Herrian* Isidro Monzon arkitektoari buruzko erakusketara bisita gidatua gaur, 18:30ean, Jean Idiarteren eskutik. Gero, Gaizka Zuazuaren hitzaldia.

## Jasangarritasunera bideratutako ekintzez arituko dira ikasleak

Herriko ikastetxeek Agenda 21 programaren barruan jasangarritasuna lantzen dihardute. Martitzenean, ordezkariak liburutegian batuko dira, ikasleen foroan, proposamenei buruz aritzeko. Mugikortasuna lantzen ari dira.

# Aniztasuna ardatz hartuta ospatuko dute Demasa astea

**M.T.** | BERGARA

Kilometroak 2016 Bergara ekimenak Demasa astea antolatu du aniztasuna ardatz dela.

"Bergara, eta Aranzadi Ikastola, jende anitzez osatuta dago. Ideia, jatorri, gaitasun edota gustu ezberdinak dituzten norbanakoek osatzen dute. Aniztasun horren baturak ematen dio indarra Bergarari eta Aranzadi Ikastolari. Horrek egiten gaitu Demasak" diote, eta testuinguru horretan antolatu dute astea.

Eguaztenean, 19:00etan, aniztasunaren eta inklusibitatearen gaineko berbaldia izango da ikastolan, hainbat elkarterekin. Eguenean, berriz, Demasa Kantuan ekimenarekin musikaz beteko dituzte kaleak iluntzean. Gainera, taberna askok jatorri askotariko pintxoak eskainiko dituzte pintxo-potean. Egubakoitzean, hilak 29, kricket erakustaldia eta ikastaroa izango da Seminarioko patioan, arratsaldeko bostetan hasita, Bergarako pakistandar komunitatearen eskutik.

19:00etan, Koldo Zuazo hizkuntzalariak *Euskara zaharra gizarte berrian* berbaldia eskainiko du Irizar jauregian.

Zapatuan emango diote bukaera Demasa asteari, eta, horretarako, umeendako zein gazteendako ekintzak prestatu dituzte. Txikienek antzerkia izango dute, 18:00etan, Aranzadi ikastolan, 4. mailakoen eskutik, eta munduko dantzen erakustaldia DBHko 1. mailakoen eskutik. Marrazkiak eta munduko jolasak ere ez dira faltako. Gazteendako triki-poteoa eta 22:00etan Bertsio gaua gaztetxean.

# Udan ez aspertzeko moduko eskaintza aurkeztu du Udalak

**M.T.** | BERGARA

Udalaren udako eskaintzaren baitan, berrikuntzen artean, Laboratorium museoko kanpamendu teknologikoak daude. Robotikaren inguruko ikastaroa izango da, 11-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Bestalde, *Bibliopiszina,* igerilekuko liburutegi zerbitzua ere bueltan izango da.

### Udaleku irekiak

Jardunek kudeatutako udaleku irekiak ere izango dira uztailean. Aurten, hiru edo lau asteko udalekuak aukeratu daitezke. 2004 eta 2013. urteen bitartean jaiotakoek har dezakete parte, eta izen ematea apirilaren 25etik maiatzaren 13ra bitartean egin behar da liburutegian edo *www.bergara.eus* webgunean.

Aurten, nobedade modura, zaintza zerbitzua ere eskainiko dute, 08:30etik 10:00etara, udalekuen ordutegia hasi aurretik. Izen ematea Jardunen. Udalekuetan begirale gisa lan egin nahi dutenek maiatzaren 10era arte bidali dezakete Jardunera curriculuma.

### Kirol ekintzak

Udako kirol kanpainaren baitan, haur eta gaztetxoentzako 225 plaza eta 10 jarduera eskainiko dituzte; tartean, padel ikastaroa. Kirol desberdinetan txapelketa motzak ere antolatuko dituzte. Helduendako ere ikastaro berriak izango dira (irristaketa, zoru pelbikoa, defentsa pertsonala, jump fit-a eta padela). Izen ematea zabalik dago.


play&say
San Martin Agirre herri eskola



*Uztailean, diberti zaitez ingelesez.*

**3 eta 12 urte bitarteko umeentzako udako ikastaroak**

**DATAK :** Ekainak 27-Uztailak 29
**ORDUTEGIA**: 10:00–13:00. Nahi izanez gero (09:00–10:00) doaneko zaintza zerbitzua.
**LEKUA:** San Martin Agirre eskola
**INFORMAZIO GEHIAGO:** 943 76 26 29 // bergara@playandsay.org

***Anima zaitez!***

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimerak*

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

AITONAK
TABERNA
(Jubilatuen etxea)

Bazkariak
Afariak
Ospakizunak
Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni Iaskurain, 9 behea
BERGARA

# Urbieta eta Arratibel, lehiaketan aurrera

Bergara Hiria pilota txapelketako final-laurdenak irabazi zituzten (22-15) martitzen arratsaldean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA
Bergara Hiria pilota txapelketa aurrera doa. Martitzenean hirugarren final-laurdena jokatu zuten bai promes mailan eta baita nagusien mailan ere. Modu horretan, datorren martitzenean, apirilaren 26an, jokatuko den lehia izango da azken final-laurdena.

Nagusien mailan Peña-Olaizola eta Urbieta-Arratibel ibili ziren nor baino nor gehiago. Maiatzaren 10ean jokatuko den finalerdirako txartela Urbieta-Arratibel bikoteak lortu zuen 22-15 irabazita.

Finalerdia jokatu beharko dute datorren martitzeneko bikote irabazlearen aurka. Muguruza eta Murgiondo bergararrek Errandonea eta Mariezkurrena bikotearen aurka jokatuko dute final-laurdena. Hortik aterako da bigarren bikotea.

Promes mailan ere emaitza bera eginda lortu zuen Anso eta Eskiroz bikoteak final-erdietarako txartela.

**Promes maila**
Promes mailan Alberdi eta Aizpuruak 22-15 galdu zuten Anso eta Eskirozen aurka. Maiatzaren 10eko finalerdia jokatu beharko dute apirilaren 26ko bikote irabazlearen aurka: Zubizarreta-Aizpurua eta Mendi-Thomas.

**Debarroko txapelketa**
Eguaztenean Debarroko txapelketa jokatu zuten bergarako pilotariek, nagusien mailan. Bergarako Muguruzak eta Iñarrak Elgoibarko bikotearen aurka jokatu behar zuen, baina azken horiek ez ziren agertu. Bergarak irabazi zituen puntuak, eta Elgoibarrek 20 euroko izuna jaso zuen.

Eskoriatzak eta Bergarak jokatu zuten bigarren lehia. Eskoriatzako taldeak 22-11 irabazi zion etxeko taldeari –Arizti eta A. Rezusta–.


MARIAREN LAGUNDIA

## Herbeheretarrak Bergaran

KOMUNITATEA GOIENA | MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA
Elkartruke proiektua aurrera eramaten ari gara aurten ere, zazpigarrenez, eta holandarrak geurean ditugu dagoeneko. Datorren igandera arte, DBH 4ko ikasleekin hainbat ekintzatan ibiliko dira; bisita gidatua, irteerak, tailerrak... Esperientzia paregabea denontzat!


PATXI MORENO

## Shotokanekoak Aretxabaletan

Aretxabaletan, Gipuzkoako txapelketan, Aritz Zabalzak 50 kilo azpiko kumite infantil mailan titulua bigarrenez lortu du, eta Naia Perezek ere lehenengo egin du.. Bost hirugarren postu eta bigarren bat ere lortu dute Shotokanekoek.. Nogales eta Zabalza euskal selekzioarekin arituko dira asteburuan Espainiako txapelketan, Murtzian..

NIRE USTEZ


AITZIBER PLAZAOLA

## Atzera goaz, aurrera ez bagoaz

Azken astean bolo-bolo dabilen gai batek alarma gorria piztu du. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2018rako, Gipuzkoako 1400 familiek jasotzen duten AGI-a kenduko duela iragarri du. Eta hau justifikatzeko erabilitako argumentuek, laguntza bera kentzearen tamainako larritasuna azaltzen dute.

Integrazioa ez omen da lortu, "efecto llamada" delakoa sortzen duela... hobe 1400 familia hauek inolako baliabiderik gabe uztea, eta ea Gipuzkoatik joan daitezen lortzen dugun! Eta horrela, integrazioko datu hobeak izango ditugu, etorkin gutxiago.

Bitartean, aberastasun handien gaineko zerga kenduz, ezberdintasuna handitzea da integraziorako planik onena, herritar batzuk jo puntuan jarri eta miseriara kondenatuz.

Eusko Jaurlaritzak, bere aletxoa jarri du norabide berean, inkesta baten bidez etorkinak jo puntuan jarriz. Galderen artean, langabezian dagoen etorkin bat kanporatu beharko litzatekeen planteatuz. Kanporatu!

Atzera goaz aldapan behera eta frenorik gabe. Errauskailu, AHT... eta abarretan diru publikoa xahutzeko inolako konplexurik ez, eta manipulazioaren bidez, pisu guztia etorkinen gain jarri nahi du PNVek. Herritarrok gure bizilagunekin konfrontatuz, etorkinen kontrako neurriak hartzen jarraitzeko.

Ez gaitezen tranpan erori.


Iraitz Ibarzabal eta Isa Camacho
Belaitz Nekazaritza eta Industria Hornigaiak

## "Afizioa ofizio bilakatu eta euskal tradiziodun zerbitzu eguneratua dugu"

Maiatzean urtebete da Belaitz Hornigaiak saltokia zabaldu zutela, "lehen sektoreko ekoizleei bizimodua erraztu guran", Isa Camacho eta Iraitz Ibarzabal ugazabek azpimarratu duten moduan.


Iraitz Ibarzabal eta Isa Camacho, Soraluzeko industrialdean duten saltokian.

"Gizarteak gero eta nahiago ditu baserrietako produktu natural eta ekologikoak, eta gizarte mota horretan sinesten dugulako, zerbitzu ona emanez lehen sektoreari lagundu gura diogu."

Hurbiltasuna eta kalitatea lehengaietan eta, besteak beste, etxerako zerbitzua, mugikortasun arazoak dituzten bezeroendako. Balio erantsi horiek eskaintzen ditu lehen sektorean oinarritutako produktuak saltzen dituen Belaitz saltokiak.

**Nahi berezia antzematen da zuen negozioan...**
Bai. Txindokitik gertuko Gaintza herrian bizi ginenean afizio genuen ortuan eta oiloekin–eta lan egitea. Lana eta familia uztartu beharrak eraginda, afizio hura ofizio bilakatu dugu. Ikusten dugu gizarteak gero eta nahiago dituela baserrietako produktu natural eta ekologikoak, eta guk gizarte mota horretan sinesten dugu eta sektore horri ahalik eta gehien lagundu gura diogu zerbitzu ona ematen. Baserria ere bada barne produktu gordina, eta sortu dugu euskal tradiziodun negozio eguneratua.

**Ze produktu dituzue?**
Ganadu mota guztietarako elikagaiak, baserrian, ortuan eta loretegian lanerako lanabesak, produktu fitosanitarioak, ekologikoak, mintegietako landareak, haziak, jantzi espezializatutakoak, maskotendako produktuak... bertako hornitzaileekin egiten dugu lan (Tolosako Diva) eta baita kanpokoekin ere, bezeroari aniztasuna eskaintzeko.

**Ekingune-ren On Ekin saria eskuratu duzue; horrez gainera, zela joan da lehen urtea?**
Debabarreneko bezeroez gain Debagoienekoak ere gero eta gehiago hasi dira etortzen. Batez ere, gure aniztasun horrengatik.

Erremintak
Pentsuak
Fitosanitarioak
Landareak
BELAITZ
Aparkatzeko leku zabala!
NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA HORNIGAIAK
SORALUZE Mendiola industrialdea www.belaitz.com 943 75 18 81

# Hamaika urteren ostean, ikuskizun handi batekin agurtuko da Musiraka

## Osintxuko dantza taldeak agertokiak lagako ditu, eta bihar gauean eskainiko dute azken emanaldia

**MAITE TXINTXURRETA** | BERGARA

Hamaika urtez martxan egon ostean, Osintxuko Musiraka dantza taldeak agur esango du bihar, zapatua, Bergarako Udal Pilotalekuan eskainiko duten emanaldi bereziarekin, 22:30ean.

"Azkenengo emanaldi potoloa izango da, horrelakorik gehiago ez dugu egingo", azaldu du Amaia Agirrek, sorreratik irakasle aritu denak: "Adinean aurrera goaz eta horrek, neurri batean, mugatu egiten gaitu gauza berriak edo konplikatuak egiteko, eta erabaki genuen azken honekin bukaera ematea gure ibilbide honi".



Musiraka dantza taldeko kideak entseguan. | M.T.

**Ibilbide oparoa**

Azken urteotan, Agirrerekin batera, bere seme Manex Alberdi ere aritu da irakasle. Hain zuzen, zapatuko emanaldirako koreografiak gertatzeaz arduratu dena Alberdi izan da.

"Alde batetik, pena ematen du, baina uste dut ibilbide oso aberatsa izan dugula", dio Agirrek. Musiraka "berezia" izan da, bai bertako kideentzako, baita Osintxurendako ere.

Orain, tarte batez atseden hartuko dute, entseatu ere ez dute egingo. Aurrerantzean, hasiera baten, ez dira agertokietara itzuliko, nahiz eta ez duten baztertzen emanaldi puntualen bat edo beste egitea, baina hori "ikusteko dago", azaldu duenez. Zapatukoa bezalako emanaldi handirik, baina, ez dute egingo.

**Dantza, musika eta poesia**

Hiru diziplina uztartuko ditu zapatuko emanaldi bereziak. Bergarako orkestrako ganbera taldeko kideak musikaz arduratuko dira, Musirakakoak dantzaz eta Uxue Agirrek poemak errezitatuko ditu.

Pilotalekuan eskainiko dituzten dantzei dagokienez, Musirakakoek tradizioa eta berritasuna batuko dituzte, euren estiloan: "Euskal dantzetan dago oinarria, baina, Manexek dantza klasikoa ere egiten duenez, ukitu hori ere izango du", azaldu du Agirrek.

Hain zuzen, Manex Alberdik bakarkako dantza bat egingo du emanaldian, eta hor ikusiko da ikasten dihardduena, eta gainontzeko kideena euskal dantzen eta dantza klasikoaren nahasketa izango da, "originaltasuna bilatuz", beti bezala.

# Arrakastaz doa aurrera 'Apirilean musika'

## Klarinete, zeharkako txirula eta saxofoi kontzertua eta 'Kalean Rock' emanaldia gaur

**M.T.** | BERGARA

Musika eskolak antolatutako *Apirilean musika* egitarauaren baitan, aste osoan zehar ikasleen hainbat emanaldi izan dira herriko areto zein kaleetan. Asteburua ere, noski, ez da gutxiago izango.

Gaur, egubakoitza, klarinete, zeharkako txirula eta saxofoi ikasleek kontzertua eskainiko dute, 18:00etan hasita, Zabalotegi aretoan.

Geroago, 19:30ean, musika kalera aterako da *Kalean Rock!* emanaldiarekin. Ibargarai kalean, Egon tabernaren alboan, musika eskolako bi konbok rock-and-roll estiloko abestiak joko dituzte, inguruko guztiak dantzan jartzeko asmoz.

Domekan ere, hilak 24, izango da herrian musika hitzordurik. Arratsaldeko zazpietan hasita, musika eskolako bi abesbatzek eta orfeoi gazteak *Ahotsen soinua kalera!* emanaldia eskainiko dute. Estilo desberdinetako abestiak kantatuko dituzte, talde bakoitzak bere aldetik lehenik, eta hirurak batuta bukatzeko.

Eguraldi ona bada Irala kalean izango da, eta bestela, Seminarioko karpan.

**Orain artekoarekin pozik**

Bergarako Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek modu positiboan baloratu du orain arte *Apirilean musika* ekimena izaten ari den harrera.

"Oso ondo doa. Jende asko ari da izaten kontzertuetan eta oso pozik gaude horrekin". Ugaldek domekan Udal Pilotalekuan izandako Udal Bandaren kontzertu didaktikoa nabarmendu du, non ume askok parte hartu zuten eta "oso polita" izan zen.

### Ume eta nagusiendako ipuin kontaketa saioak Udal Liburutegian

Belen Azkaratek umeei zuzendutako saioa eskainiko du gaurUdal Liburutegian, 18:00etan: *Altxorraren kutxa ireki nuenean*. Martitzenean, hilak 26, Dorleta Kortazarrek helduendako saioa eskainiko du: *Ezpain gorriak*. 19:30ean izango da kontaketa.

### Larrain dantza ikastarorako izen ematea zabalik dago

Larrain dantza ikastaroa maiatzaren 24tik ekainaren 28ra arte Musika eta Dantza Eskolan. Martitzenetan, sei saio denera, 19:00etatik 20:30era. Izen ematea: 40 euro (35 euro bazkideentzat). Eskolan, 943765780an edo *idazkaritza@bme.telefonica.net* helbidean..

# Bi hitzordu asteburuan kartzela zaharrean

## Gaur, egubakoitza, 'Irakatching' bakarrizketa izango da; etzi, berriz, 'SOStemible' antzezlana

**M.T.** | BERGARA

Gaur, 22:30ean hasita, ingeleseko eskola berezi bilakatuko da kartzela zaharra. Macrea Clarke irlandarrak *Irakatching* umorezko bakarrizketa elebiduna eskainiko du. *Irakatching*ek *epidermolysis bullosa* (tximeleta azala) gaixotasunaren ikerketarako dirua biltzea du helburu. Sarreraren prezioa: 3 euro.

**'SOStemible'**

Domekan, hilak 24, beste hitzordu bat izango da gaztetxean, Txirrinka ekimenaren eta Txiflando antzerki taldearen eskutik. 20:00etan hasiko da, eta sarrera doan izango da. Antzezlan kritikoa dakarte Txiflandokoek, non gaur egungo modernitatearen eta berrikuntzaren gaia jorratzen den, beti ere parodia erabiliaz.

Antzezlan hau Txirrinka Ekimena aurkezteko egingo dute. AHT Gelditzuk eta hainbat eragile sozialek elkarlanean sortu duten egitasmoa da Txirrinka, eta Abiadura Handiko Trena zein bestelako "proiektu suntsitzaileak" borrokatzea du helburu.

Hala, maiatzaren 21etik 22ra bizikleta martxa antolatu dute, Euskal Herriko lau puntutatik aterako dena: Muskiz, Gasteiz, Iruñea eta Hendaia. Gipuzkoa, Bizkai, Nafarroa zein Arabako lurrak zeharkatu ostean, 22an arrama guztiek bat egingo dute Angiozarren, Bergarako lotunean, hain zuzen.

### Bigarren eskuko bizikletak eskuragarri etziko domeka azokan

Etzi, apirilak 24, hilabeteko azken domeka denez, azoka berezia egingo dute beste behin. Beti bezala, bigarren eskuko gauzak erosteko aukera izango da. Oraingoan, baita bizikletak ere (mendikoak, errepidekoak, haurrenak...). 11:00etatik 14:30era 25 postu egongo dira San Martin plazako arkupetan, eguraldi txarraren iragarpena dela eta.

## OHARRAK

**GAZTELEKUA**
Gaur, 18:30: *Eraikileku*. Bihar, 17:30 *Jumpfit* Agorrosinen.

**IKASTAROA**
*Baikortasunez hezi*, 0-3 urteko umeen gurasoentzat. Maiatzak 2, 4, 23, 25. Izen ematea apirilaren 27ra arte: 943779126/ 943779165/*aloidi@bergara.eus*

**ODOL ATERATZEA**
Apirilak 27, eguaztena, 18:00-20:30 anbulatorioan.

**HITZALDIA**
Apiril. 28, 19:30 kultur etxean: kutsad. elektromagnetikoa, banku etikoak, koop. energetikoak, *Oparitu zuhaitz bat*.

**BEHORRA SALMENTAN**
Udalak behorra salmentan. Apirilaren 26ra arte aurkeztu eskaintzak. Baldintzak idazkaritzan eta web orrian.

**BAKAILAO TXAPELKETA**
Pentekosteetan. Izena ematea ap. 27ra arte: 943 77 91 59

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

# Sexuaz normalatasunez aritzeko dator Kilibero

▶ 8 eta 15 urte bitarteko gaztetxo eta nerabeei zuzendutako ekimena da

▶ Joan den urtean izandako arrakasta ikusita antolatu dute bigarrenez

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bigarren urtez antolatu dute Kilibero ekimena Oñatin, gaztetxoei zuzenduta. Gaztelekuan burutuko da aurtengo programa ere, eta 8 eta 15 urte bitarteko gaztetxo eta nerabeendako da.

**Konfiantzan**

Ekimen honen helburua da gazteek naturaltasun osoz hitz egitea sexualitatearen gainean. "Joan den urteko ekimenak harrera oso ona izan zuen eta aurten ere egitea pentsatu dugu. Sexualitatearen gaia konfiantzazko espazio batean berba egitea eta gaztetxo eta nerabeekin normaltasunez jokatzea da helburua", dio Julen Korkostegik, gaztelekuko hezitzaileetako batek.

Aste honetan gaztelekua sexuaren gaineko argazkiekin apaindu dute. "Argazki horiek aitzakia izango dira eztabaidak sortzeko, iritziak entzuteko, galderak egiteko... Zakila eta alua baino gehiago da sexua, eta hori landu gura dugu. Liburuak eta mahai jolasak ere prest ditugu, konfiantza giroan jolastuz hitz egiteko gaia buruz", dio Korkostegik. Horrez gain, gaur, egubakoitza, adibidez, gaztetxo eta nerabeen galderak eta zalantzak argitzeko saioa egingo dute Desirak enpresako aholkulariekin. Bideo emanaldi bat ere egingo dute. "Berez bizpahiru aste iraungo ditu ekimen honek eta gaiak adinen araberako tratamendua izango dute, baina gazteek eskatuz gero, luzatu daiteke", aurreratu du hezitzaile gazteak.




Ume batzuk sexuari buruzko liburu bat eskuartean dutela. | GETTY IMAGES

**ANDER IRIBARREN**
DESIRAK

## "Matxismoari buruzko kezka ere badute gazteek, neska zein mutilek"



T.M.

Oñatiko Sexologia Zerbitzuko aholkularia da Ander Iribarren.

**Nolakoak izan dira zerbitzuaren bi urteak?**

Balorazioa oso positiboa da. Hasieran, lotsagatik edo, jende gutxiago etortzen zen, baina egun gaztetxo asko etortzen dira, natural, gainera, eta hori pozgarria da. 13 eta 15 urtekoak dira etortzen diren gehienak. Bide onetik doa.

**Zer-nolako galderak edo zalantzak izaten dituzte?**

Bakoitzak bereak, noski, baina, orokorrean esanda, orientazio sexualaren gainekoak izaten dira gehienak. Transexualitatearen gaineko kezkak ere agertzen dira, eta lantzen saiatzen gara. Antisorgailuen gaineko galderak ere egiten dizkigute. Matxismoaren gaineko kezka ere agertzen dute, neskek zein mutilek. Berdintasuna ere bada gaietako bat.

# Galartzak eta Biainek gaur omenaldia jasoko dute

O.E. | OÑATI

Intxortako Erresistentzia Egunaren harira, Edurne Galartza eta Regino Biain omenduko ditu Oñatiko EAJk gaur, egubakoitza, "aitzindari, ekintzaile, eragile eta eredugarriak, herriarekin konprometituak eta garai zailetan beren adore eta kemena azaldutakoak" izan zirelako. 19:30ean izango da omenaldia, batzokian, eta GBBko lehendakari Joseba Egibar ere han izango da.

Domekan egingo dute, Elgetan, Intxortako Erresistentzia Eguna, eta Edurne Galartza omenduko dute. Intxortako borrokaldien errekreazioa egingo dute. Regino Biain iazko ekitaldian omendu zuten.



Edurne Galartza. | EAJPNVONATI



Regino Biain. | EAJPNVONATI

# Altuna enpresako bi arduradun zigortuta lan istripu batengatik

O.E. | OÑATI

Zubillaga auzoan dagoen Altuna Hermanos enpresako bi arduradunek urte eta erdiko kartzela zigorra jaso dute 2012ko urtarrilean enpresa horretan izandako lan istripu baten harira. Zuhurtziagabetasun astunak eragindako homizidio delitugatik eta langilearen eskubideen kontra egiteagatik izan dira zigortuak. Kartzelara joan ordez, epaileak diruz zigortu ditu Altuna enpresako produkzio zuzendaria eta tailer arduraduna; 5.040 euroko isuna bakoitzari.

Gertaerak 2012ko urtarrilaren 9an izan ziren. Esmeril harri bat askatu eta kolpeak jasan zituen buruan eta gorputzean Antonio Giraldok, 58 urteko oñatiarrak. Ospitalean bost egun egon ostean hil zen.

Sententziak jasotzen du makina horren abiadura-gailua izorratuta zegoela eta fabrikatzaileek baimendutako abiadura baino azkarrago hasi zela martxan. Sententziak gehitzen du matentze-lanak ez zirelako ondo egiten gertatu zela hori.

Epaiaren arabera, bi langile horiek debekatuta izango dute hiru urtez lanbide horretan aritzea.



Anbulatorioko langile eta ordezkariak eguen eguerdian. | MIREIA BIKUÑA

# Lan onaren ziurtagiria jaso du Oñatiko osasun zerbitzuak

O.E. | OÑATI

Oñatiko osasun zentroak Joint Commission International-en ziurtagiria lortu du. Martxoaren 16an eta 17an erakunde horretako ordezkariak izan ziren Oñatiko anbulatorioan ebaluazio txostena egiten, eta han jasotzen ziren eskaera guztiak bete ditu Oñatiko osasun zentroak. Ziurtagiria lortzen duen Osakidetzako lehen zentroa da Oñatikoa.

Debagoieneko ospitaleko gerente Andoni Arcelayk adierazi duen moduan, ebaluazio zorrotza pasa du Oñatiko anbulatorioak: "Hiru esparru izan dituzte kontuan: arretaren kalitatea hobetzea, gaixoa izatea ardatz nagusia eta gaixoaren segurtasuna lantzea, arriskua txikitzeko. Oñatiko osasun zentroko profesional guztiek parte hartu dute ebaluazio honetan". Eta guztiak zoriondu ditu Artzelaik, ziurtagiria lortu dutelako eta talde lana egin dutelako. "Sari hau urte askotan egonkortuta dagoen talde baten ondorioa ere bada", gehitu du.

Atzo, eguena, eman zuten ziurtagiri honen berri osasun zentroan, eta, hango langileen ordezkariak ez ezik, Debakoieneko Ospitaleko ordezkariak ere bazeuden.

Bailarako ospitaleetan eta beste osasun zentro batzuetan ere egingo dute ebaluazioa, ekainetik udazkenera bitartean.

# 200 dantzari elkartuko dira hilaren 30ean Oñatin, bailarako Dantzari Egunean

IRATI ELORTONDO | OÑATI

Apirilaren 30ean egingo da, Oñatin, Debagoieneko Dantzari Eguna, eta Oñatz dantza taldeak prest du egitaraua.

Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak, Aretxabaletako Leizarra, Antzuolako Oinarin eta Oñatiko Oñatz dantza taldeak elkartuko dira Oñatin. Bailarako antolakuntzako kideak hilabete lehenago hasi ziren bilerak egiten eguna antolatzeko. "Azken entsegu orokorra joan den astean egin genuen. Aurten Foruen plazan bost talde bilduko garenez, plazan nola antolatu ere aurreikusi genuen", adierazi du Oñatz dantza taldeko Iñigo Murgiondok.

Kalejiran hasiko dute eguna eta 12:00etan alardea izango da.

# Gobernuaren 'planifikaziorik eza' berretsi du EAJk

O.E. | OÑATI

Oñatiko EAJk berretsi egin du Udal Gobernuaren "planifikaziorik eza" eta dio horren adibidea dela onartutako inbertsio batzuk 2017ra pasa behar izatea. Bestalde, gastu arrunta "igo" egin delako eta soberakinek "beheranzko eboluzioa" dutelako ere kezkatuta daudela adierazi dute jeltzaleek eta proposatzen diote Udal Gobernuari euren "kudeaketa ereduko printzipioei jarraitzea".



Martitzenean egindako elkartasun martxa. | AMAIA TXINTXURRETA

# Ekuadorrera laguntza bidali gura dute

Elkartasun azoka antolatu du Acesmak biharko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Zapatuan Ekuadorren izan zen lurrikarak sortutako kalteengatik elkartasuna adierazi gura izan diete oñatiarrek herrialde horretako herritarrei. Hala, Acesma elkarteak deituta, martitzenean martxa bat egin zuten herriko kaleetan zehar, eta biharko, zapatua, elkartasun azoka dute antolatuta, besteak beste.

Hala, bihar eguerditik aurrera elkartasun azoka egingo dute Foruen plazan. "Ekuatoriarren kolektiboak iniziatiba hartu du sentsibilizazio kanpaina bat egiteko herriko plazan. Produktu tipikoak salduko dira, euren herrialdeko jakiak prestatuko dituzte... Helburua izango da dirua jasotzea eta egun horretan egingo diren ekarpen guztiak hartzea, enbaxadak emandako kontu korrontean sartzeko", adierazi du Acesma elkarteko Ibis Rodriguezek. Hauxe da Santander banketxean zabaldu duen kontua: ES1600495132422516270535.

**Ekuadortarra Oñatin**

Martitzenean egin zuten martxan ere horixe eskatu zuten, lagundu gura duenak bankuan dirua sartuta lagundu dezakeela.

Ibarratik abiatu zen martitzen iluntzean elkartasun martxa, eta, Kale Zaharrean eta Kale Barrian zehar ibili ostean, Foruen plazan bukatu zen. Ekuadorko banderak hartu, soinean lazo beltza jarri eta globo koloretsuekin egin zuten martxa, Acesma elkarteak deituta. Tartean zegoen Oñatin bizi den David Verganza ekuadortarra. "Nire familia, momentuz, ez dago oso kaltetuta, baina jende asko gelditu da etxebizitza gabe, errepideak moztuta daude, ez dago edateko urik... Eskatu nahi diet oñatiar guztiei eta Debagoieneko herritarrei gure herria lagundu dezatela, momentu honetan beharra du eta. Ekuadortar guztiok asko eskertuko dizuegu", azaldu zuen martxaren bukaeran.

**Lurrikara**

Apirilaren 16an astindu zuen Ekuador lurrikara batek eta 350 hildako eta 2.000 zauritu baino gehiago utzi ditu. Acesma elkarteak herritar guztiei zabaldu die deia biharko azokara joateko eta banketxean zabaldutako kontuan diru ekarpena egiteko.

# Selma Huxley omenduko dute gaur unibertsitatean

O.E. | OÑATI

Selma Huxleyk omenaldia jasoko du gaur, egubakoitza, Sancti Spiritus unibertsitatean, Euskal Herriko eta Kanadako historiaren ezagutzan eginiko lan izugarria eskertzeko. Bere semea, Michael Barkham, etorriko da ekitaldira, eta hitzaldia egingo du, 19:00etan, euskaldun itsasgizonek Terranovan egiten zuten lanari buruz. Selma Huxleyk Oñatiko artxiboan dauden dokumentuak ikertuz jakin izan da euskaldunak eta itsasoa lotzen dituen historiaren zati handi bat. Esaterako, berak aurkitu zituen Oñatin XVI. mendean Kanadan hondoratu zen San Juan baleontzi euskaldunaren gaineko dokumentuak, egun Albaola itsas kultur faktorian egiten ari diren erreplikaren jatorrizko itsasontzia. Oñatiko Udalak laster argitaratuko duen historia genero ikuspegitik ikerketa bekak Selma Huxley izena izango du, gainera.

Domekan, bisita gidatu berezia egingo dute unibertsitateko artxibora, 11:00etan. Turismo bulegoan eman behar da izena.

## NIRE USTEZ


MIEL GURIDI

### Etengabeko formakuntza, euskaraz?

Ikaragarria da lan-munduan, baita bestela ere, zelako abailan aldatzen diren gauzak. Sistemak, arauak, teknologia… etengabe ari dira aldatzen eta horretara moldatu eta egokitu beharra dugu. Ikaste-garaian jasotako formazioa ez da nahikoa izaten, eta bizitzak aurrera egin ahala ikasten jarraitu beharra dago, lanok azkarrago eta eraginkorrago egin nahi baditugu behintzat!

Bestalde, urteak dira hezkuntzak ere euskararen aldeko apustua egin zuela, gaur egun lan-mundura hurbiltzen ari diren gazteek ikasketa prozesua euskaraz egin dute, eta beste hizkuntza batzuk menderatzen badituzte ere, euskara izan da ikasteko erabili duten oinarrizko hizkuntza. Horregatik da harrigarria gaur egun lan-mundura begira eskaintzen den etengabeko formakuntzan zein ikastaro gutxi eskaintzen diren euskaraz. Eta are harrigarriagoa, gure inguruko administrazioak eta enpresa-munduak azken hiru hamarkadetan egin duten euskararen aldeko apustua ikusita. Adibide gisa IVAPek, 2016an egin duen formakuntza-ekintzen katalogoa.

Katalogo horretan 178 ikastaro eskaintzen dira, horietako 92 (% 52) euskaraz. 92 ikastaro horietatik 37 (% 40) euskara-maila hobetzera bideratutakoak dira, eta beste 33 (% 36)hizkuntzaren inguruko gaiak lantzeko dira. Eskainitako guztiak kontuan hartzen baditugu, 178 ikastarotik, 22 (% 12) dira euskara ikasteko edo euskara erabiltzeko ez den gairen bat euskaraz lantzera bideratutakoak.

Hala ere, ez direla gutxi irudituko zaie batzuei, baina gure inguruko udaletako langile gehienek euskara dutela lan-hizkuntza kontuan hartuta, datua pobre samarra iruditzen zait.

# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots datoz bihar, zapatua

O.E. | OÑATI

Ikasleen Eguna egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, eta Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar. Aurten ere Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak gonbidatu dituzte eta *Amalur* ikuskizunaren bi saio egingo dituzte, herriko ume guztiendako, Zubikoa kiroldegian, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrera asko salduta daude dagoeneko, baina oraindik batzuk gelditzen dira, saio bietarako, eta Txantxiku ikastolako idazkaritzan, bulegoan, eros daitezke zazpi eurotan.

**Bizikleta martxa**

Gaurko eta biharko ospakizunak egun hauetan egiten ari diren Ikastolaren Astearen barruan sartzen dira. Antzerkia, *Sukaldatuz* ekimena, jolasak, irakurketa, Saharako umeendako eskola material bilketa... eta gehiago egin dute aste honetan. Gaur, ikasleen arteko joko eta jolasak izango dira, adibidez, eta domekan, bizikleta martxa egingo dute, Elorregiraino gaztetxoek (11:30ean Foruen plazatik) eta Santxolopetegiraino txikienek (12:00etan).

# Bost bilera ireki egingo ditu Sarek herritarrekin

O.E. | OÑATI

Oñatiko Sarek maila nazionalean bultzatzen ari den *Hartu Trena!* ekimenaren berri eman gura die, zuzenean, herritarrei, eta bilerak egingo ditu datozen egunetan. Gura dute Sareren helburu eta asmoen gainean solasalditxo bat izatea.

**Egutegia**

Bilera hauek mokadutxo bat hartuaz egingo dira, eta herritar guztiei zuzenduta daude. Guztira bost egingo dituzte, datorren astean hasi eta maiatzaren 4ra bitartean. Izango dira: apirilaren 26an eta 27an, 19:00etatik 20:00etara; apirilaren 30ean, 11:00etatik 12:00etara; maiatzaren 3an eta 4an, 19:00etatik 20:00etara.

Bilera guztiak Sarek Eltzian duen egoitzan izango dira, eta, aurretik eurekin harremanetan jarri eta hartutako aukeraren berri emateko, helbide honetara bidali behar da mezua: *sareonati@gmail.com*.

Oñatiko Sare herri mugimendua indartzeko bideak ere landuko dituzte bileretan.

### Yllanaren 'The GagFather' antzezlana ikusteko sarrerak salgai daude

Yllana taldeak *The GagFather* antzezlana ekarriko du hilaren 29an, 19:30ean, Santa Ana aretora. Zinema beltzaren omenaldia egin gura du Yllanak antzezlan honekin eta gaizkile despistatuen eta polizia burugabeen arteko istorio bat kontatuko dute, umorez. Sarrerak hamar eurotan daude salgai *www.bibe.me* helbidean.

### Antxon magoa dator domeka iluntzean Pako tabernara

Musika kontzertuak antolatu ohi dituzte Pako tabernan, baina aste honetan Antxon magoa etorriko da. Ume zein helduendako magia ikuskizuna egingo du gonbidatuak. Baina ikuskizuna ohikoa ez izan arren, tokia, eguna eta ordua ez dira aldatzen. Domekan izango da, Pako tabernan, 19:30ean.

### Juan Carlos Irizarrek elkartasun kontzertua egingo du domekan

Juan Carlos Irizar musikariak domekan ekingo dio, Oñatin, osasun mentalari loturiko proiektu baten aldeko (*We Are Like You*) bere bigarren birari. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hainbat herritan emanaldiak eskainiko ditu Irizarrek. Domekakoa Santa Anan izango da, 19:30ean, eta Ganbara Txiki izango du alboan.

### Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria antolatu dute

Mahaiaren bueltan elkartu eta elkarrekin ondo pasatzeko eta kontuak esateko plana egin dute Oñatin bizi diren aretxabaletarrek. Maiatzaren 7rako antolatu dute bazkaria, Iturritxo jatetxean, 15:00etan. Komeni da, baina, izena aurrez ematea. Horretarako bideak dira: Miren 648 191 037 eta Rosa 678 215 948

### Gaztelekuan egingo dira, bihar, aurtengo Gold Sprintak

Arrabol gaineko bizikletan 500 metro ahalik eta denbora laburrenean osatu beharko dute parte-hartzaileek, 20:00etan. Sailkatutakoak kanporaketa batean sartuko dira eta aliritzira antolaturiko buruz buruko kanporaketak egingo dituzte. Finalera bi iritsiko dira eta mila metroko proba gainditu beharko dute.

# Dena prest dute astebete barru jokatuko den Aloñako XII. igoerarako

## Maiatzaren 1ean izango da eta bi egun lehenago, egubakoitzean, Buetraitzeko lasterketa egingo dute

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Dagoeneko ez dago lekurik izena emateko eta 318 lagun daude izena emanda aurtengo Aloñako igoerarako. 25 emakume arituko dira XII. edizioan. 91 oñatiarrek eman dute izena eta horietatik 7 dira emakumeak.

Irabazteko faboritoei dagokienez, gizonezkoetan bi dira izen nagusiak: alde batetik, lasterketa hori lau aldiz irabazi duen Walter Bezerra eta, bestetik, Iban Letamendi oñatiarra. Azken hori momentu onean iritsiko da lasterketara.

Emakumezkoetan, berriz, Nere Amilibia aiarra da faborito nagusia. Lehengo ibilbide motzarekin bi aldiz irabazi du lasterketa eta ibilbide luzea ere egokia da berarentzat, Iban Isastik, antolatzaileetako batek, adierazi duenez.

Bost anoa-gune izango dituzte: Urtiagainen, Aloñan, Eskistan, Aginagara bidean eta zaldi tokian. Bukaeran ere izango dute bat. Bestalde, Buetraitzeko igoera bertikala egingo dute aurten bigarren aldiz. Gauez izango da, 22:00etan hasita.

64 lagunek eman dute izena lasterketa horretarako, horietako 14 oñatiarrak. Guztira, 8 emakumek parte hartuko dute igoera honetan eta horietatik 3 izango dira bertakoak.

Gizonezkoetan Iñigo Lariz da faboritoa, orain dela bi urte hark irabazi zuen eta. Hala ere, Julen Aranguena gaztea ere maila onean dabilela adierazi du Isastik. Emakumezkoetan, berriz, Aitziber Ibarbia izango da izen nagusia.



Korrikalariak Aloñara igotzen. | ARITZ GORDO

### Eskerrak

Iban Isastik, antolakuntzaren izenean, eskerrak eman nahi izan dizkie Arrikrutzeko Kobei eta Oñatiko Udalari, babesle izateagatik. Horrez gain, Gurutze Gorriaren laguntza ere goraipatu nahi izan du. "Haiei esker egin ahal izaten dugu lasterketa hau", nabarmendu du. Eta aurten herriko komertzio txikiek egin duten ekarpena era ez du ahaztu nahi izan.

Azkenik, herritarrei dei egin die Isastik, ikustera joan eta korrikalariei animoak eman diezaieten.

### EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**19:00** Pintxo-potea Arantzazun, trikitilariez girotuta

**22:00** Buetraitzeko igoera bertikala

**ZAPATUA**

**08:00** Aloñako igoerako ibilbidea ezagutzeko martxa

**DOMEKA**

**09:00** Aloñako igoera

**10:30** Aloña Txiki-traila. Haurrendako lasterketatxoa

---

**Asier Osinaga** | Antxintxiketan kirol elkartea

# "Ezin genuen ziurtatu azken urteetako maila izango zuenik lasterketak"

## Corpus bezperako nazioarteko lasterketa antolatzeko babesle bila hasiko da Antxintxiketan

OIHANA ELORTZA | OÑATI



Asier Osinaga. | GOIENA

Antxintxiketan kirol elkarteak astean jakinarazi du bertan behera gelditu dela Corpus bezperako aurtengo nazioarteko lasterketa; hamalaugarrena izango zen. Elkarteko kide Asier Osinagak azaldu ditu zergatiak.

**Kostatako erabakia izango zen, ala?**

Bai. Buelta asko eman dizkiogu gaiari, baina ikusi dugu ezin genuela ziurtatu aurtengo lasterketa aurrekoen maila berekoa izango zenik, eta horregatik erabaki dugu aurten ez antolatzea. Korrikalariek ere pena hartu dute, baina uste dut geuri eman digula minik handiena erabaki honek.

**Zerk eraman zaituzte erabaki hori hartzera?**

Hiru lasterketa antolatzea lana da, eta horri gehitu zaio baliabide ekonomiko berrien premia genuela; gainkarga handia zen hori guretako. Udalak lagundu digu, baina babesle ekonomiko berriak lortu behar ditugu eta konponbidea bilatzen saiatu behar gara orain, etorkizuneko lasterketei begira.

**Bi urtean behin antolatzeko aukera aztertu duzue?**

Aukera bat da, baina ez da hori gure asmoa; hori ez da guk gurako genukeen formula. Guk urtero antolatzen jarraitu gura dugu, azken urteetako mailari eutsiz. Gainera, gurako genuke berriz Espainiako edo Euskal Herriko txapelketen egutegian sartzea Oñatiko lasterketa hau.

**Korrikalariak lotuta zenituzten?**

Erdiak inguru bai, baina ikusita lasterketa bermatzeko arazoak genituela, ez zitzaigun ondo iruditzen eurei bezperan esatea lasterketa ez zela egingo. Eurek euren egutegiak eginda izaten dituzte, eta zenbat eta lehenago jakin horrelako erabakiak, hobeto.

**Noiz hasiko zarete babesle berriak bilatzen?**

Datorren hilean, maiatzaren hasieran, berriz elkartuko gara elkarteko kideok –25 gara–, eta finantzaketa berriak topatzen eta antolatzen hasiko gara.

**Arrasate-Oñati eta San Silvestre lasterketei eusten diezue, ezta?**

Bai, bai. Bi horiek guk antolatuko ditugu auren ere, Torreauzokoaz (uztailak 3) Abixaran arduratuko da aurten. Bai Arrasate-Oñatik eta baita urteko azken egunekoak ere izaera herrikoia dute, ez dira Corpus bezperakoa modukoa. Antolatzeak lana du, bai, baina beste modu batean egiten da. Bi horiek geuk antolatuko ditugu aurten ere. Arrasate-Oñati urriaren 8an izango da eta aurten denbora luzeagoa izango dugu antolatzeko.

**"Espainiako edo Euskal Herriko txapelketetan sartzea nahi dugu"**

**"Babesle berri bila eta antolaketa lantzen hasiko gara maiatzean"**

---



ALOÑA MENDI

## Unai Gartzia, Gipuzkoako onena

Unai Gartzia da Gipuzkoako karate txapeldun berria infantil mailan, kumitean. Aretxabaletan izandako Gipuzkoa mailako txapelketan lortu du domina Gartziak. Baina berak ez ezik, txapelketan parte hartu zuten Aloña Mendiko gainerako gaztetxoek ere emaitza onak lortu zituzten kumitean, esaterako: Mikel Juradok, Danel Casaisek, Alazne eta Mikel Untzurruntzagak eta Joakin Egañak.

## Garagardo Festa, uztailaren 14tik 17ra, plazan

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Aloña Mendi elkartea hasi da X. Garagardo Festa antolatzen, eta Udalak eman du baimena karpa plaza ondoko jolasgunean kokatzeko.

Bi helburu ditu azoka honek: batetik, elkarteko sail ezberdinen arteko elkarlana sustatzea eta, bestetik, elkartearen behar ekonomikoetarako finantzazio iturri izatea.

Aurten hamargarren edizioa izanik, ekintza bereziren bat egiteko asmoa azaldu du kirol elkarteak, baina oraindik ez dute ezer zehaztu. Azaldu dute datozen asteetan erabakiko dutela zer egin eta emango dutela horren berri.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA
ARKITEKTOAK
Era guztietako proiektu arkitektonikoak
Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe
Lazarraga Kalea 3, behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)
661 09 35 00
645 70 17 52
BULEGOKO ORDUTEGIA:
Astelehena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00
Asteartea
Asteazkena
15:00-19:00

# Unai Elkoro: "Tanatorioa industria gunean jartzea da gure asmoa"

▸ Komentuko lorategia maiatzean zabalduko dutela argitu du

▸ Goiena telebistako 'Harira' saioan esan ditu horiek eta gehiago

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen martitzenean Aretxabaletako alkate Unai Elkoro, eta, beste kontu batzuen artean, aipatu zuen hondakinak biltzeko sistemaren aldaketa irailean izango dela eta tanatorioa jarriko dutela herrian.

**Edukiontziak irailerako**

Inoiz politikan jardun gabekoa, hamar hilabete egin ditu alkate lanetan eta "esperientzia polita eta aberasgarria" izaten dabilela esan zuen. Era berean, udalbatzako kideen artean "giro ona" dutela zioen. Hori horrela, hondakinak biltzeko sistemaren aldaketak ez du zalapartarik sortu herrian. Ekainerako iragarrita egon arren, irailean izango da hori, eta atez atekoak orain arte emandako emaitzei –otsailean %83ko gaikako bilketa hondakin osoarekiko– eutsi gurako lioke: "Jendea kontzientziatuta badago zelan banatu eta nora bota behar duen, orain erosoagoa izango da; hortaz, jendea boikoteatzera ez badoa, behintzat, ez dut ikusten arazorik datu horren bueltan ibiltzeko".

Aurreko agintaldian ika-mika eragin zuen kontu bat tanatorioa izan zen. Nafarroa kalean jarri gura izan zuten, baina bizilagunak aurka azaldu ziren eta Udalak ez zion jarduera lizentziarik eman. Epaitegiak, baina, egiteko baimena eta lizentzia eman dio orain enpresari. Konponbidea topatu nahian kontuari, Nafarroa kalean jarri beharrean beste kokaleku baten bila ibili da Udala: "Negoziatzen gabiltza jabearekin lokal egoki baten bila. Industria gunean ikusi dugu bat eta uste dugu aste pare batean lotuta izatea kontua", argitu zuen Elkorok.

**Komentua zabalik maiatzean**

Bestetik, Udalak hainbat lokal ditu hutsik herrian; beste batzuen artean, agustindarren komentua eta zaharren egoitza izandakoa. "Nobio asko" dituztela biek jakinarazi zuen, baina oraindik ez dutela erabaki zer egin batarekin zein bestearekin. Hala ere, komentua laster erakutsiko diete herritarrei. "Maiatzean lorategia zabalduko dugu ordutegi batekin. Horma, oraingoz, ez dugu botako, aurrerago izango da", zioen, eta eliza ere maiatzean zabalduko dute Almen ikastetxearen 50. urteurreneko erakusketa jartzeko.

Nobioen artean osasun etxea eta udaletxea daude: "Aspaldian dabil lekualdatze eske osasun etxea". Udaletxea kokatuta dagoen jauregia bera ere ez dela batere egokia uste du: "Funtzionaltasunari dagokionez desastre hutsa da". Hala ere, argi utzi zuen inbertsioetarako "gaitasunik ez" duela Udalak orain, eta "aldaketak finkatuta uztea" dela kontua gerora begira.



Unai Elkoro alkatea Goiena telebistan. | MIRARI ALTUBE

Bestetik, kuartelarekin zer egin hausnartzeko asmoa ere badute, "egoera eskasean" dagoelako: "Eraikinaren egiturak ez ditu betetzen gutxienekoak; hortaz, ikusi egin behar zer egingo den… Botatzea ere pentsa genezake, han egiten diren jarduerak non kokatu badugulako".

Herritar batek gazteen lokalen gaineko araudia egiteko asmorik dagoen galdetu zion, eta, baietzik ez esan arren, gazteekin, horien gurasoekin eta lokalen jabeekin elkartzeko asmoa dutela argitu zuen, eta onartu gazteendako Udalak ez duela lokalik orain.

**Kiroldegiko abonatuek gora**

Ibarra kiroldegiaren emaitzekin, bestetik, pozik agertu zen, abonatu kopuruak gora egin duelako: "Egun 2.600 pasatxo dira, iazko irailean baino 400 gehiago. Eta horietatik ia 2.000 dira aretxabaletarrak". Eta abonatuen eskaerarik zabalduena ordutegia luzatzea dela esan zuen. Kiroldegiaren kudeaketa ereduaren gaineko hausnarketarekin hasita daude, datorren urterako erabakita izan beharko dutelako Udalak jarraitu kudeatzen orain arteko legez edo ez.

Kiroldegi aurreko zelaiari dagokionez, kirol erabilera izango duela jakinarazi zuen. Skate parkea egiteko asmoa berretsi zuen, eta UDAko kideek ere badutela eskaeraren bat eginda gaineratu: "Beste futbol zelai bat gurako lukete, eta guztion artean eman beharko diogu forma zelai horri".

**Azbeko biribilgunea**

Txarapea ibilbidean bukatu barik dauden bi etxebizitza blokeekin zer gertatuko den jakin gura izan zuen beste herritar batek: "Jabea Bruesa da oraindik eta poliki-poliki likidatzen joateko asmoa dute. Udalak ezin ditu bere gain hartu bloke horiek, baina presionatzen jarraituko dugu". Bestetik, Txarapearen beheko partean dagoen bidegorria kiroldegiraino luzatzeko asmoa dagoela berretsi zuen: "Proiektua aurten egingo da, eta, dirua badago, datorren urtean obra".

Azbe lantegi inguruari dagokionez, ostera, biribilgunearen diseinua eginda duela Foru Aldundiak aurreratu zuen, baina noiz egingo den ez dakiela. Azbe eraikinean egin gura den supermerkatuaren lanekin batera egin gurako luke alkateak.

Herritarrek proposamenak ere egin zizkioten; besteak beste, goitibehera lasterketa antolatzea, Santa Kurtz kaleko eserlekuak berritzea, eta arrapala gehiago jartzea espaloietan gurpil aulkiak pasatzeko.

# Herrirako zer gura duten hausnartzen dabiltza gazteak

Gazte Ekimenak gertatutako galdetegia 152 lagunek erantzun dute eta gaur bigarren bilera egingo dute taldeak osatu eta lanean jarraitzeko



Joan den egubakoitzean udaletxe zaharrean elkartu ziren gazteak. | GAZTE EKIMENA

**M.A.** | ARETXABALETA

Aretxabaletako Gazte Ekimeneko kideak hausnarketa prozesuan murgilduta daude. Orain dela egun batzuk galdera bota zieten herriko gazteei: *Zer gura duzu Aretxabaletarako?* Erantzunak jaso eta horiek aztertu zituzten guztien artean joan den egubakoitzean, baita aurrera begirako lehen pausoak eman ere.

**Espazio beharra**

Galdetegia aitzakia hartuta, 40 bat gazte elkartu ziren herrirako zer gura duten zehazten hasteko. Garrantzitsutzat jo dute galdetegia bete duten gazteen kopurua: 152, hain zuzen ere. Herrian espazio baten beharra dutela dioten gazteak ere asko izan dira, %76,31.

Era berean, beste hainbatek esan dute parte-hartzea handiagoa izatea gurako luketela. "Datuok aurkeztu bitartean beste hainbat gai interesgarriren gainean ere hausnartu genuen egubakoitzean elkartutakook; besteak beste, etxebizitza, emantzipazioa eta lan merkatuaren egoera gaur egun", jakinarazi dute Gazte Ekimeneko kideek.

**Lantaldeak eratzen**

Beste kontu batzuk ere izan zituzten berbetarako gai: "Parte hartzearen inguruan luze mintzatu ginen, eta gazte mugimendua indartzeko gogoa eta beharra erakutsi zuten bertaratuek", azaldu dute, eta gaineratu: "Horretarako, ezinbesteko ikusten dugu nork bere intereseko esparruan jardutea". Herrian duten espazio beharra ere aztertu zuten: "Horren harira, gaztetxearen kontuen inguruen egin genuen berba, eta udaletxe zaharrean elkartutako guztiok bat etorri ginen horrekin".

Hori horrela, lantalde ezberdinak sortzea interesgarria izango litzatekeela pentsatu zuten, eta hainbat aipatu zituzten: "Aisialdia, euskara, etxebizitza, jaien antolaketa eta ekintza zehatzen antolaketa, besteak beste".

Horren guztiaren gainean berba egin eta forma ematen hasteko eta gaztetxearen prozesuari hasiera emateko, beste bilera bat egingo dute gaur, apirilak 22, 18:00etan, udaletxe zaharrean: "Anima zaitezte, gazteok, etorri eta parte hartu gurekin batera".

# Barrea protagonista gaur, 'Monolokos 2' saioari esker

## Iñigo Salinero eta Alazne Etxebarria aktore eta bakarrizketari ezagunak izango dira Arkupen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Azken hilabeteotan bakarrizketari egin diote lekua Arkupen eta gaur, egubakoitza, ere goi mailako saioa eskainiko dute *Monolokos 2* izenarekin, 20:00etan (sarrera, 4 euro).

**Aktore ezagunak**

Iñigo Salinero eta Alazne Etxeberria bakarlarien kontakizunek barre algarak eragingo dituzte Arkupera hurreratutakoen artean. Halaxe diote eurek: "Ikuskizun azkarra, freskoa, etenik gabea… Gimnasioak, kotilleoa, txinatar dendak, gizon eta emakumeen arteko harremanak edota etxeko animaliak aitzaki bihurtzen dira *Stand up comedy* estiloa taularatzeko, baina oraingo honetan gure erara". Aktore ondo ezagunak dira, gainera, biak *Allí abajo* telesailean dabiltza eta.

Bakarrizketen aldeko apustua egin du Udaleko Kultura Sailak azken hilabeteotan, eta pozik dago herritarren aldetik izan duen erantzunarekin.



Iñigo Salinero eta Alazne Etxeberria. | TTIPIA

**'Inun' bakarlaria, martitzenean**

Martitzenean, hilaren 26an, ostera, *Inun* bakarlaria izango da Arkupen, 19:30ean (sarrera, 4 euro). Mikel Inuntziaga kantagilea era askotako proiektuetan murgilduta ibili izan da hainbat musikarirekin elkarlanean. Eta 2014ko maiatzean pop estiloko *Berreginez* izeneko lehen diskoa kaleratu zuen bakarlari gisa.

Ordutik Euskal Herriko hainbat tokitan egin ditu zuzenekoak musikari bizkaitarrak, eta aurten bigarren diskoa kaleratzeko asmoa agertu du besteak beste Miren Agur Meabe, Itxaro Borda, Bernardo Atxaga eta Karmele Igartua aretxabaletarraren poemak musikatuta. Oraingoan Aretxabaletara gerturatuko da gitarra aldean hartuta.



GURABARRI GURASO ELKARTEA

# Zientzia Astetik Literatura Astera

Zientzia Astea egin dute Kurtzebarri eskolako ikasleek Gurabarri guraso elkarteak antolatuta. Zientzia txokoa gertatu eta esperimentu tailerrak izan dituzte besteak beste, eta astea bukatzeko Donostiako Eureka! zientzia museoan izan dira 100 bat lagun.

Gaur, ostera, 25. Literatura Astea hasi dute, Castillo Suarez idazlea gonbidatu izanik. Irakurketa saioak, ipuin kateatuak eta beste ekitaldi mordoa egingo dituzte, eta hilaren 28an bukatu irakurketa maratoiarekin.

# 23 gona baietz!

OMUNITATEA GOIENA | LEIZARRA MUSIKA ESKOLA | ARETXABALETA

*Zorion atxabaltar guztioi!*
*erronka batekin gatoz;*
*dantzarientzat gonak josteko*
*jostunak bilatu asmoz.*
*Ez gaude oso aberats diruz*
*baina bai indar ta gogoz*
*gure herrian borondatea,*
*bada ziurtasun osoz.*

*Harrotasunez ikus ditzagun*
*plazaratzen direnean*
*tela politak hartu ditugu*
*gona bihurtu nahiean.*
*Josten dakizu? Zatoz gugana!*
*bada zerbait ordainean,*
*23 gona baietz! josi*
*guztiok elkarlanean.*

Izena emateko musika eskolara jo (943-08 10 01).



Leizarra musika eskolako dantzariak. | IMANOL SORIANO

# Karate txapelketa polita egin dute etxekoek

M.A. | ARETXABALETA

80 karateka baino gehiago elkartu ziren domekan, Ibarra kiroldegian Gipuzkoako txapelketa jokatzeko. Kimuak, haurrak eta kadeteak izan ziren nor baino nor gehiago eta jendetza elkartu zen horien saioak ikusteko eta txalotzeko.

Aretxabaletako kirolariek txapelketa polita egin dute, eta pozik ziren bukaeran. Alex Benitezek garaipena lortu zuen kumitean (70 kiloz azpikoetan), baita Eneko Calvok ere (70 kiloz gainekoetan).

Haurren mailan (kata) Eneko Rodriguezek bi kanporaketa gainditu zituen: "Joanna Perezek, ostera, ezin izan du. Podiumean egotera ohitu gaitu eta oraingoan ezin izan da", adierazi zuen Odilo Vazquez entrenatzaileak. Kumite modalitatean (50 kiloz gainekoetan), baina, bigarren geratu zen Perez.



Herriko karatekak. | ODILO VAZQUEZ

UDAren 70. urteurrena aitzakia hartuta ekarri zuten Gipuzkoako txapelketa herrira: "Oso ondo joan da guztia, izugarrizko laguntza izan dugu UDAko kideen zein gurasoen aldetik; egin duten lanak ez du parekorik!", zioen Vazquezek pozik.

### Elikadura autoerregulatuaren gaineko hitzaldia

Kuku Mikuk gonbidatuta, Sabeletik Mundura elkarteko kideek *Baby Led Weaning* edo elikadura autoerregulatuaren gaineko argibideak –pure eta ahirik gabeko elikadura, segurtasun neurriak…– emango dituzte gaur, egubakoitza, 18:00etan, Kuku Mikuren egoitzan. Elikadura osagarria sartzeko fasean dauden haurren gurasoei dago zuzendua hitzaldia.

### D-Skargak girotuko du Erain Debagoienaren sinadura batzea

Apirileko egubakoitz guztietan legez, ekaineko galdeketa babesteko sinadurak batuko ditu Erain Debagoienak, Durana kalean, Pagaldaixena inguruan. Hori girotzeko, herriko D-Skarga taldea izango dute lagun gaur, egubakoitza.

Bestetik, eguaztenetan ere batzen dituzte sinadurak, pintxo-potearekin bat eginda.

### 'Altamira' eta 'Kung Fu Panda 2' dira aste bukaerako filmak

Helduek *Altamira* (Espainia, 2016, 97 min.) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:30). Kantabriako Altamira kobazuloaren deskubrimendua du oinarritzat Hugh Hudsonek zuzendutako filmak.

Umeek, ostera, *Kung Fu Panda 2* izango dute bihar eta etzi (17:00).

### 'Ostegun Bidaiariak' ekimenean izena emateko epea zabalik

Debagoiendarren bidaia esperientziak aretxabaletarrekin partekatzeko sortutako ekimena laugarrenez dator, eta izena emateko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Udaleko Gazteria Zerbitzura bideratu behar dira proposamenak: *gazteria@aretxabaleta.eus*. Diaporama emanaldiak tabernetan dira, maiatzaren 19an hasita.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Mari Carmen Arrieta, Maje Umerez eta Joserra Zubizarreta gutunarekin eta txantxangorriekin. | I.B

# Herritarren hizkuntza errolda sortu nahi du Udalak

Gutun bat bidaliko zaie herritarrei, Udalaren idatziak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzten jakiteko

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak hizkuntza errolda sortu nahi du herritarrekin harremanak euskaraz bideratzeko. Orain arte, herritarrei zuzendutako dokumentazio ororkorra elebitan bidali da, baina Udalarekin harremana elebitan edo euskara hutsean izateko gutun pertsonalizatu bat bideratuko da. Hala, eskoriatzar bakoitzak berak aukeratutako hizkuntzaren arabera jasoko ditu udal jakinarazpenak.

Horretarako, datorren astean gutun pertsonalizatua jasoko dute Eskoriatzan erroldatutako 18 urtetik gorako herritarrek, eta erantzuna emateko azken eguna maiatzaren 13a izango da. Paperean idatzita, udaletxean, museoan, kiroldegian, bibliotekan, ikastetxeetan utzi beharko da, edo *on line;* Eskoriatzako webgunean hizkuntza erroldara sartuta edo QR bidez eginda.

**Txantxangorria euskararen ikur**

Euskararen sinbolo berria da txantxangorria, eta irudi honen bitartez euskaraz egiteko gonbita egin nahi da. Euskarari hegoak emateko asmoz, herriko eraikin publikoetan ikurrak jarri ditu Eskoriatzako Udalak.

Bestalde, herriko denda, taberna, elkarte, enpresetara… gutunak bidali dira, interesa duenak Udalak txantxangorrien pegatinak dohainik bidaliko dizkiola jakinarazteko.

# Edukiontzi sistema berria abiarazi dute Eskoriatzan

Herriko 21 guneetan jarrita daude dagoeneko

**I.B** | ESKORIATZA

Astelehenean edukiontzi berriak hasi ziren jartzen Debagoieneko Mankomunitateko langileak Eskoriatzan, eta, hain zuzen, martitzenerako jarrita zeuden guztiak.

Edukiontzi berriak jartzeaz bat, atez ateko esekitakoak kentzen ere izan dira brigadako langileak, eta herritarrek beraien kuboak hartu eta etxera eramateko eskatu du Udalak. Orain arte esekitakoak izan dituzten lekuetan dauzkate hauek pilatuta.

**Txartelarekin arazoak**

Oraindik edukiontzi organikoa irekitzeko txartelik jaso ez duenak hondakinen informazio bulegora joan beharko du haren bila; Ibarraundira, hain zuzen. Eta edukiontzia irekitzerakoan txartelak arazoak ematen badizkio herritarren bati, leku berera joan beharko du konfigurazioa egiaztatzera.

Arazo hau edo beste bat izanez gero, edo zalantzaren bat argitzeko, 688 862 527 telefonora ere deitu daitekeela adierazi dute Ibarraunditik.


Edukiontzi berriak jartzen izan diren momentua. | I.B

ESKORIATZAKO ALKATEA

GOIENA TELEBISTA | HARIRA
ALKATEEKIN ELKARRIZKETAK
JOSERRA ZUBIZARRETA,
ESKORIATZAKO ALKATEA
APIRILAK 26, 22:00ETAN |
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA



EGIN GALDERA:
**Whatsapp**:
688 69 00 07
**Posta elektronikoa**:
berriak@goiena.eus
**Goiena app**:
Galdera bidali

goiena

## Hainbat ekintza izango dira Liburuaren Nazioarteko Egunean

**I.B** | ESKORIATZA

Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, irakurzaletasuna sustatzeko hainbat ekitaldiz osatutako programa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Hitzaldiak, ipuinak… besteak beste.

Lehen ekitaldia eguaztenean izan zen; Jon Sarasuak *Bost truke* liburuan batzen dituen gertakariez hitz egin zuen Zaldibar antzokian. Gaur, berriz, Joxemari Carrerek ipuin pre-erotikoak kontatuko ditu Zaldibar antzokian 22:30ean. Sarrerak lau euro kostatzen dira eta aldez aurretik erosi daitezke Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean.

**Zapatuan, ekintza ugari**

Zapatuan, berriz, Zaldibar antzokian, 17:00etan, bigarren eskuko liburu azoka izango da. 18:30ean, Beheko Errota musika eskolak aurkeztuta Pentagrama-enea ipuin musikatua izango da eta 19:15ean, aldiz, *Zu be irakurle!* izeneko mikro-ipuinen irakurketa publikoa egingo da. Amaitzeko, 19:30ean, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketako sariak eman, eta saritutako lanen irakurketa egingo da. Liburuaren Nazioarteko Egunarekin jarraituz, apirilaren 28an izango da azken hitzordua. Pello Añorgak ipuin kontaketa egingo du bibliotekan, 18:00etan.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23
20540 Eskoriatza, Gipuzkoa
627 140 961 | furgo@ibiltariak.com
IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK
www.ibiltariak.com

## Palestinan bizirauteaz izango da Filmazpit saioa

**I.B** | ESKORIATZA

Palestinako lurralde okupatuetan bizirik irautea izango da Filmazpit-ek jorratuko duen hurrengo gaia. 'Omar. Hanry Abu-Assad' filma jatorrizko hizkuntzan (arabiera, hebreera) euskarazko azpitituluekin ikusteko aukera izango da Zaldibarren apirilaren 27an, 19:00etan.

Omar izeneko gazte baten istorioa kontatuko da. Indarkeriak, traizio eta gorrotoak ekarritako zurrunbilo batek harrapatuko du eta bere printzipioei leialki jarraitzen saiatuko da bere bizitzaren eta maitasunaren alde borroka egiten duen bitartean.

## Alkateari elkarrizketa datorren martitzenean 'Harira' saioan

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea *Harira* saioan izango da martitzenean, apirilaren 26an, 22:00etan. Eneko Azkarate kazetariak elkarrizketatuko du eta ikus-entzuleek ere izango dute galdera egiteko aukera: Whatsapp bidez: 688 69 00 07; posta elektronikoz: *berriak@goiena.eus*; eta Goiena App bidez galdera bidalita.


Mikel Lizarazu, dokumentala egin duen lantaldeko kidea. | MAIDER ARREGI

# Senidetzea indartzeko eta sustatzeko dokumentala

Bihar aurkeztuko da 'Aiherra–Antzuola Mugak Zubi' lana Torresoroan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bi herrien arteko senidetzea kontatzen du *Aiherra-Antzuola, Mugak Zubi* izeneko dokumentalak. Protagonistak, baina, bi herrietako herritarrak dira. Hain justu ere, harreman honi jarraipena eman gura dioten bi gazte. Euren ikuspuntutik eta bizipenetik kontatzen dute senidetzearen istorioa.

**32 urteko harremana**

Aiherra eta Antzuolako herritar batzuek sustatuta eta bultzatuta, 1984an hasi zen bi herrien arteko harreman sakona. "Euskal Herria" eta hizkuntza direla horrenbeste urtetako senidetzearen jatorria azpimarratu dute bultzatzaileek. Eta dagoeneko 32 urte elkarrekin senidetzea bultzatuz lanean dihardute bi herriek: Aiherra (Behe Nafarroa, 1.000 biztanle inguru) eta Antzuola (2.100 biztanle inguru), hain zuzen ere.

Mikel Lizarazu antzuolarra da dokumentala egin dutenen taldeko kidea. Lizarazuk dio helburua dela senidetzea belaunaldi gazteen artean indartzea: "Ondorengoek, gazteek, bi herrien arteko harremana dagoela ikustea da helburuetako bat; eta horri bultzada ematea oso aberasgarria dela uste dugu".

Antzuolaren eta Aiherraren harremana eredu, asmoa zabaltzea dela gaineratu du Lizarazuk: "Harreman oso polita da eta kanpoko herriei ere zabaldua dago".

Grabaketak 2014 bukaeran abiatu zituzten, senidetzearen 30. urteurreneko festa abiapuntu hartuta. Dokumentalak jasotzen dituen pasarte batzuk aurreratu ditu Lizarazuk: "Andre Martinon bultzatzailearen etxean izan ginen; zenbait festa eta ekintza ere grabatu ditugu. Baina, oinarrian, bi gazte dira protagonistak. Senidetzeari jarraipena eman gura dioten bi gazte, alegia. Dokumentalean, harreman hau sustatzeko lan handia egin duten eta egiten ari diren pertsonak azaltzen dira".

**Bihar aurkezpena**

Bihar, zapatua, arratsaldean aurkeztuko dute, Antzuolako Torresoroa aretoan. Bertan izango dira Aiherrako ordezkariak ere. Herritarrek dokumentala erosteko aukera izango dute bost euroren truke. Aurkezpena 19:00etan hasiko da Torresoroa aretoan.

# Xabi Iglesia antzuolarra da aurtengo herriko ehiza txapelketako irabazlea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako Eperra ehiza taldeak antolatuta, apirilean jokatu da 2016ko Antzuolako Ehiza txapelketa, Zanbranan. Xabi Iglesias izan da irabazlea (sei eper); bigarrena, Iñaki Toledo eta hirugarrena, Jose Mari Mendizabal; azken biek ere sei eper harrapatu dituzte. Beteranoetan 87 urteko Txomin Lete izan da irabazlea (5 eper). Guztiak bailarako ehiza txapelketarako sailkatu dira. Bertan izango da iazko irabazlea: Anes Sasieta. Irailean jokatuko dute bailarako txapelketa Zanbranan, Araban.

**Ehiza kontrolatua**

Antzuolako Eperra ehiza eta arrantza taldeak, egun, 150 bazkide ditu. "Ehiza kontrolatua eta organizatua egiten dugu. Federazioaren bidez egindako txartelak ditugu. Mendian arau batzuk bete daitezen, uso postuen zozketa ere egiten du. Diputazioak babestutako talde bat ere badaukagu. Hala, oreinak harrapatzeko kopurua mugatua da. Gaixotasunak saihesteko odol analisia ere egiten diegu", dio Eperrak taldeko Jose Luis Arregik.


2016ko Ehiza txapelketako irabazleak. | JOSE LUIS ARREGI

# Erkoreka: "Kontzertu ekonomikoaren onurak jakitea garrantzitsua da"

Olaran etxean eskainitako solasaldian egungo egoera politikoaz ere jardun zuen Erkorekak

X.G / M.A. | ANTZUOLA

Kontzertu ekonomikoaren gaineko xehetasunak eman zituen Josu Erkoreka lehendakariordeak. Izan ere, aspaldian, Madrilen zalantzan jarri dute euskal kontzertu ekonomikoa. "Baina garrantzitsua da euskal herritarrei kontzertu ekonomikoa zer den ondo azaltzea, eta honek gure herriarendako dakartzan onuren berri ematea. Izan ere, zalantzan jarri dute Madrilen –bereziki, Ciudadanosek–", azaldu zuen Erkorekak.

**Gobernu egonkorra**

Euskal Herriaz arduratzen den Espainiako Gobernua gura duela ere adierazi zuen Jaurlaritzako bozeramaileak: "Rajoik ez digu arretarik jarri. Euskal herritarron eskakizunei arreta eta erantzuna emango dion gobernu egonkorra gura dugu". Gobernua eratzeko epea agortzear dagoenez, zail ikusten du hauteskundeak berriro egitea saihestea. Hala ere, gobernu aldaketa "Euskadirentzat onuragarria" izango litzakeela dio.


Lehendakariordea, Olaranen eskainitako hitzaldian. | XABI GOROSTIDI

## Arrola Mendi taldeak datozen bi urteetarako batzarkide berriak aukeratu ditu, asteon

Gorka Garitano, Ion Iturbe, Lorentxo Iturbe eta Nekane Idiakez zozketa bidez aukeratu dituzte aurrerantzean Arrolako batzarkide gisa lan egin dezaten. Juanma Lasak, Aritz Elorzak, Idoia Congetek, Jon Ugarteburuk eta Joxean Ugarteburuk batzarkide izaten jarraituko dute. Batzarrean, besteak beste, haurrendako ekintzak eta Mendi Astea berriro egiteko asmoak azaleratu ziren.

## Saskiola kontsumo taldean parte hartu gura duten herritarrek izena emateko aukera dute

Bi baserritarrek –Tomas Larrañaga eta Aitzol Iturbe– parte hartzen dute orain Saskiola kontsumo taldean. Hala, astero saskia herritar gehiagok jasotzeko aukera dago. Saskiolak antolatu duen hitzaldian jaso daiteke informazioa. Solasaldia apirilaren 27an, Olaranen, 18:00etan izango da. Eta Nuria Renau sukaldariak ortuko berdurei etekina nola atera azalduko du.

## OHARRAK

**PLASTIKO BILKETA**
Bihar, auzoz auzoko plastiko bilketa egingo da. 11:30ean plazatik abiatuko dira.

**KONPOST BIRRINGAILUA**
Bihar, zapatua, 12:30ean, plazan, konposta nola egiten den ikusteko aukera izango da. Konpost birringailua martxan jarriko dute herritarren aurrean.

**GAILUR: UDALEKUAK**
Uztail eta abuzturako, Gailur Zaldiketak udalekuak antolatu ditu 7 eta 15 urte arteko gazteendako. Informazio gehiago: *www.gailurzaldiketa.com.*

**HEZKUNTZA EMOZIONALA**
Familian hezkuntza emozionala lantzeko ikastaroa eskainiko da. Izena emateko epea apirilaren 29ra arte dago zabalik udaletxean edo Gizarte Zerbitzuetako bulegoan. Ikastaroa maiatzaren 3an, 10ean eta 17an (18:00etatik 19:30era) egingo da. Besteak beste, haurren eta hezitzaileen autoestimua orekatzeko edo emozioak erregulatzeko ikastaroa da.


Etxenausia eta Askasibar plaka zabaltzen. | IMANOL SORIANO


Papargorri abesbatzako umeak kantuan. | IMANOL SORIANO

# Goikoetxea nor izan zen gogora ekarri dute herrian

▸ Konpositorearen eskultura eraberrituta inauguratu zuten zapatuan

▸ Herriko abesbatza guztiek elkarrekin *Karmengo ama* abestu zuten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Inauguratu dituzte Goikoetxearen heriotzaren mendeurreneko ekitaldiak Aramaion.

Lorenzo Askasibar eskultoreak eta Cristina Etxenausia zinegotziak zabaldu zuten Goikoetxearen alde eskulturan ipinitako plaka. 1954an Askasibarrek egindako eskultura konpondu egin dute eta konponketa-lan horietan eskultoreak berak ere lagundu du. Bañera parkean egin zituzten ekitaldi horiek; abesbatzen emanaldiak kultura etxean izan ziren, eta baita luntxa ere.

### Nor izan zen Goikoetxea

Josemari Velez de Mendizabalek izenaren eta izanaren artean berba egin zuen. "Aramaion izena beti izan da ezaguna, gertatzen dena da denboraren poderioz izana bera galtzen dela. Ondo daude horrelako efemerideak pertsona gogora ekarri eta egin zuena gogoratzeko; kasu honetan, Goikoetxeak musika sakratuaren alde egin zuena". Ekitaldia amaitu zuten herriko abesbatza guztiek elkarrekin *Karmengo ama* obra kantatzen: "Goikoetxearen obra ez da samurra umeendako; baina uste dut obra honekin asmatu egin dugula", azaldu zuen Larraitz Arriolabengoa zuzendariak.

> ESANAK
>
> **"Horrelako efemerideek pertsona gogora ekarri eta egin zuena gogoratzeko balio dute"**
>
> JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL |

### Eskolan ere lan handia

Mendeurreneko inaugurazio ofiziala zapatuan egin zuten arren, San Martin eskolako ikasle eta irakasleek barikuan egin zituzten ekitaldiak.

Eskolan tribiala egin zuten, Goikoetxearen inguruko tribiala. Ondoren, kultura etxean, bideo-aurkezpena izan zuten eta Papargorrik euskal konpositoreen kantak abestu zituen. Larraitz Arriolabengoak *Zer da abesbatza bat?* hitzaldia eskaini zuen.

### Udalaren esker-mezua

Zapatuko ekitaldiaren harira, Udalak Aldundia eskertu nahi du eman duen laguntzagatik; baita ekonomikoki lagundu duten Vital Kutxa Fundazioa, Laboral Kutxa eta partikular bat. "Oro har, eguna posible egin zenuten norbanakooi, zuen borondate eta laguntzagatik", diote oharrean.

## Manex Agirre, Agurainen

A.E. | ARAMAIO

Oholtzapetik Entzulea Epaile egitasmoko hirugarren saioa jokatuko dute gaur, barikua, Aguraingo Zabalarte etxean, 20:30ean. Marta Ugarte gai-jartzailearen eskutik, Manex Agirrek, Zigor Enbeitak, Felipe Zelaietak eta Asier Rubiok kantatuko dute. Joan zen asteko saioan bi aramaioar izan ziren oholtza gainean: Iker Agirre eta Peru Abarrategi. Eurekin batera Oihane Perea eta Asier Otamendi ibili ziren kantatzen. Entzuleek Perea aukeratu zuten Legutioko finalean parte hartzeko –maiatzaren 13an–.

### Europa bat-batean, Aramaion

Kantu inprobisatuaren topaketa egingo dute bihar, kultura etxean, 19:00etan. Sarrera 5 euro –informazio gehiago 30. orrian–.


Murgiako saioa. | ARABAKO FEDERAZIOA

## Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko

Udal udalekuetan izena emateko epea maiatzaren 31ra artekoa izango da. Eskaera orria udaletxean entregatu beharko da. Prezioa da: lehenengo umea 60 euro; bigarren umea 40 euro; eta, hirugarren umea 30 euro. 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago, eta uztailaren 6tik 22ra izango dira udalekuak.

## Ander Errasti eta Lander Perez, Arabako txapeldun

A.E. | ARAMAIO

Aramaioko pilotariak txapelarekin itzuli ziren etxera. Arabako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten zapatuan.

Aramaioarrek bi final jokatu zituzten. Batetik, Alebin B mailan, Ander Errasti eta Lander Perez ibili ziren nor baino nor gehiago Legutioko taldearen aurka. Final gogorra jokatu zuten pilotari gazteek. Emaitza izan zen: 3-1 (set) aramaioarren alde.

### Olaizola, txapeldunorde

Beste finala Julen Olaizolak jokatu zuen. Infantil A mailan buruz burukoa jokatu zuen Laudioko Amondo pilotariaren aurka. 16-13 nagusitu zen Amondo. Ondorioz, Arabako txapeldunorde geratu zen Olaizola.

Pilota elkartekoek pilotariak "zoriondu" nahi dituzte egin duten "denboraldi onagatik". Era berean, gurasoak eskertu nahi dituzte erakutsitako konpromisoagatik.


Errasti eta Perez, Rezustarekin. | J.O.

### Euskal Herrian barrena

Aramaioko pilotariak Euskal Herriko hainbat pilotalekutan ibiliko dira datozen hilabeteetan hainbat txapelketa jokatzen.

## Jaietarako proposamen eta iritziak jasotzeko bilera egingo dute

Jai batzordeak bilera irekia egingo du apirilaren 27an, eguaztena, udaletxean, 17:30ean. Jaien inguruan iritzia eman edo edozein proposamen egiteko balioko du bilerak. Beste bide bat ere zabaldu dute horretarako: *itxasokultura@cuadrillazuia.com* helbidera idatzita. Parte hartzeko dei egin dute.

ELGETA

# Erresistentzia Egunerako milaka lagun espero dituzte

11:30ean hasiko da borrokaldien errekreazioa, Asentzion, eta 13:00etan omenaldia plazan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Emakume erresistenteak eta errepresaliatuak izango dira aurten benetako protagonistak Intxortako Erresistentzia Egunean, eta 40 emakume omenduko dituzte herriko plazan, 13:00etan. Aurretik, 11:30ean, Intxortako borrokaldien errekreazioa egingo dute, laugarren urtez, Asentzion. Antolatzaileek milaka lagun espero dituzte; tartean, ordezkari politiko eta sindikal ugari.

Omenaldiaren ostean Emakume Erresistenteen plaza inauguratuko dute Maala parkean, eta amaitutakoan herri bazkaria egingo dute frontoian. Egun osoan zehar memoria historikoa lantzen diharduten taldeek ipinitako materialarekin azoka egongo da ikusgai herrian —Ikus 2. orria—.

### Zirkulazio aldaketak herrian

Udalak aditzera eman duenez, domekan oinezkoendako izango da Elgeta erdigunea, eta zirkulazioa Berraondokotik bideratuko dute, 10:00etatik 19:30era. Hala, autobus geltokia Torrezar inguruan egongo da. Asentziora doan errepideari dagokionez, 10:00etan itxiko dute. Kanpotik datozen gidariei gomendatzen zaie Pagatza industrialdean aparkatzeko.

### Bezperako ekitaldiak

Domekan egingo dituzte Intxortako Erresistentzia Eguneko ekitaldi nagusiak, baina zapaturako bisita gidatu berezi bat dago antolatuta *Elgeta gerra garaian* izenburupean. Elgeta gerra eremu izan zen 1936ko urritik 1937ko apirilera eta bisita gidatuan ospitalea, soldaduen kanpalekuak, zaintza postuak edo zibilendako babeslekuak non kokatu zituzten ezagutzeko aukera izango du. 18:00etan abiatuko da taldea herriko plazatik. 19:30ean Orkresta Elektrotxaranga ibiliko da tabernaz taberna, eta 22:30ean kontzertua egingo dute Perlak eta Gose taldeek Espaloia kafe antzokian. Sarrera da bost euro.



Lorea Larrañaga Elgetako parrokiako organoan. | L.Z.

## Adin guztietakoendako hitzorduak aste bukaera honetan Elgetan

L.Z. | ELGETA

Beteta dator aste bukaerako agenda Elgetan. Bihar Liburuen Nazioarteko Eguna dela-eta plazara aterako ditu gaur liburuak liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. 17:00etarako haurrendako jolasak iragarri ditu, eta 18:00etan liburu zozketa egingo du plazan.

Bestalde, Bergarako organo ikasleek kontzertua egingo dute Elgetako elizan, gaur, 19:00etan. Leo Juaristik, Pello Letek, Eugenio Etxebestek, Mikel Ansolak eta Lorea Larragañak joko dute organoa. Larrañaga Elgetan bizi da, eta bertako musika irakaslea da. Elgetako organo neogotikoa da. Jose Amezuak egin zuen 1895. urtean.

### Margolariak eta 'zumba'

Zapatuan, 10:00etan, bi orduko *zumba* saioa egingo dute Espaloia kafe antzokian. Prezioa da hamar euro, ikasleendako zortzi euro.

Ordu berean hasiko da Bergarako Beart elkarteak antolatutako *sketchcrawl* topaketa. Herriko txoko ikusgarrienak aukeratuko dituzte margolariek mihisea ipini eta margolanak egiteko. Amaitutakoan, bazkaria egingo dute Rincon de Lola tabernan.

### Domekan Herrixa Dantzan

Eta domekan dantzazaleek hitzordua dute Espaloian, 19:00etan. Ordu eta erdiko saioa gidatuko du Patxi Monterok.

## OHARRAK

**GARBIGUNE IBILTARIA**
Salbador kaleko plazan izango da, eguaztenean, apirilak 27, 10:00etatik 21:00etara.

**GURASOENDAKO SAIOA**
Eguenean, hilak 28, lehen hezkuntzako seme-alabak dituzten gurasoendako formazio saioa antolatu du Bideberri Mankomunitateak. Gaia: hezkuntza emozionala. Saioa Herri Eskolan egingo dute, 18:00etan, ludoteka zerbitzuarekin.

**FRONTENIS TXAPELKETA**
Luzatu egin dute txapelketan parte hartzeko izen-emate epea. Prezioa da hamar euro bikoteko. Interesatuek Bolatoki tabernan eman behar dute izena.

**IRTEERA SAGARDOTEGIRA**
Goibekok irteera antolatu du Zeraingo Oiharte sagardotegira apirilaren 30erako. Autobusa da hamar euro (bazkideendako sei euro). Izen-emateak Haizea eta Rincon de Lola tabernetan.

**ONGARRITZE EKOLOGIKOA**
Nekazaritza ekologikoari eta ongarritzeari buruzko hitzaldi-tailer irekia iragarri du Elgetako Udalak hilaren 27rako, eguaztena. 17:30ean egingo dute, udaletxean, eta doan izango da.



JOAQUIN GASTESI

## Frontoiak 50 urte bete ditu

Frontoiko hormek hitz egingo balute zer ez lukete kontatuko! Pilotan egin dute askok frontoian, baina mendi erdi honetan herriko plaza estalia ere izan da, eta dantza erakustaldiak, bertsolaritza emanaldiak, bazkariak, dantzaldiak... egin dira bertan. Udala digitalizatzen ari den Joaquin Gastesiren argazki artxiboan aurkitu dugu eraikuntzaren sasoiko argazkia.

## Kultura Astea egingo dute Herri Eskolan

L.Z. | ELGETA

Astelehenetik aurrera hainbat kultura ekintza egingo dituzte Herri Eskolan. Urtero moduan, asmakizunak, eroglifikoak eta esamesak egingo dituzte, eta baita ere zirkuitu kulturala, jolasak eta pelikula emanaldiak. Zenbait taldek bisita gidatua egingo dute liburutegira eta beste batzuek Elkarrekin Ikasi programaren baitan taloak eta sanblas opilak egiten ikasiko dute herriko erretiratuen eskutik. Barikuan txokolate-jana egingo dute guztiek.



LARRAITZ ZEBERIO

## 40 neska-mutikotik gora dantzan

Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak martxan dute dantza ikastaroa. Aurreko eguaztenean egin zuten lehenengo saioa eta txikien taldean 30-35 neska-mutiko inguruk hartuko dute parte, eta nagusien taldean hamar neskak. Eguaztenetan elkartuko dira, aurrerantzean, jaietako Herri Eguneko dantza saioa prestatzeko.

LEINTZ GATZAGA

# Herri galdeketaren gaineko herri batzarra gaur

Domekan, berriz, *Gazta zati bat* dokumentala proiektatuko dute, Labidean, 18:30ean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Erabakitzeko eskubidearen gaineko herri galdeketaren harira, herri batzarra deitu du gaurko, egubakoitza, Erain Debagoienak. Ekainaren 12an eskualdean egingo den herri galdeketaren gaineko informazioa, eztabaida, antolaketa eta bestelakoak lantzea da helburua. Kultura etxean da batzarra, 18:30ean, eta interesa duen edozein bertaratu daiteke.

Bestalde, gai berarekin lotuta, etzi, domeka, Jon Maiak idatzitako eta zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala proiektatuko dute Labidean. Hori ere 18:30ean da. Eta datorren maiatzaren 8an, berriz, herritarren borondateak jositako istorioa kontatzen duen *Jostunak* dokumentala proiektatuko dute.

### Pilota, bihar

Oraingo asteburuari begira, baina, bada beste hitzordu bat Leintz Gatzagan: pilota txapelketako partiduak. Bihar, zapatua, 16:30ean jokatuko dituzte, honako bikote hauek: Gasteizko Minguezek eta Kintanak Elgoibarko Beraza eta Etxeberria izango dituzte aurrez aurre. Horien ondoren, Arrasateko Lazkanok eta Kortak osatutako bikotea Mallabiko Gomezek eta Zubiriak osatutako bikotearen kontra lehiatuko da. Soraluzeko Unanue eta Gallastegi bikotearen eta Beasaingo Urteaga eta Zubeldia bikotearen arteko lehia etorriko da gero. Eta jarduna bukatzeko, herritarren txanda izango da: Zubillagak eta Bengoak Aramaioko Saizar eta Etxeberria izango dituzte lehiakide.

### Almenen gaineko erakusketa

Bestalde, datorren eguaztenetik, apirilaren 27tik, 30era, Almen ikastetxearen gaineko erakusketa ipiniko dute kultura etxean. Ikastetxearen 50. urteurrenaren bueltan antolatu dute erakusketa. Leintz Gatzagan hasiko da, eta ondoren, eskualdeko bestelako udalerri batzuetan ipiniko dute.

# puntua



Goienaren aldizkaria
4.100 etxetan
jasotzen dute dagoeneko.

Jarri gurekin harremanetan,
eta jaso zuk ere astero,
urte bukaerara arte.

**ESKAINTZA BEREZIA:**
~~55 EURO~~
**40 EURO BAKARRIK**

**943 25 05 05**
edo
**kluba@goiena.eus**
edo
**Whatsapp: 688 69 00 07**
edo
**www.puntua.eus**

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

*GOIENA KLUBEKO BAZKIDEOK EZ DAUKAZUE ESKATU BEHARRIK.




Taldeko ziklista gazteekin batera, Aloña Mendiko ordezkariek hainbat ziklista eta ziklista ohi gonbidatu zituzten Gipuzkoako Klasikako aurkezpenera. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

# Gipuzkoako Klasika bueltan da, sei urteren ostean

- Aloña Mendik antolatu du etziko gazte mailako lasterketa entzutetsua
- 2010ean Bergaran egin zuten eta Mario Gonzalez izan zen onena

XABIER URZELAI | OÑATI

Sei urte pasa dira gazte mailan dagoen lasterketa entzutetsuena bailaran azkenekoz antolatu zutenetik, Gipuzkoako Klasika; ordutik, selekzio mordoa batzen dituen lasterketa Zumaian, Aian, Donostian edota Lazkaon –birritan– antolatu izan dute: "Federazio Kopa barruan bi lasterketa egiten dira, eta hauxe da bat. Hala, Espainiako eta Frantziako talde eta selekzioak izango dira, Gipuzkoako taldeekin batera", adierazi zuen aurkezpenean Kepa Umerezek. Lokatzakoek 2010ean egindako edizioaren erreleboa hartuko dute domekan Aloña Mendikoek, 50. urteurreneko ospakizunen barruan.

Sei urte atzera eginda, Bergarako Ibargarai kaleko zuzenean Kantabriako Mario Gonzalez izan zen azkarrena. Orduan, Asentzioko maldetan hautsi zen lasterketa, baina Elgetatik beherako tartean azkarrena izanda irabazi zuen gaur egun profesionaletan – Sporting-Tavira taldean– diharduen txirrindulariak. Ez da kantabriar irabazle bakarra izan, besteak beste, iaz Pablo Alonso izan zelako onena. Hala, Espainia osoko selekzioetako ordezkariak etortzen direnez, faboritoen taldean sartzea ez da batere erraza: "Lasterketa ederra izango da, oso jende ona egongo delako, eta seguru proba ikusgarria izango dela", adierazi zuen euskal txirrindularitzak utzitako izarretako batek, Marino Lejarretak. Markel Irizarrek, ostera, gazte mailako klasikoa Oñatira ekartzea herriarendako ona izango dela adierazi zuen, "eta pozgarria Aloña Mendi moduko klub batek halako lasterketa batekin urteurrena ospatzea".

Azken irabazle euskalduna Xabier Santesteban izan zen, 2013an, Donostian. Baina lasterketa antolatzeaz soilik konformatu barik, Aloña Mendiko ordezkari –Ulmaren izenarekin– Xabier Murgiondo edota Mikel Arregi aurrean ibiltzeko moduan egon daitezke. Murgiondok, esaterako, Antzuolako Uzarragako Igoera irabazi zuen joan den zapatuan.

**117 kilometroko proba**

Lasterketa 10:30ean hasiko dute, Oñatin, eta Bergarara bi joan-etorri egin eta gero, ziklistek Elorregin ezkerretara hartuko dute, Aretxabaletara. Hor, 80. kilometrotik aurrera ibilbidea gogortu egingo da. Hasteko, Untzillarako igoerarekin (12:30), eta Suñako jaitsieraren ondoren ziklistek Aramaiorako bidea hartuko dute, eta Azkoagatikx ostera ere Untzillara iritsiko dira. Ikusteko dago Aretxabaletara lasterketa zela iristen den. Eta handik Oñatirako bidean, azken kilometroetan Santipillauko malda motz baina gogorrak proba erabaki dezake.

ESANAK

**"Hau da gazte mailan dagoen proba nagusietako bat, federazio kopa barruan egiten dena"**



KEPA UMEREZ | ALOÑA MENDI

**"Maila oso oneko ziklistak egongo dira eta proba ikusgarria izango da"**



MARINO LEJARRETA | ZIKLISTA OHIA

**"Pozgarria da AloñaMendik urteurrena halako proba batekin ospatzea"**



MARKEL IRIZAR | ZIKLISTA



Ziklistak Asentziora bidean. | X.U.




Murgiondo, zapatuan Uzarragan. | E.A

ESKUBALOIA

## Oñatiarren esku dago Arrasatek liga irabaztea

X.U. | ARRASATE

Euskadiko Txapelketa amaitzear dago, asteburuan jokatuko dute-eta azken jardunaldia. Eta ederra dator. Joan den asteburuan Basaurik (43 puntu) lehenengo postura egin zuen salto, Ford Mugarriri (42 puntu) irabazi ostean. Liga ia osoan lider joan eta gero, mondragoetarrek kolpe gogorra hartu zuten Iturripen, baina dena ez dago galduta, Basauriri norbaitek irabaz badiezaioke, hori ligan egon den hirugarren oilarra da-eta, Izarraitz Aloña Mendi (37): "Basaurikoek azken segundoan egindako golari esker irabazi ziguten Zubikoan, eta errebantxa gogoz gaude", dio Rafa Zuluetak. "Gainera, liga honetan esan ohi da Bizkaiko taldeen kontra gaitza dela euren kantxan irabaztea, eta orain arte guztietan irabazi badugu, Basaurin ere posible da".

Zuluetak aitortu du horrek taldeari morala emango liokeela datorren urtera begira, bost garaipen segidan eskuratuta amaituko lukete-eta liga: "Eta aurreko bi talde horien kontra garaipen bat eskuratzea ere positiboa izango litzateke, euren mailatik gertu gaudela ikusteko".

**Arrasatekoek, Gasteizen**

Baina Oñatikoek egiten dutena egiten dutela, Ford Mugarri Arrasatekoek Corazonistasen kontra jokatu beharko dute –partidu guztiak dira domekan 12:15ean–. Josu Herrerok *Harmailatik* saioan aitortu zuen barkaezina izango litzatekeela oñatiarrek Basaurin ezustea eman, eta eurek Gasteizen galtzea: "Niri ere pasa zait hori burutik, izan ere, kontuz Corazonistas taldearekin, oso kontrario gogorra delako. Duda barik, guk gurago dugu liga Ford Mugarrik irabaztea, baina uste dut guk egiten dugunari begira egon barik, euren partiduan kontzentratzea komeni zaiela".



Domekan, Basauriren kontra. | I.S.

FUTBOLA

# Aloña Mendik lider dagoen Anaitasuna hartuko du domekan Azkoagainen

UDAk Gasteizen jokatuko du; Mondrak eta Bergarak lehia estuan jarraitzen dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Liga ahalik eta ondoen amaitzeko borrokan jarraitzen du Aloña Mendik, baina aparteko presio barik. Domekan, baina, liga irabazteko borrokan dabilen Anaitasuna liderraren bisita izango dute Igor Serranoren mutilek Azkoagainen (16:30). Oiartzunen eta Real Unionen kontra hanka sartu eta gero bazirudien lidergoa arriskuan izango zuela Azkoitiko taldeak, baina garaiz erreakzionatu dute.

Oñatiarrak, berriz, joan den asteko 6-2koa lehenbailehen ahaztu eta liderra estutzera zelairatuko dira.



Anaitasuna Azkoagainen 2013an; orduan 2-2 egin zuten. | GOIENA

**UDAk azken aukerak**

Matematikek kontrakoa esaten duten arte, UDAk mailari eusteko aukerekin jarraitzen du, baina geroago eta aukera gutxiagorekin. Hala, jaitsiera postuetan dagoen Gasteizko Aurrerararen kontra jokatuko dute aretxabaletarrek zapatuan Gasteizen (17:00). Emaitzekin edo kategoriari eustearekin itsutu barik, azkenaldian berdegunean erakutsitakoagatik gehiago merezi izan duten arren, motibo batengatik edo bestearengatik UDAkoek ezin izan dute partidu borobilik egin, eta joera horri buelta eman gura diote Arenazaren mutilek.

**Bigarren postuaren lehia**

Eta erregional preferentean, azkenik, Mondrak (53 puntu) eta Bergarak (52 puntu) bigarren postuagatik borrokan jarraitzen dute, eta ez dirudi inork amore emateko asmorik duenik; izan ere, Mondrak azken bost partiduetatik bakarra galdu du eta Bergarak azken bederatzi partiduetatik zortzi irabazi ditu eta bat berdindu.

Hala, Bergarak etxean jokatuko du zapatuan (17:00) eta Mondra Zumaiara joango da (15:45). Antzuolak, bestalde, Zestoa hartuko du etxean (zapatua, 16:30, Estala) eta Aretxabaletako bigarren taldeak Azpeitian jokatuko du bihar eguerdian (12:30).

DUATLOIA

# Antxintxikakoak taldeka onenak izan dira Gipuzkoako Txapelketan

X.U. | ARRASATE

Domekan egin zuten, Azkoitian, Gipuzkoako duatloi txapelketa, distantzia motzean, eta bertan Antxintxika nabarmendu zen, taldeka, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere bailarako ordezkariek irabazi egin zuten eta. Bestalde, Katalunia aldean ibili ziren Antxintxikako ordezkarien artean, aipatzekoa da Iñigo Labaienek sailkapen orokorrean lortutako laugarren postua –bere kategorian lehenengoa–.

**Nere Arregi bigarren**

Helene Alberdi eta David Gartzia izan ziren Azkoitiko duatloian atletarik azkarrenak, eta Nere Arregi arrasatearra (Antxintxika) bigarren sailkatu zen emakumezkoen artean. Gizonezkoetan, berriz, Xabier Luis Urzelai izan zen Antxintxikako onena, sailkapen orokorrean bederatzigarren postuan. Taldeka, baina, Antxintxikakoak gorenera iritsi ziren, aurrealdeko onenen arteko denborak batuta debagoiendarrak nabarmendu ziren eta.

Bestalde, Antxintxikako beste ordezkari batzuk L'Ametlla de Marko ironman erdian lehiatu ziren. Eta nabarmentzeko lana egin zuen Iñigo Labaien arrasatearrak (04:35:11): sailkapen orokorrean laugarren postuan sailkatu zen, lehenengoa 40 urtez azpikoen mailan.



Antxintxikako emakumezkoak, Azkoitiko podiumean. | ANTXINTXIKA

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.


Artola eta Rezusta eguazteneko pilota aukeraketaren ostean. | GARAZI AYESTA

# Artolaren kontrako lehia buruz burukoa hasteko

## Rezustak Bergarako frontoian jokatuko du lehena

**MIREIA BIKUÑA** | BERGARA

Beñat Rezustak Iñaki Artolaren kontra jokatuko du gaur, egubakoitza, buruz buruko pilota txapelketako lehen kanporaketa, 22:00etan. Bergarako pilotariak etxeko zaleen aurrean egingo du debuta. "Binakako txapelketan egindako lanak zaleak animatu ditu eta badakit sarrerak saldu direla. Zaleak gogotsu daude eta ni ere bai", esan zuen Rezustak eguazteneko pilota aukeraketan.

Gustura geratu zen aukeratutako materialarekin –104,4 eta 106 gramoko pilotak–. "Frontisetik irteera garbia duten pilotak aukeratu ditut. Halakoak gura nituen Artolari aurre egiteko. Elkar ondo ezagutzen dugu. Badakit nolako pilotaria den. Oso ondo moldatzen da buruz burukoan", azpimarratu zuen.

Iñaki Artola ere gustura zegoen materialarekin."Pilota motelen bila joan naiz. Pilota zakarrak gura nituen eta topatu ditut", esan zuen.

**Artola faborito**

2011ko Joxean Tolosa txapelketako finalerdietan jokatuko zuten elkarren kontra azken aldiz. Rezustak irabazi zuen 18-8. Biek ala biek diote emaitza hura ez dela erreferente. "Orduko hartan aise irabazi ninduen Beñatek. Ordutik, asko hobetu dut nire jokoa. Baita Beñatek ere", zioen Artolak. Rezusta iritzi berekoa da. "Egoera aldatu egin da. Artola da aurrera egiteko faboritoa, baita apustuetan ere".

**Sarrerak salgai**

Sarreren salmenta erritmo onean doa Bergaran. Etxeko zaleek ondo erantzun dute. Azken ordukoendako, gaur, egubakoitza, leihatila zabalik egongo da 12:30etik 14:00etara.

### ESANAK

**"Uste dut Artola dela faboritoa, baita apustuetan ere"**

BEÑAT REZUSTA | PILOTARIA

**"Pilotari puska da Rezusta; oso zaila izango da kanporaketa"**

IÑAKI ARTOLA | PILOTARIA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**HIRUGARREN MAILA**
Aurrera Vitoria-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Olaranbe.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zumaiako-Mondra
Zapatua. 15:45. Aita Mari.
Bergara-Beasain
Zapatua. 17:00. Agorrosin.
Ikasberri-Aretxabaleta
Zapatua. 12:30. Garmendipe.
Antzuola-Zestoa
Zapatua. 16:30. Estala.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**
Arizmendi-Eibar
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Mondra-Amara Berri
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Aretxabaleta-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Ibarra.
Eibar-Bergara
Zapatua. 11:00. Unbe.
Mondra-Zumaiako
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**OHOREZKO KADETEAK**
Anaitasuna-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. San Juan.
Zumaiako-Arrasate
Zapatua. 12:00. Aita Mari.
Bergara-Lazkao
Zapatua. 10:15. Ipintza.

**LEHENENGO KADETEAK IGOERA**
Aretxabaleta-Reala
Zapatua. 10:00. Ibarra.

**KADETEAK KOPA**
Bergara-Antzuola
Domeka. 16:30. Ipintza.
Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 10:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Arizmendi
Zapatua. 14:00. Azkoagain.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Mallabia-Aretxabaleta
Domeka. 18:00. Zaldibar.
Eskoriatza-Zalditxo
Zehaztu barik.

**LEHENENGO MAILA**
Mondrate-Tellatuberri
Zapatua. 15:50. Iturripe.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Anoeta
Egubakoitza. 22:30. Kiroldegia.

**ESKUBALOIA**

**EUSKAL LIGAKO SENIORRAK**
Basauri-Izarraitz Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Artunduaga.
Corazonistas-Ford Mugarri
Domeka. 12:15. Corazonistas.

**SASKIBALOIA**

**EBA**
Pas Pielagos-MU
Domeka. 18:00. Fernando Exposito.

**BIGARREN MAILA**
Cafes Aitona -Natra Oñati
Zapatua. 22:00. Jose Antonio Gaska.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
MU-Soraluze Bergara
Zapatua. 16:00. Musakola.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Eskoriatza-Summa Aldapeta
Zapatua. 20:00. Chaminade.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK, 2. MAILA**
Iruñea-ART Zehaztu barik.

**PILOTA**

**ARETXABALETA**
**Egubakoitza, 19:00etan hasita**
Aretxabaleta 2-Tartaloetxe.
Aretxabaleta 3-Euskal Jolas 1
Aretxabaleta-Zugasti/Euskal Jolas-Araskitain
Aretxabaleta-Lasagabaster/ Txapagain-Barandiaran
Aretxabaleta-Etxeberria/


UDAko Urtzi partidu baten . | IMANOL SORIANO

**Ane Herrero** | Eskubaloi jokalaria

# "Etenaldiaren ostean, eskubaloiaz disfrutatzen nabil berriro ere"

## Jokalari arrasatearrak Euskadiko Txapelketa irabazi berri du Usurbilgo taldearekin

**M.B.** | ARRASATE

Hirugarren denboraldia du Ane Herrero arrasatearrak Usurbilgo eskubaloi taldean jokatzen. Euskadiko txapelketa irabazi berri dute, eta maiatzean, 13tik 15era, igoera fasea jokatuko dute. Hain zuzen ere, hiru denboralditan, hirugarrena.


Ane Herrero. | ANE HERRERO

**Zorionak Euskadiko txapelketa irabaztearren! Esperotako garaipena?**

Akaso ez genuen horrenbeste espero, baina gogotsu jokatu ditugu partidu guztiak eta oso pozik gaude azken emaitzarekin.

**Zuazo, Barakaldo, Bera Bera eta Usurbil aurrez aurre. Talde indartsuak.**

Bai, oso indartsuak. Eta kosta egin zitzaigun hiru lehiak irabaztea. Galtzen hasi ginen hiru partiduak, baina, etxeko zaleen laguntzarekin, gai izan ginen buelta emateko. Nik neuk oso gustura jokatu dut. Disfrutatuz eta sentsazio onekin.

**Euskadiko txapelketan bikain, eta liga erregularrean ere bai.**

Gu ere harrituta gaude. Iazko taldearekin alderatuta hainbat aldaketa izan ditugu, jokalari berriak... baina ez du taldearen jokoan eta martxan eragin. Liga erregularrean ez dugu partidurik galdu, Euskadiko txapelketa irabazi dugu eta horrek igoera fasea jokatzeko txartela eman digu.

**Jarraian jokatuko duzuen hirugarren igoera fasea izango da.**

Hala da. Emakumeen Zilarrezko Mailara igoko ginateke, mutilen Lehen Nazional Mailaren parean dagoena. Eta hor, eskubaloia askoz profesionalagoa da. Igoera lortzen badugu, konpromisoa zorrotzagoa izan beharko da: jokalarien eta zuzendaritzaren aldetik, zaleak...

**Nolakoa da Zilarrezko Mailako eskubaloia?**

Azkarra, oso teknikoa... Fisikoki esfortzu handiagoa eskatzen du.

**Bigarren loraldia bizitzen ari zara?**

Bai. [Barre]. Hiru urte daramat Usurbilen. Familia bat gara. Lagun berriak egin ditut, eskubaloiarekin disfrutatzen nabil, txapelketak irabazten, lesio barik... Ezin dut gehiago eskatu. Pozik nago.

**Familia bat Usurbilen eta beste bat Arrasaten. Zer moduz ikusi dituzu anaia eta Ford Mugarri aurten?**

Txapelketa handia egin dute. Jokalari garrantzitsuak galdu zituen iaz, baina talde izaera mantentzea lortu dute. Lagunak dira. Pena, Basauriren kontra galdutako azken partidua.

**Usurbilen eta Ford Mugarriren igoera faseak egun berberetan jokatuko dira. Zer egingo du amak?**

Kasualitate hutsa izan da, baina hala gertatzen da. Etxean berba egin dugu hirurok, eta ama, Ford Mugarriko presidente izanda, anaiaren igoera fasera joango da. Baina izango du gure fasearen berri.

### Aritz Bikuña bergararrak eslalom modalitatean, bakarka eta taldeka, Euskadiko txapelketa irabazi du

Aritz Bikuña hiru dominarekin itzuli da aurreko aste bukaeran jokatutako eslalom txapelketatik. Urrezkoak hirurak. Euskadiko txapelketa irabazi du. Eslalom modalitatean gurpil-aulkiaren trebatu behar izaten dute parte-hartzaileek. Aurrez zehaztutako ibilbidea gurpil-aulkiarekin egin behar dute, ahal duten akats gutxien eginda. Bakarkako eta taldekako proban onena izan da bergararra, aurrekoetan lortutako emaitzak berretsita. Euskadiko txapelketan lortutako emaitzei esker, Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du. Bartzelonan jokatuko dute, ekainean.

### Oñatiko Corpusetako nazioarteko lasterketa bertan behera utzi du Antxintxiketan Kirol Elkarteak

Antxintxiketan Kirol Elkarteak jakinarazi du bertan behera gelditu dela maiatzaren 28an egitekoa zen Oñatiko XIV. nazioarteko lasterketa, "arrazoi ezberdinak" tarteko. Bereziki "baliabide ekonomiko falta" argudiatu dute lasterketaren antolakuntza baztertzeko. Aurreko urteetako babesleetako batzuek kale egin dute aurten, eta taldearen baliabideak urteko beste bi lasterketetara bideratzea adostu dute: Arrasate-Oñati urriaren 8an egingo dute eta San Silvestre proba abenduaren 31an. (Informazio zabalagoa 19. orrian).

### Maiatzaren 8an egingo dute Musakolako mendi bizikleta irteera eta dagoeneko eman daiteke izena

Musakolako mendi bizikleta irteera eta umeendako bizikleta jaia maiatzaren 8an egingo dute. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago. Interesatuak *Musakola.com* eta *Kirolprobak.com* atarietan inskribatu daitezke, 13 euro ordainduta. Egunean bertan ere eman daiteke izena, 18 eurotan. Helduendako bi ibilbide zehaztu dituzte: motza 34 kilometrokoa eta luzea 40koa. Gustukoena aukeratu beharko dute. Bestalde, umeendako egingo duten jaian, bizikleta irteera egingo dute. Ume bakoitzak duen mailaren arabera, heldu baten laguntza izan beharko du. Taldeka banatuko dituzte txirrindulari gazteak.

# KULTURA




Igor Elortza bertsolaria eta Christian Simelio glosalaria, Bilboko saioan. | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Munduko inprobisatzaileen topaketa, motorrak berotzen

- 'Europa bat-batean' egitasmoaren girotze saioak egiten ari dira
- Bihar, zapatua, Aramaion izango dira, 19:00etan, Kultur Etxean

ENEKO AZURMENDI | ARAMAIO

*Europa bat-batean* nazioarteko kantu inprobisatzaileen egitasmoa motorrak berotzen hasi da. Ekimen nagusia uztailean izango da, Donostian, astebeteko topaketa. Baina aurrez, Euskal Herriko hainbat herritan saio batzuk egiten ari dira, beroketa gisa, apirilaren 16tik 23ra bitartean.

Herriz herri ibili ostean, bihar Aramaion izango dute hitzordua beroketa jardunaldi hauek, 19:00etan, Kultur Etxean. Azken geltokia izango da biharkoa, eta Xabi Igoa aramaioarra eta Beñat Gaztelumendi bertan izango dira bertsolari lanetan.

Bilbon, Hernanin, Donostian, Iruñean eta Markina-Xemeinen egin dute orain arte, eta gaur Uztaritzen izango da.

Hiru fase ditu ekimen honek: lehenengoa 2015eko udazkenean burutu zen eta Leonen eta Bartzelonan egin zituzten lehen saioak. Egiten ari diren jardunaldi horiek egitasmoaren bigarren fasea osatzen dute. Azkenik, esan bezala, uztailean egingo den topaketak biribilduko du proiektu hori.

Ekimen honen helburua da kultura arteko zubiak eraikitzea. "Nahi duguna da munduan zehar egiten dena ikustea eta aztertzea, eta haiek ere ikustea guk hemen egiten duguna zer den eta nolakoa den", azaldu du Amaia Goikoetxeak, Bertsozale Elkarteko kideak.

Hori horrela, nazioartetik hainbat kantu inprobisatzaile etorri dira Euskal Herrira, eta guztien jarduerak uztartzen ari dira aste honetan zehar. "Nazioarteko inprobisatzaileen ereduak eta haiek inprobisazioa nola lantzen duten ikustea oso aberasgarria da", adierazi du Xabi Igoa bertsolari aramaioarrak.

Kataluniako glosalariak, Sardiniako kantariak eta Kurdistango Dengbeja kantu inprobisatzaileak ari dira parte hartzen, bertsolariekin batera.

Belaunaldiz belaunaldirako transmisioa, gutxiengoan dauden hizkuntzen testuinguruen eta ahozko tradizioaren arteko erlazioa, ezagutzen ez ditugun kantu inprobisatuen deskripzioak eta genero-ikuspegia dira *Europa bat-batean* egitasmoaren baitan eskaintzen ari diren hitzaldi eta bat-bateko saioetan landuko diren gaiak.

> **ESANAK**
>
> **"Zalantza gabe onartu nuen ekimen honetan parte hartzea"**
>
> XABI IGOA | BERTSOLARIA

Adierazpide bakoitzeko bina inprobisatzaile ari dira, adierazpide bakoitzak eskatzen dituen gai-jartzaile, musikari eta ahots laguntzaileez gain. Gainera, atzerriko inprobisatzaileen jarduera ulertzeko, bat-bateko itzulpena eskaintzen ari dira emanaldietan, pantaila baten bitartez.

Saio bakoitzean, jarduera bakoitza bere aldetik abesten da eta jarduera desberdinen arteko nahasketak ere egiten dituzte. Argazkian, adibidez, Igor Elortza bertsolaria eta Christian Simelio glosalari kataluniarra agertzen dira, bien artean osatutako saioan, Bilbon.

Mintzola Ahozko Lantegiak eraman du aurrera, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin batera eta tokian tokiko erakunde eta eragileekin elkarlanean. Aramaiori dagokionez, Arabako Foru Aldundiak babestu du bertako saioa.

Aurrekari bezala, 2003. urtean *Ahozko inprobisazioa munduan* izeneko nazioarteko topaketa egin zen, Bertsozale Elkarteak antolatuta. Hau ere Donostian egin zen. Elkarrengandik ikasteko helburua izan zuen orduko topaketa hark, eta, hain zuzen, aurten ere gauza bera errepikatu nahi izan da *Europa bat-batean* ekimenarekin.

**Xabi Igoa herrian**

Biharko saioan Xabi Igoa bertsolariak bere herrian jarduteko aukera izango du, Beñat Gaztelumendirekin batera.

Horrelako ekimen baten parte hartzea eta, gainera, bere herrian izatea ederra dela nabarmendu du. "Parte hartzeko deitu zidatenean, ez nuen bi aldiz pentsatu, zalantzarik gabe eman nuen baiezkoa", dio Igoak.

Esperientzia aberasgarria izango delakoan dago aramaioarra, eta "irrikaz" dago biharko eguna iristeko. "Behin Aramaion bertan egin genuen horrelako saiotxo bat, Menorcako lagun batzuekin, baina hau desberdina izango delakoan nago", nabarmendu du.

Orain arteko saioek erantzun bikaina izan dutela azpimarratu du eta biharko ere gauza bera espero du.

### Plazatik Gaztetxera sariketako azken saioa bihar Bergaran

Plazatik Gaztetxera sariketak Euskal Herriko bertsolari gazteei kantatzeko aukera emateko helburua dauka.

Zazpi saioz osatuko da txapelketa, bikoteka. Lehenengo fasean lau kanporaketa jokatuko dira eta bakoitzean lau bikotek parte hartuko dute. Guztira, hamasei bikote daude, eta saio bakoitzetik bi bikotek egiten dute aurrera.

Epaitzeko orduan, publikoko talde aukeratu batek emozio handien transmititu duen bikotea aukeratuko du.

Apirilaren 15ean eman zitzaion hasiera txapelketari, Eibarren. Ane Zuazubiskar arrasatearrak eta Maider Izaga aramaioarrak osatutako bikotea txapelketatik kanpo geratu zen.



Eibarko saioko bertsolariak, tartean Zuazubiskar eta Izaga. | ANTOLAKUNTZA

Gaur, Maider Arregi oñatiarra Soraluzen arituko da, Jon Pinedorekin.

Bihar txapelketako azken saioa izango da Bergarako gaztetxean; afaria 20:30ean izango da eta saioa 22:30ean. Unai Aranzabal bergararrak eta Paula Amilburu aramaioarrak kantatuko dute. Datozen asteetan, finalerdiak eta finala jokatuko dituzte sailkatutakoek.




Stradivarias laukotea, taldearen izen bereko ikuskizuna egiten. | STRADIVARIAS

# Garai eta estilo askotako kantuak, hari-instrumentuekin jota

Udaberri Musikaldiaren egitarauaren barruan, antzerkia, umorea eta musika bateratzen dituen 'Stradivarias' umorezko antzerki musikatua Arrasaten

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Goi mailako musikariek osatutako laukotea da Stradivarias taldea. Amaia Antzokian izango dira etzi, domeka, 20:00etan.

Ez dute, baina, musika kontzertu soila egingo, askotariko diziplina batzen dituen umorezko ikuskizuna da Arrasatera ekarriko dutena. "Ezohiko formatua da. Musika, antzerkia eta dantza bateratzen ditu; horiek guztiak umorez lotuta. Edozeinendako modukoa da: dibertigarria eta ulertzeko samurra", azaldu du Sandra Silvia Gorzak, ekoizleak.

> **ESANAK**
>
> **"Edozeinendako da, dibertigarria eta ulertzeko samurra"**
>
> **SANDRA SILVIA GORZA** | EKOIZLEA

**Diven arteko borroka**

Ikuskizunaren hasierak musika klasikoko kontzertu baten itxura du, baina bat-batean gauza bitxiak gertatzen hasiko dira. "Jeloskortasunaren eta inbidiaren bueltan osatutako istorioa kontatzen da. Taularen gainean lau diva daude, nor baino nor divagoa. Guztiek gura dute onenak izan; lehia horretan, pasarte komikoak sortuko dituzte, hasierako seriotasuna zoramen dibertigarria bihurtuta. Irene Rouco (biolontxeloa) laukoteko serioena da; Inma Pastor (kontrabaxua), berriz, maltzurrena da; koitaduena da Melissa Castillok (biola) antzezten duena, eta emakumez mozorrotuta dagoen Isaac Pastor (biolina) da laugarrena. Orkestretako kideak dira guztiak, musikagintzan eskarmentu handia dute, bada. Hala ere, ez dituzte musika klasikoko piezak bakarrik interpretatuko. Kantu-zerrenda zabala da oso: Mozartetik The Police taldera egingo dute salto eta Schubertik Queenera; flamenkoari ere keinua egingo diote, eta koplari ere bai", gaineratu du Gorzak.

**Sarrerak hamar eurotan**

*Arrasate.eus* atarian eta antzokiko leihatilan eskura daitezke domekarako sarrerak.

# Euskal Herriko 'sketchcrawl' topaketa bihar, zapatua, Elgetan

Debagoieneko eta Euskal Herriko margo-zaleek elkarrekin marrazteko aukera izango dute

**A. ARANBURUZABALA** | ELGETA

Arkatza, margoak eta koadernoa esku artean hartuta, Euskal Herriko txoko askotatik etorriko diren margo-zaleak elkartuko dira bihar, zapatua, Elgetako herriko plazan, 10:00etan. Begien aurrean ikusten dutena zuzenean marraztea eta zaletasun bera duten lagunak egitea dute helburu; horixe da *sketchcrawl*-a: marrazteko hitzordua.

"Euskal Herriko Sketchcrawl Taldeak egin du deialdia; egun berean herrialde askotan egingo duten deialdi askorekin bat eginda. Helburu berarekin, munduko txoko askotan elkartuko gara egun eta ordu berean. Ekintza librea da, edozeinek har dezake parte; ez da maila jakin bat duten margolarientzako bakarrik. Erabil daitekeen teknika eta materiala ere librea da, bakoitzak egokien ikusten duena. Elkarrekin egun-pasa bat egiteko aitzakia da. Aurreko deialdietan egin izan dugun moduan, oraingoan ere, *euskalherriasketchcrawl.blogspot.com.es* atarian jarriko ditugu marrazki guztiak ikusgai", azaldu du Pili Azkaratek Bergarako margo taldeko kideak (Beart).

**Elgetan, lehenekoz**

Debagoieneko herri askotan egin izan dutelako eta Erresistenteen Egunaren bueltan antolatutako ekitaldiek ezohiko irudiak sortzeko bidea direlako aukeratu dute Elgetan batzea.



IMANOL SORIANO

## Trikitixa Eguneko lekukoa, Oñatira

Debagoieneko musika eta trikiti eskolako kideez gainera, besteak beste, Iparraldetik, Zumaiatik eta Azkoititik etorritako zaleak ere batu ziren zapatuan Bergaran. "Oso egun polita izan zen; egitarauarekin asmatu genuela esango nuke", dio Aritz Alustiza antolatzaileak.

ASKOA ETXEBARRIETA 'LA PULGA'



GOIENA TELEBISTA | GALDEGAZTE
BERGARAKO ARANZADI IKASTOLAKO GAZTEEK GALDERAK EGINGO DIZKIOTE
ASKOA ETXEBARRIETA 'LA PULGA' FLAMENKO DANTZARI EZAGUNARI
APIRILAK 27, 22:00ETAN | JOKIN BEREZIARTUAK AURKEZTUA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

# Gaur eskainiko dute Debagoieneko musika eskolen kontzertua Amaian

## 19:00etan hasita bailarako sei herritako 80 gazte arituko dira kantuan

**IRATI ELORTONDO** | ARRASATE

Arrasate, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Soraluzeko gazteek –talde bakoitzak 15 minutuko tartea dauka– hainbat kanturen emanaldiak eskainiko dituzte Arrasateko Amaia antzokian. Gaur izango da emanaldia, arratsaldeko zazpietan, eta sarrera doan da.



Arrasateko Big Band taldea entseguan. | EDORTA AIASTUI

**13 urte emanaldiak eskaintzen**

Orain dela 13 urte hasi ziren bailarako musika eskolen kontzertuak eskaintzen, 2003-2004 ikasturtean, hain zuzen ere, urtero herri ezberdin batean antolatuta. Herriak txandakatuz egiten dute topaketa, eta aurtengoa Arrasaten egiten den hirugarrena izango da, eta 80 musikari batuko dira bertan. Kontzertu hauetan, herri bakoitzak 15 minutuko emanaldia aurkezten du, eta taldeka antolatzen dira beti. Ekintzen arduradun Edorta Aiastuiren hitzetan: "Aurtengo kontzertua oso bariatua da, estilo oso ezberdinak datoz –orkestra, konboa, Big Band taldea...–, eta hori oso aberatsa da entzulearentzat. Espero dugu, lehenik, musikariek egiten dutenaz gozatzea eta entzulearen erantzuna aldi berean esanguratsua izatea." Pasa den urtean Aretxabaletan antolatu zuten kontzertua, 100 gazte batu ziren agertokian eta harrera paregabea izan zuten.

**Entsegu gogorrak**

Aurten Debagoieneko musika eskolen kontzertu topaketara Arrasateko Big Band taldea gehitu berri da. Talde honen kasuan, entsegu oso gogor eta intentsitate handikoak izan dituzte, Aiastuiren esanetan: "Arrasatekoen kasuan entsegu gogor eta intentsitate handikoak izan dira. Aipatu beharra dago aurkezten dugun Big Band Gazte taldea aurten sortutakoa dela, eta lan dezente egin da dena aurrera ateratzeko.".

**Egitarau bariatua**

Soraluzeko gazteek hasiko dute emanaldia antzokian, Maroon 5 eta Passenger taldeen bi abesti eskainita. Abesti ezagunen ildoari jarraituz, Bergarako Musika Eskolako hari-taldeak hiru abesti eskainiko ditu, Coldplay, Metallica eta Guns N' Roses taldeen bertsioak jota. Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolako haize-taldeak Abba talde suediarraren eta Alaska abeslariaren bertsioak joko ditu. Talde instrumentalak ere izango du garrantzia kontzertuan: Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako gazteek pare bat abesti joko dituzte, Tina Turner eta, berriz ere, Bergarako talde bezala, Guns N' Roses taldearen abesti bat bertsionatuta. Aretxabaletako Leizarra musika eskolako gazteen konbo taldeak hiru abesti eskainiko ditu, Deep Purple, Smash Mouth eta Whitesnake taldeenak, hain zuzen ere. Eta bukatzeko, Arrasateko taldearen txanda iritsiko da; izan ere, Big Band Gazte talde berriak hiru abestirekin emango dio amaiera kontzertuari. Entseguetan lanean ibili dira guztiak, eta W. Hanna, Jim Thomas eta Mort Stevens taldeen kantuak eskainiko dituzte gaur arratsaldean.

# Jokin Zaitegi sarian parte hartzeko azken eguna hilaren 25a izango da

**I. E.** | ARRASATE

Aurtengo parte hartzaileek 2015ean Svetlana Aleksievitx Bielorrusiako idazleak eskuratu zuen Literaturako Nobel sariaren *Gerrak emakume aurpegia du* liburua itzuli beharko dute. Parte hartu nahi dutenek antolatzaileek aukeratutako lagina eskuratu eta itzuli egin beharko dute apirilaren 25a baino lehen. Jatorrizko lagina eta lehiaketarako oinarriak *aedelkartea.eus* eta *elkarargitaletxea.eus/jokin-zaitegi* atarietan eskura daitezke.

**Sei parte hartzaile, oraingoz**

Astelehenera arte lanak aurkezteko epea badago ere, dagoeneko sei itzulpen aurkeztu dituzte. AEDko kide Itxaro Artolaren hitzetan, errusiera hizkuntza zaila izanik parte hartze ona egon da, oraingoz: "Hizkuntza zaila denean ez dugu lan asko jasotzeko aurreikuspenik izaten. Errusiera ez da ingelesa, gaztelania edo frantsesa bezalako hizkuntza, hiztun gutxiago ditugu euskaraz ere badakitenak." Aurreikuspena beste hizkuntzekin alderatuta baxuagoa bada ere, Artolak itzulpengile profesional eta trebatuak aurkezten direla dio: "Nahiz eta gutxi aurkeztu, itzulpengile ezagunak aurkezten dira urtero, profesionalak eta oso trebeak. Ziur gaude emaitza oso onak jasoko ditugula."

**Sari banaketa**

2012. urtean antolatu zuen AED elkarteak Elkar argitaletxearekin elkarlanean azkenengo aldiz itzulpen sariketa, ordura arte lehiaketaren babesle nagusia zen Kutxa Fundazioak laguntzeari utzi eta gero. Aurten Arrasateko Udalak sariketa berriro abian jartzea ahalbidetu du, lau urteko hitzarmena sinatuta. Ainhoa Ayerbe, Jose Inazio Basterretxea eta Roberto Serrano dira epaimahaikideak, eta irabazlea izendatuko dute 2016ko maiatzaren 20rako.

**ESANAK**

**"Mingarria izan zen sariketa etetea; kostu handikoa da"**

ITXARO ARTOLA | AED

# Oñatiko bi lan aurkeztu dituzte 'Bertsomovieda' lehiaketan

## Apirilaren 29an izango da sari banaketa Beasaingo Igartza jauregian

**I. E.** | OÑATI

Oñatiko Gero Pentzauku taldeak eta Ander Lizarralde *Pertzi*-k hartu dute parte, aurten, bertsozaleei zuzenduta dagoen film labur lehiaketan, *Etorriya* eta *Oñatiko Pertzo Eskolia* izeneko lanekin, hain zuzen ere.



Aurreko urteko irabazleak; tartean, Gero Pentzauku oñatiarrak. | BERTSOMOVIEDA

**Oñatiarrak lehiaketan**

Lehen aldia da Ander Lizarralde *Pertzi* oñatiarrak lehiaketan parte hartzen duela, eta Gero Pentzauku taldearen laugarrena. Aurkeztu diren edizio guztietan saria irabazi dutela dio Iñaki Olalde taldekideak: "Guretzat, saririk onena jendeak gustuko duela entzutea da; gainera, adin guztietakoak gerturatzen zaizkigu. Itxuraz, jendeak gustuko du gure estiloa." Oñatiarren film laburrei botoa emateko aukera gaur izango da *Bertsomovieda* webgunean.

**5 urte bertsotan**

2012. urtean jarri zen martxan lehiaketa, Neguko Bertsopaper lehiaketa ordezkatuz. *Bertsomovieda*-ko antolatzaileen hitzetan: "Bertso-paperen generoaren ibilbidea oso urratuta zegoenez, formatu honen ideia izan genuen; horrela, parte hartzaileek beraien inguruan zabaltzeko aukera dute."

**DATUA**

**31**

FILM LABUR

Euskal Herri osoko 30 lan eta Boiseko lan bat aurkeztu dituzte aurten *Bertsomovieda* lehiaketan.

**Sari banaketa potoloa**

Guztira, 2.500 euro banatuko dituzte. Gazteentzat, 300 euro film onena eta 150 euro aipamen berezia; helduentzat, 1.000 euroko lehen saria eta 300 euro aipamen berezia; ikusleen saria, 500 euro; eta bertsorik onenak dituen filmak 250 euro irabaz ditzake. Gaur iragarriko dituzte irabazleen izenak eta hurrengo ostiralean, hilak 29, izango da sari banaketa Beasaingo Igartza jauregian.

**Peru Atxa** | Tronpetaria eta baxu-jotzailea

# "Baxua jotzen hasi nintzen, tronpetarekin ez neukalako niri gustatzen zitzaidan musika jotzeko aukerarik"



Peru Atxa, bere bi instrumentuak eskuan dituela.

XABI GOROSTIDI

**XABI GOROSTIDI** | ARRASATE

Peru Atxa (Arrasate, 2001) musikarik gabe bizi ezin daitekeen horietakoa da. Tronpeta jotzen hasi zen eta duela gutxi baxuarekin probatzeko gogoa sartu zitzaion. Orain, Libertad Condicional taldeko baxu-jotzailea eta abeslaria da, eta, hamabost urte eduki arren, jada hasi dira kontzertuak ematen eta hautsak harrotzen.

**Kontatu nola hasi zinen musikaren munduan burua sartzen.**

Musikarekin hasi aurretik judoa praktikatzen nuen. Egia esan, ez zitzaidan askorik gustatzen eta segituan musika instrumentu bat jotzeko gogoa piztu zitzaidan. Dudan egon nintzen pianoaren eta tronpetaren artean, eta, nire lagun baten amak piano bat eskaini zidan arren, tronpeta jotzea erabaki nuen.

**Tronpetaren aldeko hautua egin ondoren, nola piztu zitzaizun beste instrumentu bat jotzeko grina?**

Duela hiru urte izan zen. Gero eta musika gogorragoa entzuteaz bat konturatu nintzen tronpetarekin nire gustuko musika jotzeko oso aukera gutxi nituela. Nire aitak baxua jotzen zuen; beraz, nahiko argi ikusi nuen nire *jostailu* berria zein izango zen. Lehen pausoak aitaren laguntzarekin egin nituen, baina handik gutxira Olatz musika akademian ikasten hasi nintzen.

**Nola sortu zitzaizun musika talde bat sortzeko gogoa?**

Baxua bera bakarrik jotzea ez zitzaidan gustatzen. Musika jarri eta gainetik jotzen nuen gehienetan, eta horrek eraman ninduen talde bat sortzeko gogoa izatera. Egoera hartan nengoela, institutuko bi lagunek gitarra jotzen zutela konturatu nintzen, eta segituan proposatu nien talde bat sortzeko ideia. Hasierako bateria-jotzaileak ez zuen ondo funtzionatu, eta hura aldatu genuenean dena errazago joan zen. Aurtengo udan urtebete egingo dugu eta jada hiru kontzertu eman ditugu.

**Non entseatzen duzue?**

Aramaion entseatzen dugu, El Exterminio de la Raza del Mono taldearen lokalean. Benetan eskertuta gaude, lokala uzteaz gain, mikrofonoak eta gainontzeko materiala uzten dizkigutelako. Beraien laguntzari esker gaude talde bezala aurrera egiten hain denbora laburrean.

**Taldea sortu zenutenetik urtebete igaro ez denez, zenbat abesti propio dituzue?**

Oraingoz, gure abesti bakarra daukagu, eta euskaraz egina dago. Orain, bigarrena amaitzen ari gara. Gure abesti propioez aparte, 22 abestiko errepertorioa daukagu, gustuko taldeen bertsioekin osatuta. Gure influentzia nagusiak RIP, Arkada Social, Des-kontrol eta Kaotiko dira.

**Zaila al da talde hasiberri batentzat kontzertuak lortzea?**

Gure lehen kontzertua Arrasateko Gazte Txokoan eman genuen, Never Surrender taldeko *Pottoko*-ri esker. Hori gutxi ez balitz, lehen abestirako letra egiten ere lagundu zigun. Gazte Txokoari esker, Oñatiko Gaztelekuan jo genuen bigarren kontzertua, eta ikaragarria izan zen bertako agertoki handian jotzea. Azken kontzertua Iluntz tabernan eman genuen, eta goraino bete zen, afaria prestatu ziguten... dena ondo atera zen.

**Musika alde batera utzita, zer moduz moldatzen zara ikasketekin?**

Orain ondo nabil, baina duela gutxi emaitza txarrak izan ditut. Musika larregi gustatzen zaidanez, ez nien behar adina denbora eskaintzen ikasketei.

**Etorkizunean zer izatea gustatuko litzaizuke?**

Musikari. Kontserbatorio batera joatea gustatuko litzaidake. Horretarako, Bilbon Batxilergo Musikala egingo nuke lehenago. Kontserbatoriora sartzeko maila handia izan behar da, eta horretarako gogor egin beharko dut lan. Hala ere, oraindik denbora dezente falta da horretarako.

**Zer aldatuko zenuke gaur egungo gizartetik?**

Batez ere, berdintasunik eza: pobrezia eta diruaren banaketa, etorkinekiko arrazakeria, gayen eta lesbianen eskubideak, gizonen eta emakumeen arteko aldea... finean, denak gara berdinak.

**MARRA AZKARREZ**

| | |
|---|---|
| **Liburu bat:** *Bat Pat.* | **Abesti bat:** Arkadaren *Seguiremos juntos.* |
| **Musika talde bat:** Arkada Social. | **Kirolik gogokoena:** Futbola. |
| **Gosari perfektua:** Zerealak. | **Baxu-jotzaile bat:** Hodei Beitia. |
| **Bidaiatzeko leku bat:** Berlin. | **Kolore gustukoena:** Urdina. |
| **Pelikula bat:** *Piratas del Caribe.* | **Futbol talde bat:** Reala. |
| **Aktore bat :** Johnny Deep. | **Disko bat:** Kaotikoren *EH Calling.* |

Zorion agur gehiago: 35. or.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
**Zaraitzu Lazkano Gorostiza**
Apirilaren 28an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Zure zazpigarren urtebetetze eguna! Primeran pasatuko dozulakoan, muxu potolo bat etxekuon partetik.



ARETXABALETA
**Izaro Aperribai Elejalde**
Apirilaren 28an, 5 urte. Zorionak, potxola! Eta patxo potolo bat aitatxoren eta amatxoren partetik!



BERGARA
**Noa Poza Goenetxea**
Apirilaren 27an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean etxekoekin eta laguntxoekin. Muxu potolo bat, mua!



OTXANDIO
**Aimar Arejolaleiba Carrasco**
Apirilaren 26an, 2 urte. Zorionak, Aimar, potxolo! Holako *sinpatiko* eta pozik segi, etxeko danen partetik.



BERGARA
**Lia Ayerbe Gomez**
Apirilaren 25ean, 10 urte. Zorionak, printzesa! Telmoren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
**Izortz Llodio Ramos**
Apirilaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Izortz! Dagoeneko 8 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunien, etxekoen partetik.



ARRASATE
**June eta Maddi Urionabarrenetxea**
Junek 7 urte egin zituen apirilaren 3an eta Maddik 3 urte egingo ditu, 25ean. Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu eta musu potolo bat, etxeko inurriaren partetik.



BERGARA
**Mikel Igartza Amasorrain**
Apirilaren 24an, 10 urte. Zorionak ! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Jarraitu orain arte bezalako mutil jator eta alaia izaten. Muxu potolo bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Ane Arregi Gantxegi**
Apirilaren 24an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
**Andoni Kortabarria**
Apirilaren 24an, 20 urte. Bostekin sei kandela desio ditugu, ta hemezortzirekin hemeretziren aiduru. Zenbaki borobilarekin egun zoragarria pasa dezazula espero dugu!



OÑATI
**Maren Altube Cid**
Apirilaren 24an, 6 urte. Zorionak! Eskerrik asko gure altxorrik ederrena izateagatik. Jarraitu horren jator eta alaia izaten! Besarkada handi bat, etxekoenpartetik: bereziki Aimarrek.



BERGARA
**Hodei Ibarra Sasiain**
Apirilaren 23an, 2 urte. Zorionak, Hodei! Primeran ospatu zure eguna eta patxo handi bat, laguntxoen partetik!



BERGARA
**Olatz eta Aitziber Aranzabal**
Apirilaren 23an, 41 urte. Zorionak, izeba eta amatxo. Egun ederra pasatu eta muxu handi bat, Anderren eta Naiaren partetik.



ARETXABALETA
**Aimar Azpitarte Zubizarreta**
Apirilaren 23an, 8 urte. 8 urte gure bizitza pozez alaitzen. Eskerrik asko, Aimar. Segi horrela, txapeldun. Zorionak, *futbolista*! Ondo-ondo pasatu eta disfrutatu zure merendolan. Patxo handi bat, maite zaitugun denon partetik. Aner, aitatxo eta amatxo.



OÑATI
**Ekain Leibar Zumalde**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak, Ekain! Ondo pasatu egun berezi hau eta patxo handi bat, etxekoen eta lagunen partetik.



ARRASATE
**Unax Andres Lopez**
Apirilaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, txikitxu! Urtebete bete dozu jada. Oso ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**Paula Biain Graña**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Zure hirugarren urtebetetzea zoragarria izan dadila! Muxu handi bana, etxekuan partetik.



OÑATI
**Naroa Elorza Bikuña**
Apirilaren 23an, 13 urte. Zorionak! Jarraitu horrela. Zu zara etxeko printzesa. Oso ondo pasatu zure egunean, bihotz-bihotzetik, zure familiaren partetik.



BERGARA
**Aiora Unamuno**
Apirilaren 23an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Etxeko neska handiak 3 urte ja. Patxo potolo bat etxeko danon eta, bereziki, Marenen, Aitorren, Uxueren, Alaitzen, Ibonen eta Liberen partetik.



BERGARA
**Antxon eta Oihan**
Apirilaren 22an, 12 urte. Zorionak, bikote! Artista batzuk zarete. Oso ondo pasatu zuen urtebetetzia. Muxuak eta besarkadak, etxekoen partetik!



OÑATI
**Iraia Arregi Orueta**
Apirilaren 21ean, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu eta patxo bat danon partetik! Mua!



BERGARA
**Iban Da Silva**
Apirilaren 21ean, 37 urte. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasatu zure egunian eta besarkada handi bat zuretako. Asko maite zaittugu! Kenar eta Alaine.



ARRASATE
**Laia Perez de Villarreal Perez**
Apirilaren 21ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! 4 urtetzar! Ondo-ondo pasatu zure eguna familia guztiaren eta, bereziki, amatxoren, aitatxoren eta Oihanen partetik. Patxo handi bat!



OÑATI
**Unax Altube Ayesta**
Apirilaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Unax! Bikain pasa dezazun zure familiaren eta lagunen partetik. Pastel gozoa edukiko duzu. Musu potolo handi bat!



ARRASATE
**Asier Agiriano Bermejo**
Apirilaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Asier! gure mutikoak 11 urte bete ditu! Egun ona pasatu eta musu asko, familia guztiaren eta, bereziki, Markelen eta Iratiren partetik.



ANGIOZAR
**Aimar Asurmendi Garcia**
Apirilaren 21ean, 2 urte. Patxo, patxo, muxu, muxu; eta aukeran txokolatezkoa.



ANTZUOLA
**Unai Eraña Belategi**
Apirilaren 20an, 8 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
**Olaia Urkia Goenaga**
Apirilaren 20an, urtebete. Zorionak, Olaia! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean. Muxu eta besarkada erraldoi bat, zure familia osoaren partetik.



ARRASATE
**Ane Saizar Cazalis**
Apirilaren 19an, 10 urte. Zorionak, maitxia! Hamar urte mando bete dituzu ja. Ondo-ondo ospatu zeure eguna. Patxo potolo asko aitaren, amaren, Itxasoren eta Izarren partetik.



ARETXABALETA
**Oier Otxoa Diaz de Guereñu**
Apirilaren 19an, 4 urte. Zorionak familiakoen partetik, Oiertxu!



ARRASATE
**Hugo Carmona**
Apirilaren 19an, 4 urte. Zorionak, poxpoli! Ondo pasatu zure urtebetetzean! Lau muxu potolo!



BERGARA
**Ainhoa Etxeberria Olabarria**
Apirilaren 19an, 21 urte. Ametsak kandelaka, lanak koloreka, zorionak kiloka, poza irribarreka... Beti ezin da egin zenbakiz neurketa, bizitza neurri bako zelai bat da eta! Zorionak, Luzin!



BERGARA
**Hodei Elkorobarrutia Berezibar**
Apirilaren 18an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! 6 urtetxo ja... Ondo pasatu zure urtebetetzea eta muxu handi bat, familiaren eta lagun guztien partetik. Bereziki Maddik.



OÑATI
**Nahia Guridi Olalde**
Apirilaren 18an, 7 urte. Zorionak etxeko printzesari! Behingoz 7 urte! Ondo pasatu zure eguna eta disfrutatu, lagunekin eta opariekin. Zazpi muxu erraldoiak, etxeko danon partetik!



OÑATI
**Maren Oleaga Mugarza**
Apirilaren 17an, 3 urte. Zorionak! Ondo ospatu eguna, laguntxoekin eta familixakuekin, eta ein putz fuerte hiru kandelak itxungitteko! Patxo haundi bat, maitte zaittugu!



BERGARA
**Olatz Alberdi Etxeberria**
Apirilaren 17an, 19 urte. Alai izatez, alai bizitzez, nekatzen ez den portera ta 19 urte beteta, zuretzat muxu parea, zorion on-onak, Kaxera!



BERGARA
**Oihan Leston Ezenarro**
Apirilaren 16an, 7 urte. Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta zazpi muxu potolo etxekoen eta, bereziki, Marenen partetik!



ESKORIATZA
**Itziar Bengoa Muxika**
Apirilaren 16an, 9 urte. Zorionak etxeko danon partetik, Itziar! Patxo handi bat.



ELGETA
**Urtzi Sarasua Zeberio**
Apirilaren 16an, 7 urte. Zorionak, mutil handi! Azkenean bai, iritsi da eguna. Ondo-ondo pasatu. Ander, amatxo eta aitatxo.



ARETXABALETA
**Maren Oroiz Antoñana**
Apirilaren 15ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Musu potolo bat, etxeko guztien partetik.

OÑATI
**Izar Guenetxea Irizar**
Apirilaren 15ean, 2 urte. Zorionak, marimatraka! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Peruren partetik.

## ZORION AGURRAK



OÑATI
**Alixe Ojea Garmendia**
Apirilaren 14an, bost urtetxo. Zorionak, familixa osuaren partetik!



OÑATI
**Magali Igartua Ugarte**
Apirilaren 14an, 2 urte. Zorionak, maittia! Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik. Mua!



BERGARA
**Ainhoa Gallastegi**
Apirilaren 14an, 11 urte. Zorionak, polit hori. Musu pila bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu.



OÑATI
**Josefina Arabaolaza eta June Romero**
Josefinak apirilaren 13an, 71 urte eta Junek 18an, 3 urte. Zorionak, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
**Beñat Arana Romero**
Apirilaren 13an, 3 urte. Zorionak, Beñatin! 3 urte! Etxekoen partetik, patxo asko!



BERGARA
**Nahia San Vicente Aizpiri**
Apirilaren 13an, 5 urte. Zorionak, maitxia! Bost urte jada! Ondo-ondo pasatu eta muxu pila bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Garazi Iriarte Aranburu**
Apirilaren 12an, 3 urte. Zorionak, Garazi, eta muxu handi-handi bat Beñaten, amatxoren, aitatxoren eta familia guztiaren partetik! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu beti bezain umoretsu. Asko maite zaitugu!

# ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAk ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** 190 metro koadroko duplexa salgai. Loretegia, baratzea eta garajea dauzka. 678 47 43 52 edo 943 76 50 97

### 102. EROSI

**Baserria.** Baserria errentan hartu edo erosiko genuke. 661 22 76 83

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Zerrajera kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelakoa. Igogailua eta garajea. 635 73 27 74

**Eskoriatza.** Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan. Sukalde, bi bainugela, egongela eta hiru komun. Interesatuok deitu zenbaki honetara:.605 77 51 65

**La Pineda (Tarragona).** Uztailean eta abuztuan etxebizitza ematen da erremntan. Asteka edo hamabostaldika alokatu daiteke. Interesatuok deitu zenbaki honetara:.650 58 66 99

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu zenbaki honetara: 634 42 13 70, edota idatzi posta elektronikoa honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bertako bikotea, Aretxabaletan etxebizitza bila. Logela batekoa, bikoa edo hirukoa. 664 545 377

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Neska gaztea logela bila, etxe konpartituan. 673 90 69 74

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Bost urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko Antzuolako edo Bergarako emakume bat behar da. Esperientzia baloratuko da. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. 688 66 76 91

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari lanetan aritzeko. Baita nagusiak zaintzen, garbiketan eta abarrean ere. 616 09 37 90 (Eva)

**Bergara.** Emakumezkoa prest asteburuetan eta jaiegunetan nagusiak zaintzeko. 665 75 41 32

**Debagoiena.** 30 urteko mutila sukalde laguntzaile edota ostalaritzan lan egiteko gertu. Arduratsua eta langilea naiz eta esperientziaduna. Berehala hasteko moduan. 608 01 54 11

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Lege paperak eta erreferentzia onak ditut. 631 96 81 63

**Debagoiena.** Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Emakumea prest etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi aldetik arazo gabe. 632 84 07 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten, egun erdiz zein orduka lan egingo nuke ume eta nagusiak zaintzen.. Deitu telefono honetara: 632 46 17 94

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. 662 02 45 80

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan edo nagusi eta umeak zaintzen lan egingo nuke, orduka, ordutegi malguarekin. 681 37 60 13

**Debagoiena.** Nagusien zaintza eta denetariko lanak egiteko prest dagoen gizonezko arduratsua. 632 42 92 61

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu orduka garbiketan eta nagusi zein umeen zaintza lanetan jarduteko. 688 81 48 24

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaintzeko, egunez edo gauez. Etxeak, atariak eta tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. Esperientzia dut. 603 45 83 80

**Debagoiena.** Neska gertu egunez edo orduka garbiketa eta zaintza lanak egiteko. 603 64 98 53

**Debagoiena.** Neska gertu garbikerak egin, nagusiak zaindu eta abarretarako. Txarkuterian ere lan egingo nuke. Orduka edo jardun osoz. 600 61 89 96 (Mari)

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 603 29 94 29 edo 685 57 54 33

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Ordutegi arazo barik. 685 64 84 78

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan, nagusi eta umeak zaintzen edo denetariko garbiketa lanetan arituko nintzateke. 629 29 11 23

**Lana.** Umeak eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Tabernako zerbitzari moduan, gozoki dendan eta urdaitegian ere bai. Presazkoa da. Eskerrik asko. 676 44 85 58

**Lana.** Zerbitzari moduan, sukalde, atari eta abarrak garbitzen, nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Dendari moduan aritutakoa naiz. Presazkoa da. 676 44 84 48

**Erizain laguntzailea.** Neska euskalduna, erizain laguntzaile tituluarekin eta esperientziaduna, lan bila. 10:30etik 16:30era edota 18:30etik aurrera lan egiteko aukera. Umeak edo nagusiak zaintzen. Gida baimena eta autoa dauzkat. 617 20 59 43

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Haur Hezkuntzako ikasketak dituen emakumea arratsaldetan haurrak zaintzeko edo orduka garbiketa lanak egiteko prest. Autoa daukat. 664 53 28 56

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Nagusiak eta haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen lan egingo nuke. Esperientzia handia daukat. Ordutegi aldetik ez daukat arazorik. Autoa daukat. 627 18 04 35 edo 943 08 23 99

**Ume zaintza.** Neska bergararra umeak zaintzeko prest. Ordutegi malgua eta lanerako gogo handia..648 00 25 66 edo 943 76 07 99

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**T4 westfalia.** 1999 urte inguruko T4 westfalia (sukaldeduna) erosiko nuke, 2.5TDI motorduna eta ondo zaindua. Ez dut astakeriarik ordainduko. Eskerrik asko. 660 43 64 29

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Hilabeteko katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 73 68 07

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Aramaio.** Zabola auzoan 4.800 metro koadroko lursaila salgai. Errepide ertzean. Aldapatsua. 20.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 609 44 95 91 edo 663 94 75 77

### 808. BESTELAKOAK

**Lapurreta Bergaran.** Apirilaren 5ean, Ramon Maria Lili kalean, Golf beltz bati kristala apurtu eta barruko poltsa ostu zuten. 15:00ak aldera izan zen. Mesedez norbaitek zerbait ikusi izan balu, jar zaitezte harremanetan ondorengo telefono zenbakian. 618 41 76 25. Eskerrik asko.


Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka, 85 m², 3 logela, Berriztuta. Ez du obra beharrik. 175.000€.
- Bolu, 113 m², 4 logela, igogailua eta trastelekua. 210.000€. Bi garaje aukeran.
- Irizar pasealekua, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 190.000€.
- Matxiategi, 72 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. Ez du obrarik behar.
- Lizaria, 50 m², 2 logela, Eraikuntza berria. Garajea barne. 197.000€. Eguzkitsua.
- Zabalotegi, 79 m², 3 logela, igogailua, eguzkitsua. Ez du obrarik behar. 165.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garajea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Aranerreka, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. 130.000€. Garajea aukeran.
- Madura, 65 m², 4 logela, bi balkoi. 110.000€. AUKERA ONA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log, 320.000€. PREZIO JAITSIERA. Terraza, igogailua, patioa.
- Ernai, 52 m², atikoa, 2 logela eta terraza handia. Etxebizitza tasatua. 178.000€.
- Espoloia, 95 m², 3 logela. Trastelekua. 200.000€. Garajea aukeran. 25.000€ .
- Koldo Eleizalde, 74m²+30m2 ganbara, duplexa egiteko aukera. 170.000€.
